



# ARGIA

1919-2019



## Arrazakeria euskararen etsai

ELKARBIZITZATIK ARI DIRA MIGRANTEAK EUSKALDUNTZEN GASTEIZ ETA HERNANIN

ERAKUNDE PUBLIKOAK KALE EGITEN ARI DIRA

30-37.orriak

# 2.671 | 2019 / 12 / 22 | 3,90 €



**"Eroso sentitzen naiz mehatxu eta gorroto giro horretan"**

16 | ABEL AZCONA



**Borroka moldeen eztabaida gatazka armatuaren ostean**

48 | POLITIKA



**LARRUN #248**

Internet 30 urte, argi-ilunak



# BIDELAGUN IZATEA

LABORAL Kutxaren arabera

Beste pertsona batekin edo batzuekin joatea edo egotea omen da bidelagun izatea. Baina, LABORAL Kutxan zerbait gehiago dela uste dugu. Une oro ongi aholkatzen jakingo duenen bat ondoan izatea. Horixe da bidelagun izatea.

EUSKADIKO PENTSIOAK, BANAKAKO BGAEa

## ZUREKIN EBOLUZIONATZEN DUTEN AURREIKUSPEN-PLANAK

- Zuri egokituak erretiro-egunera arte
- Zure neurrirako inbertsio dibertsifikatua
- Helburu bat: aurrezkien etekina hobetzea
- Ekarpen bakoitzak\* onura fiskalak ditu



\* Espainian merkaturatzen diren aurreikuspen-plan guztiek abantaila fiskalak dituzte. EUSKADIKO PENTSIOAK BGAE-REN BAZKIDE SUSTATZAILEA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • ONDAREAREN GESTOREA: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO • AUDITOREA: PRICEWATERHOUSECOOPERS AUDITORES SL. Kontsultatu parte-hartzaileentzako funtsezko datuen agiria gure bulegoetan edo webgune honetan: <https://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aurrezkia/planak/aurreikuspen-planak>



**LABORAL**  
kutxa

**Bada beste modu bat**

# Bizi nahi duen herria

**M**endea bete duen hedabideak, denbora tarte honetan horrenbeste lagunek egin eta bizitakoa erreparatzeaz bat, etorkizunari begiratu eta keinu txikia egin nahi die 100 urte barruko *Argia Jendeei*. Bigarren mendeurrena ospatzera iritsiko direla opa die, seinale litzateke Euskal Herria bizi dela. Batzuetan existitze hutsa erresistentzia ekintza bilakatzen baita, palestinarrek frogatu dutenez.

Ehun urte barru, atzera begiratu eta testu honekin topo egiten badu norbaitek, jakin beza kontziente garelara garai konplexuak bizitzea egokitu zaigula. *Merkatua*-ren izenean, munduaren erdia osatzen duten 3.800 milioik adina ondasun dute izugarri aberatsak diren 26 lotsagabek; *ingurumena*-ren izenean, klimaren larrialdia areagotzen duten azpiegitura kutsatzaileak eraikitzen jarraitzen dute gure agintariak; *bakea*-ren izenean, bizitza duinaren alde protestatzen duten herritarren aurka oldartzen dira; *berdintasuna*-ren izenean ekonomia emakumeen gainkargan oinarritzen da eta menpekotasun hau indarkeriaz iraurarazten; *askatasuna*-ren izenean, hizkuntza gutxiagotutako herritarren aurkako politika lotsagabeak inposatzen dituzte; *ongizatea*-ren izenean, estatuek migratzaileak giza eskubiderik gabeko esklabo bihurtzen dituzte, bitartean eskuin muturra hauspotzen dute eta zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzte. *Seguratasuna*-ren izenean, etengabe zelatzen gaituzte. George Orwellen mundua eta neo-hizkera indar betean.

Herritarren informatzeko ohiturak aldatzen ari direla eta, ondorengoak irakurri ditugu azkenaldian: sare sozialen garaiotan hedabideen bidez informatzeari utzi dio gero eta jende gehiagok. Irakurleen gehiengoak ez da titularretatik harago joaten. *Fake news*-ak barra-barra zabaltzen dira. Gehiengoak ez dago prest interneteko edukien truk dirurik ordain-

tzeko. Jendeak azken orduko informazioa estimatzen du gehien. Entretene-mendurako kontuak dira bisita gehien dauzkatenak, argazki, bideo eta eduki arinak azken batean.

Albiste asko eta informazio gutxiok garaiotan, ordea, *mainstream* hedabide gehienek sustatzen duten kazetaritza ereduaren aurrean –“badakigu batzuetan zabor kazetaritza dela, baina jendeak kontsumitu nahi duena da”–, badago zorionez bestelako kazetaritza estimatzen duen jendea ere. Gero eta gehiago gainera, nahiz eta komunikazioaren alorreko gurutzat ikusezinak garelara dirudien. Bada testuingururik gabeko berrietatik harago joan eta bere burua independentziaz informatzeko denbora hartzen duen jenderik. Ez garelara gehiengoak? Ez. Baina bagara nor, eta izaten jarraitzea bada zerbait. Eutsi eta geure burua indartzea da lehentasuna.

ARGIA egiten dugun lantaldeak kazetaritzaren funtzio soziala aldarrikatu nahi dugu: herritarren bizimoduan funtsezko diren gaiez informatzea eta botereari ahalik eta markaketa zorrotzera egitea dugu xede. Bitartean, hedabideen panorama itsusi jartzen ari da, geroz eta esku gutxiagoren eskuetan geratzen ari baita zer den albiste eta zer ez erabakitzeke boterea. Horri gehitu bankuen eta multinazionalen menpe dauden hedabideek edo interes alderdikoia nagusitzen den hedabide publikoek argitara dezaiketen informazioaren kalitatea.

Gurea proiektua txikia da, baina oso pozik itxiko dugu Mendeurrena, berriro ere frogatuz ez dela kazetaritza krisian dagoena, nahiz eta hedabide batzuek hori esan. Izatekotan, komunikabide horiek eta beren kazetaritza eredia dira krisian daudenak, urteetan ia egia bakarraren jabe izan diren pribilegiatuak. Beren sinesgarritasuna dago krisian. Kazetaritza independentea egitea da gure funtzioa eta hala adierazten digute azken urteetan komunitatera batu di-

ren lagunek, pausoa zergatik egin duten galdetzen diegunean. Azken urteetan ehunka eta ehunka lagun gehiago batu dira proiektu hau bultzatzeko. Milesker guztioi. Gure 100 urteko historian, teknologia berriei esker, ARGIA ez du sekula hainbeste lagunek irakurri, ikusi eta entzun.

Gure ustez, langileak proiektuaren jabe izateak ekarri du ARGIA egun den bezalakoa izatera, eta burujabetzen kontzeptua aldarrikatu nahi dugu garai nahasi hauetarako iparrorratz gisa, pluralean. Burujabetza politikoa, Euskal Herria zer izatea nahi dugun erabakitzeke. Elikadura burujabetza, jaten duguna lurretik platereraino gure esku izateke. Finantza burujabetza, gure aurrezkiekin zer bultzatzea nahi dugun erabakitzeke eta gure diruekin armarik eta negozio ilunik ez finantzatzeko. Gorputzaren gaineko burujabetza, pertsona izateke, ez merkatuko kontsumogai. Hezkuntza burujabetza, pertsona kritikoa sortzen dituen euskal eskola publiko, laiko eta eraldatzailea izateke. Teknologia burujabetza, gure egunerokoa kontrolatu nahi dutenen eskuetatik askatzeko. Energia burujabetza, gure beharrak doitu eta hauek energia berriztagarri asetzeke. Eta informazio burujabetza esparru hauetan guztietan sortzen ari diren esperientzien berri izateaz gain, munduari buruzko informazio fidagarria izateke.

Beraz, burujabetzak lantzen ditugun pertsona, mugimendu eta eragileen artean elkar-lanerako atea parez pare zabalki dugu. Hemen denok eusten diogu elkarri. Gainean dugun zibilizazio krisia elkarrekin ahalik ongien zeharka dezagun. Mundu zaharra hiltzen ari baita, eta berriari kostatzen ari zaio zutik jartzea. Antonio Gramscik zioen argilun horietan agertzen direla munstroak, ikusten ditugu, baina uneotan sortzen dira aukera berriak ere. Eguneroko poz txikiek eman diezagutela indarra ekinean jarraitzeke eta etorkizunerako haziak ereiteke. ●

## *Panorama*

- 06 | ASTEKO ARGAZKIA
- 08 | AKTUALITATEA
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU
- 10 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ILUSTRAZIOA:  
**PAULA ESTÉVEZ**

## *Iritziak*

- 23 | BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI
- 24 | MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
- 25 | ENEKO GORRI
- 26 | LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
- 26 | JOSEBA ALVAREZ
- 27 | IÑAKI BARCENA
- 28 | JUNE FERNÁNDEZ
- 29 | ANUNTXI ARANA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
**CLIPART COURTESY FCIT**

## *Finkoak*

- 75 | DENBORAREN MAKINA
- 76 | BIZI BARATZEA
- 86 | DENBORA-PASAK
- 90 | KULTUR KRITIKA
- 92 | ZUZENeko EMANALDIA
- 94 | ARGi-KONTRA:  
BETTINA CRUZ VELÁZQUEZ
- 97 | BERANDUEGI

### **38 | ARGIAK 100 URTE**

Estitxu Eizagirre Kerejetak  
hedabide independente honen  
mendeurrenari erreposoa egin dio.

**Mendeurren hiru opari:  
Bata jendeari, bestea ARGIAri,  
handiena Euskal Herriari**





## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL | NAZIOARTEA

### Lituania Txernobylen beldur: Bielorrusiak zentral nuklear berria piztuko dio mugan

Pello Zubiria Kamino

16 | ABEL AZCONA

### "Eroso sentitzen naiz mehatxu eta gorroto giro horretan, zorientzen nautenean baino erosoago"

Mikel Garcia Idiakez

30 | GIZARTEA | MIGRATZAILEAK ETA EUSKARA

### Lozorro instituzional eta sozialaren aurrean adabaki boluntarioak

Onintza Irureta Azkune

48 | POLITIKA | BORROKA MOLDEAK

### Gatazka armatuaren osteko ajeak astindu nahian

Zigor Oleaga

54 | FEMINISMOA | FRANCIS DUPUIS-DERI

### "Maskulinitatearen krisiari buruzko diskurtsoa ez dator bat errealitate sozialarekin"

Jenofa Berhokoirigoin

60 | MARIA DE JESÚS PATRICIO MARICHUY

### "Eskutik doaz kapitalaren proiektu handiak eta estatuaren biolentzia"

Iñaut Gonzalez de Matauko Rada

66 | NAZIOARTEA | LIBIA

### Nire bizilaguna giza trafikatzailerak da

Karlos Zurutuza

72 | EKONOMIA | AMAZON

### Ekonomia digitalaren paradoxa

Paul Iano

78 | KULTURA | KEN LOACH

### "Zinemari eskatu behar zaio gutxienez esna egotea"

Gorka Erostarbe Leunda

82 | KULTURA | ZUBELDIA AMA-ALABAK

### Musikatik bizi ez arren, musika dute bizigai

Mikel Asurmendi

88 | KULTURA

### Aire espazioa

Harkaitz Cano

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

#### Lehendakaria

Bego Zuza

#### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Igor Galarza, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa:

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Idoia Arregi, Karlos Olasolo,

Olatz Kortza

#### Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta Interaktiboa, S.L.

#### Lege gordailua

SS 837-2012

#### ISSN

0213-909X

#### Batzorde parekidea

72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

##### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa

Xalbardin baita. 64122 Urruña

##### Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina

31001 Iruñea

##### Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

##### Telefonoa

943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA











ERREALISTAK IZATEKO, EGOERA ERREALTIK ABIATU BEHARRA DAGO. ETA ZER ERREALAGO ETA GORDINAGO CARITAS-EK BERAK ARGITATATU DUEN AZKEN AZTERKETA BAINO: EAE-N 334.000 PERTSONA SOZIALKI BAZTERTUTA DAUDE ETA 90.000 PERTSONA "GIZARTE EXPULTSATUA"-REN PARTE DIRA

@Josebapermach



EGIA ESAN, EZPELAREN SITSAREN TANKERA DAUKA HUMANITATEAK. BIZITZEKO BEHAR DUEN EKOSISTEMA SUNTSITU EGITEN DU, IZURRITE BAT BALITZ BEZALA

Mikel Peruarena Ansa (Berria)



CARLOS GARAIKOETXEA LEHENDAKARI OHIAK GAL-I BURUZKO INFORMAZIOA GORDETZEN ARI ZELA LEPORATU ZION EAJ-RI. EAJ-REN ETA PSE-REN GOBERNUAREN ZUTOINAK ASTINDU ZITUEN TALDE PARLAMENTARIOAREN SORRERA SOSTENGATU ZUEN EUSKO ALKARTASUNAK. ARDANZAK "OPOSIZIOAREN TIK" GISA IZENDATU ZUEN HORI. ETA PSOE-K EAJ-REN LAGUNTZA ESKATU ZUEN

@Ahoztar1972



"FEMINISMOAREN SUBJEKTUA EZ DU ZEHAZTEN EZ SEXUAK EZ GENEROAK, POLITIKA FEMINISTAK BAIZIK"

Marta Brancas  
(@pikaramagazine)



# 20 urte erreforman

XABIER LETONA

## 2001: IBARRETXE PLANA

Ibarretxe Lehendakariak 2001eko irailean Gernikako Estatutua erreformatuko zela iragarri zuen. 2004an Estatutu Politiko Berria onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Batasunak gogor egin zuen planaren aurka, baina azkenean Legebiltzarrean behar zituen aldeko hiru botoak eman zizkion. Espainiako Kongresuak berretsi behar zuen, baina honek eztabaidarako ere ez zuen onartu.

## 2006KO URRIA: ERABAKI ESKUBIDEA LOIOLAN

ETAren su-etenaren baitan, EAJk, PSE-EEk eta Batasunak elkarrizketa politikoak izan zituzten Loiolako Santutegian. Lortutako aurreakordioan onartu zuten euskal herritarren erabakitzeko eskubidea eta EAEn eta Nafarroaren arteko organo bateratua. Azkenean akordio hura ez zen sinatu.

## 2008KO KONTSULTA

Ibarretxe Lehendakariak bere estatutu berritua kontsultara eraman nahi izan zuen, baina Espainiako Konstituzio Auzitegiak debekatu egin zuen. Hor amaitu zen Ibarretxe plana. "Josu Jon Imazen EAJk" ere -hala deitzen zuten hedabide unionestek EBBko lehendakaria- ez zuen ezer egin Estatutu Berriarekin jarraitzeko eta jeltzaleek historiaren tiraderan sartu zuten.

## 2012: URKULLU ETA ORTUZARREN EAJ

EAJk Iñigo Urkullu aurkeztu zuen lehendakaritzarako eta bere hauteskunde programan legealdiaren amaierarako Gernikako Estatutua berritzeko proposamena aurkeztuko zuela agindu zuen. Ez zuen agindua bete.

## 2016KO EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK

EAJk legealdi amaierarako estatutuaren erreforma proiektua egina izango zuela agindu zuen berriz bere hauteskunde programan. 2018an EH Bildurekin oinarri buruzko aurreakordioa ere lortu zuen, baina beratu testu idatzi batera eramateko ardura aditu talde baten esku utzi zuten. Urtebeteko lanaren ondoren, EAJk, EH Bilduk, PSEk, EPk eta PPK izendatutako ordezkariak ez dute testu bateraturik lortu eta testu nagusia berriz geratu da alderdien esku.

## 2020: BERRIZ HAUTESKUNDEAK, BERRIZ ERREFORMA

Hauteskundeak egingo dira eta EAJk berriz aginduko du hauteskunde programan Gernikako Estatutuaren erreforma egingo duela. Urkullu lehendakariak dio egingandako proposamena "bideragarria" izan behar dela. ●



## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

## 2119



ARITZ GALARRAGA

**M**unduko izotzak urtu dira, 66 metro egin du gora itsasoaren mailak, Baiona, Donostia, Bilbo urpean daude. Tenperatura 4'8 gradu igo da, lehorreak handitu dira, euri jasa handiak ugaritu. Betiereko bizitza erdietsi da, jendea ez da berez hiltzen, baina elkar hiltzen du, lekurik ez baitago guztiontzat –teknika modernoak garatu dira horretarako: urkamena, erreketeta, burugabetzea-. Bizkaiera ez da jada euskalki bat, hizkuntza oso bat baizik, bere akademia, bere akademiko, bere akademiakeriekin –eta diputazioarengandik jasotzen duen diru sarrera inportantearekin–: Labayru da Elkar zenaren balio-kidea, Bizkaia Irratia Euskadi Irratiarena, are sortu dute Gaztie izeneko kate bat. Bidasoako errepublika eratu berri da, Pio Baroja izendatu dute aberriaren aita, Borrokan taldearen abesti bat hartu dute ereserkitzat, izokin bat ageri da banderan. Euskal gatazkari buruzko literaturak –gatazka sortu zenetik 150 urtera, itzali zenetik 100era– boom bat bizi du; horren frogarik garbiena da Isham Rashafi idazle gasteiztarrak irabazi duela Nueva Hispania/Nova Hispania/Hispania Berriko Sari Plurinazionala, *Vitoria-Arcturus izar sistema-Vitoria* eleberriarekin. Bidaiez ari garela, Miarritze eta Antares lotzen dituen lehen airebidea inauguratu dute, airetxalupa erabiltzaileen aspaldiko eskaera betez; Arantxa Tapiak inauguratu du, hain zuzen, albistegietan ikusi ahal izan denez. EAJk hauteskundeak irabazi ditu euskal parroikia, merindade, departamendu guztietan. Athleticek, Bilbo utzi behar izan zuenetik Karrantzako Athletic, XIV. mendean Terranovara joandako euskal baleazaleen oinordekoak fitxatu, ez fitxatu debatea ireki du, azkenik. Argia agerkaria astero jarraitzen da argitaratzen: ez hasieran bezala kaputxinoen; ez gero bezala ezkor, taliban, ultra-koherente, jasangaitz batzuen; baizik eta humanoida Begi Latzen eskutik. Baina 2119an, jaio zenetik 200 urtera, Argia jarraitzen da noski argitaratzen. ●

## EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com



## “INBESTIDURARAKO ERC-REKIKO NEGOZIAZIOAK ONDO DOAZ”

### PEDRO SANCHEZ LONDRESTIK, PSOE-ERC NEGOZIAZIOEZ

Espainiako Gobernuako jarduneko lehendakari Pedro Sanchezek Londresetik luzatutako berbak dira. Dioenez, Kataluniari buruzko negoziazioak beti izango dira Konstituzioa eta Estatutuaren barruan. ERC giltzarri da PSOEek eta Unidas Podemosen eratu nahi duten gobernuaren osatzeko. Ez badu lortzen, seguruena dagoen hilabeteetan hauteskundeak errepikatu beharko dira, hirugarrenez.

ACN (2019/12/4)



# Borroka solidario eta antikapitalista



JUAN MARI ARREGI

**E**uskal pentsionista solidarioek 101 egun bete dituzte abenduaren 16an Hego Euskal Herriko lau hiriburu-eruetako eta herri ugaritako udaletxeen aurrean elkarretaratzten. Astelehenero bezala –eta jadanik bi urte dira– iraunkortasuna, irmotasuna, batasuna, transbertsalitatea eta elkartasuna erakutsi dute. Borroka sozialaren eredu izan dira.

Agintean dagoen sistema kapitalistaren kontrako borroka da –aginte horrek, administrazioaren laguntzarekin, plan pribatuak sustatzen ditu sistema publikoaren kaltetan–. Borroka solidario eta zeharkakoa da, kolore eta ideologia askotako pentsionistak batu baititu. Belau-naldi artekoa ere bada, eurentzat ez ezik, seme-alaba eta bilobentzat ere exijitzen dituztelako pentsio publiko duinak. Gutxieneko pentsio eskasak jaso eta soldata prekarioak dituztenekin ahazten ez den borroka da honakoa.

Euskal pentsionistek jakin dituzte uztartzen udaletxe aurreko astero-ko mobilizazioak beste manifestazio jendetsuekin, baita Madrilera egindako martxarekin ere. Beraien aldarrikapenak ez dira aldatu: egiazko KPIaren arabera birbalaraturiko pentsioak, gutxienez 1.080 eurokoak; 1.200 euroko gutxieneko soldata; eta Eusko Jaurlaritzak nahiz Nafarroako Gobernuak osatu dezatela gutxieneko hori.

Gainerako jendartearekin solidari-zatu dira, eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak urtarrilean deituriko greba orokorrarekin bat egin dute. Lan-erreformaren kontra, pentsio duinen alde, 65 urterekin jubilatutako ahal izateko, 35 orduko lan-astea edukitzeko... Zorionak pentsionistak! Ideologia anitzarekin bat eginik, jarrai ezazue aldarrikatzen: “Agintzen duenak agintzen duela ere, beti pentsioen alde”. ●



# Ez, ez da soilik kirol ekitaldi bat

**JON TORNER ZABALA**

**E**spainiako gizonezkoen futbol selekzioak, 1967az geroztik lehenbizikoz Euskal Herrian, San Mames estadioan jokatuko ditu 2020ko Eurokopako hiru partida. “2014an aurkeztu genuen hautagaitza Bilboko Udalak, Bizkaiko Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzak, artean ez genekienean zein selekzio sailkatuko ziren”, zioen Kultura sailburu Bingen Zupiriak, azaroaren 19ko gobernu kontseiluaren osteko agerraldian. “Espainia sailkatu egin da, eta hartutako konpromisoari eutsiko diogu guk. Normaltasun irudia proiektatu nahi dugu. Kirol gertakari bat da, ez besterik; hortik aurrera, herritar bakoitzak jakingo du zer egin”.

Egia da. 2014an, Jaurlaritzak ez zekien Espainiako selekzioa 2020ko Eurokoparako sailkatuko zen ala ez. Baina imajina zezakeen, 1980az geroztik behin bakarrik (1992an) huts egin duelako eta hura zelako azken bi edizioetako (2008 eta 2012ko) txapelduna. Bazekiena zen, inolako zalantzarik gabe gainera, nork ez zuen Eurokopa jokatu: euskal selekzioak. Baina guztiz bateragarriak direnez euskal selekzioaren alde lan egin eta denbora berean espainiarra hauspotzea, Javier Clemente hautatzaileak demostratu duen moduan, ez gara ustezko kontraesanetan katramilatuko, mereziko lukeen arren.

Kontuak kontu, instituzioek euren konpromisoari eutsiko diote, normaltasun irudia proiektatu eta gauzak zein ongi antolatzen ditugun erakusteko. Norberak jakingo du horren aurrean zein jarrera hartu. “Baina sentsibiltate guztiak errespetatu behar dira”, falta zitzaion esatea Zupiriari. Edota esaldi zuri bezain engainagarri hori: “Ez ezazue kirola politikarekin nahastu”. Nahastuko ez dituzten bezala Bilbo eta inguruak espainiar banderez josiko dituzten milaka futbolzaleek, gurera etorriko diren –eta jada bertan diren– kazetari hooliganek, segurtasun indar are hooliganagoek, ustelkeria kasuekin lotutako UEFA eta FIFA erakundeetako ordezkariak –zeintzuk musutruk lan egingo duten boluntario bila dabiltzan–, kirol gertakari batera politikan aritzeagatik gonbidatuko dituzten politikariak, eta abar.

Futbola, are gehiago hainbeste jende, interes eta diru –aurki haizatuko dute instituzioek inpaktu ekonomikoaren argudioa– mugitzen duen Eurokopa bezalako txapelketa bat, sekula ez da izango kirol ekitaldi bat soilik. “Kirolak politikarekin zerikusirik ez duela pentsatzen dutenek, edo deus ere ez dakite kirolaz, edo deus ere ez dakite politikaz”, dio Gerardo Caetano historialari uruguaiarrak. Eta Zupiriak –Jaurlaritzak– badaki politikaz, badaki kirolaz –hein batean bederen–. Beraz... ●





DANI BLANCO

**PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE.** 2020ko urtarrilaren 11n egingo da urtero Sarek euskal preso politikoaren eskubideen alde Bilbon antolatzen duen manifestazioa. ETak borroka armatuarekin amaitu eta zortzi urtera, Frantzia eta Espainiako estatuek preso eta haien senideen eskubideak zapaltzen jarraitzen dute. Etxerat-ek emandako datuen arabera, EPPKn oraindik 246 preso daude –azaroko datuetan–: bi Euskal Herriko espetxeetan, 205 Espainiako Estatuko beste 40 espetxetan, 36 Frantziako Estatuko hamar espetxetan; hiru euren etxetan.

## GUTXIENEN SOLDATA

# 1.310

Bizkaiko metalgintzan lortu duten gutxieneko soldata da eta, 2020tik aurrera, urteko 18.340 euro jasoko dituzte 58.000 langilek, hamalau pagatan banatuak. 2011. urtetik lan hitzarmena berritu gabe zuten. LABk, UGTk eta CCOO-k sinatu dute akordioa FVEM patronalarekin (langileen ordezkariaren %58,42). ELAk ez du akordioa sinatu (%41,58).



**ELKANO LEHEN MUNDU BIRA** filma hautatu dute urriaren 25ean Espainiako Goya Sarietan lehiatuko diren hiru animazio filmen artean. Elcano Fundazioak sustatu du nagusiki pelikula eta kritikak izan ditu, besteak beste, espainiar inperialismoa zuritzeko egiten duen lanagatik.



**ERRETRETEN ERREFORMA** indarrean jarri nahi du Emmanuel Macron presidentek 2020an. Erretretak ordaintzeko Frantziako BPGaren %14 baino gehiago bideratzea debekatu nahi du, besteak beste. Protesta handiak izan dira jada estatu osoan eta datorren urtean ere izango dira.



**EUROPAR BATASUNEAN** zuzenean sartzeko proposamena egingo du Kataluniako Generalitateak Europako Planari buruzko Liburu Zurian, EB barneko estatu bateko herrialde batek hala erabakitzen badu. Egun, EBko estatu kide guztien baimena beharko luke balizko herrialde horrek.

# Klima aldaketa eta ekintza zuzena

ARGIA

**K**lima aldaketaren COP25 gailurra iragan da eta ezin esan egoeraren larriari aurre egiteko esperantza gehiegirik sortu denik Madrilan. 2015eko Pariseko gailurreko neurriak 2020an jarriko dira indarrean, 2030erako berotegi efektua 1,5 gradutan uzteko. Horretarako, datorren hamarkadan berotzea dakarten gasen isurketa %7,6 gutxitu beharko litzateke urteko. Baina, ez da hori gertatzen ari eta jaisten baino, isurketek handitzen jarraitzen dute. Egoera, beraz, gero eta larriagoa da eta munduko gasen erdia isurtzen duten AEBk –bereziki–, Txinak eta Indiak ez dituzte euren isurketak gutxitzen. Ezta gainerako estatu handienek ere.

## EKINTZA ZUZENAREN UNEA

Egoera horren aurrean, mugimendu ekologista berriak sortzen ari dira eta ekintza zuzena gero eta indar handiago hartzen ari da, 2020an argi ikusiko den gisan. Horien artean eza-gunena Extinction Rebellion da, baina Jaka Horien mugimenduan ere bada klima larrialdiarekiko sustrairik, edo baita ere Euskal Herrian Emmanuel Macronen potretak bahitzen dituen Bizi! mugimenduan.

# LITUANIA TXERNOBYLEN BELDUR BIELORRUSIAK ZENTRAL NUKLEAR BERRIA PIZTUKO DIO MUGAN

2019ko film serie ikusienetakoa izan omen da Chernobyl, 1986an orduan Sobietar Batasuna zen eremuan gertatutako hondamendia kontatzen duena. HBO eta Sky kateek ekoiztutako drama historikoaren eszena ugari Ukrainako edo Bielorrusiako hirietan ez baina Lituaniako hiriburuan errodatu ziren.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

**H**istoriak sarritan erabili ohi baitu ironia, karrika horiek urriaren hasieran ikusi dituzte berriro Chernobyl-ekoen antzeko irudiak bizi-bizian, nahiz eta munduan oso gutxi ikusi dituen: Lituaniak leherketa nuklear baten simulakroa egin du, Vilniusetik 40 kilometrora Bielorrusiak urte berriarekin abiaraziko duen Astravyets zentral nuklearraz kezkatuta.

Irailean gobernuak jakinarazi zuen 900.000 euro gastatuko zituela 2,8 milioi lituaniarrentzako -herrialdearen populazioaren herena- iodo pilulak erosten. Babes Zibileko agentziaren buru Edgaras Gedak hedabideei aurreratu zien urriko maniobren funtsa: "Chernobyl seriean ikusi duzuen guztia ikusiko duzue hemengo kaleetan: sire-

nak, sorosleak, helikopteroak...Hemen jendeak gogoan dauka Txernobylen gertatua, gure senitarteko asko, tartean nire osabak, erreskate lanetara eraman zituzten, horregatik ezagutzen dugu hain ondo. Ez gara hurrengo istripua noiz gertatuko zain egongo, gertatuko denerako prest egon behar dugu".

Hala ikusi dira -nahiz eta euskaldunoi ez dizkiguten erakutsi- urriaren 1 eta ondorengo hiru egunetan zientoka funtzionario, boluntario eta tartean harapatutako herritar protagonista izan dituzten maniobrak: sirenak alarma joka, larrialdi dei eta mezuak jendeen telefonoetan, militarrek ebakuazio lanetan, biktima papera egiten zuten boluntarioak miaketa eta frogak jasaten, larrialdi nuklearretarako jantzitako

LITUANIAK LEHERKETA  
NUKLEAR BATEN SIMULAKROA  
EGIN DU, BELARUSFEED  
ATARIAK ERAKUTSI MODUAN.



agenteak pertsona, animalia eta jakiak testatzen... Googleatuz aurki daitezke irudiak.

Egun horietan zeukaten hitzordua Lituania eta Letoniako lehendakariak eta publikoki azaldu zuten ados zeudela Astravyetseko zentral nuklearrak eragiten duen kezkan. Hori bai, Letoniak ez du bere egin Lituaniak Bielorrusiatik datorren argindarrari uko egiteko hartutako erabakia.

Gitanas Nauseda lehendakari lituaniarrek etxean bezala atzerrian esan du Bielorrusiak muga kontrari erakitako zentrala oso arriskutsua dela eskualdeko beste herrialdeentzat, Astravyetsek ez dituela betetzen segurtasun estandarrak, 2012an eraikitzen hasi zirenetik ere hor gertatu direla hainbat





istripu, lapurreta, langileekiko tratu txar eta bestelakoak: zurrta da gutxienez hiru langilek galdu dutela bizia eta –hasieran promotoreek ezkutatu zuten arren– zentralaren lapiko nagusia izan behar duen 330 tonako piezak altuera batetik erori eta matxuratu zela gruak huts eginda. Fukushimaz geroztik nuklearrik hiri handietatik 100 km baino hurbilago ez eraikitzeko gomendioa ere ez du betetzen. Lituaniak Europar Batasunari eskatu dio Bielorrusiari presio egin diezaion.

Bi erreaktore atomikorekin 2.400 megawatt ekoiztu behar dituen Astravyetseko zentrala Rosatom errusiarrak eraiki du. Rosatom enpresa publikoak baditu, Errusiaz gain, beste hainbat proiektu martxan edo bidean, tartean

Txina, India, Turkia, Hungaria eta Finlandian. Joan den abuztuan istripu larri bat gertatu zen Rosatomen ardurapean misil atomiko bat probatzen ari ziren Nyonoksa base militarrean; bost militarrek galdu zuten bizia eta agintariak zehaztu ez duten jende gehiago zauritu erradioaktibitatez.

Lituaniarrek ez dute arrazoirik falta Bielorrusiarekin haserre egoteko, beraien erreferendumez energia atomikoari uko egin ostean Vilniusetik 40 kilometrorra Astravyets eraikitzen ikusita. Bi herrialdeak ziren Sobiet Batasuna handiaren osagai 1986an Txernobylek eztanda egin zuenean. Lituaniak garai hartan Txernobylgoaren berdintsua zen Ignalina zentrala zeukan martxan.

Europar Batasunak iritzi zion Igna-

lina arriskutsuegia zela eta 2009an itxi egin zuten. Aurretik, agintariak erreferenduma antolatu zuten herritarren iritzia jakiteko: gehiengoa zentralak martxan jarraitzearen alde azaldu zen baina parte-hartzeak %50a lortu ez zuenez, gobernuak EBri jaramon egin zion.

Ignalinas itxita Lituania Errusiak saldutako argindarraren mende geratu zela eta gobernuak Letonia eta Estoniakoekin batera erabaki zuen berri bat eraikitzea: Visaginas, 1.350 MWe-ko potentziaz. 2012an parlamentuak (Seimas lituanieraz) erabaki zuen gaiak herritarren oniritzia behar zuela eta erreferenduma antolatu urriaren 14rako. %52,58ko parte-hartzearekin, nuklearrari ezezkoa %64,77k, baiezkoa %35,23k. Zer gertatu zen 2009ko erre-



# Lemoizko nuklearraren inguruko isiltasun lotsagarri hori

La Parisienne Liberée kazetari, artista eta ekintzaileak irailen plazaratu duen *Le nucléaire, c'est fini* liburuak ("Nuklearra, izorrotuta dago" itzul genezake libreki edo "Akabo nuklearra") honela dio atzeko azalean: "Industria nuklearreko konpainia erraldoiek kiebra jo ostean bata bestearen ondotik, orain ezin konta ahala ekaitz, uholde, lehorte eta beroaldi gero eta gogorragoek mehatxatzen dituzte zuzenean nuklearrak. Antza denez, klimak erabaki du noren alde dagoen: antinuklearra da. Baina pentsa al dezakegu finantz arazoek eta klimaren ingurukoek emango diotela akabera interes politikoa eta militarrei estuki lotua den produktio bati? Industria atomikoa bere osoan dago eraikita 'isiltasun nuklear' baten oinarrien gainean, honek azkenean estaltzeraino nuklearrari aurre egin dioten mugimenduen oroimena bera, hala erakusten du Euskal Herriko Lemoiz zentralaren kontrako borrokak, Frantzia arras ezezaguna denak". La Parisienne Liberée (LPL) motz geratu dela honetan: Frantzia bakarrik ez, Euskal Herrian ere belaunaldi gazteek ezezaguna dute Lemoizko gudua eta zaharrago askok nahiago lukete ahaztu, funtsean baketze antiterrorista gehiago daukan bizikidetzaren alde.

Sortzez Fleur deitzen den kazetari, poeta eta kantari paristarrak, gaur Ipar Euskal Herrian bizi denak, *Radio Kultura*-ri kontatu dio urte batzuk kabareteko

kantari zeramatzala eta Sarkozy lehendakariaren garaian erabaki zuela kantuar aktualitate politikoan murgiltzea. *Le Parisien Libéré* (Paristar Askatua) egunkariaren titulu asko erabiltzen zituen kantak sortzerakoan, azkenean horretatik egokituz bere izen artistikoa. LPL ezaguna da aktualitateko gaiez bere bikote Mimosorekin elkarlanean idatzi, kantatu eta ekoizten dituen bideoklipengatik. Hegoaldeko euskaldunen artean batzuek ezagutuko dute euskarazko azpitoluak ere badaramatzen *L'Injusticed'Alsasu* (Alsasuko Injustizia).

*Le nucléaire, c'est fini*-k daukan 230 orrialdeetatik 52 eskaini dizkio Lemoiz eta le pays non nucléaire (Lemoiz eta herrialde ez nuklearra) atalari. Lemoizko zentralaren historiari eta 1970 eta 1980eko borroka hartaz publikatuta –eta gaur baztertuta– dauden materialetatik abiatuta, LPLk marraztuko ditu euskal gazteek osorik ezagutu beharko luketen krisi handi baten lerro nagusiak, Basordasen datzan munstro fosilizatuaren historia: Francoren azken Plan Energético haren haritik, gaur Euskal Herriak eduki zitzakeen lau zentral (Lemoiz, Itziar, Ea-Ispaster, Tuter) eta horietan 7-13 erreaktore atomiko.

Euskal Herriaren biziraupena bera arriskuan ipiniko zuen planaren kontrako mobilizazio epikoa bikain deskribatu du LPLk, hasi Espainiaren nuklearzaletasunaren jatorritik (Francok bonba atomikoa eskuratu nahi zuen 1960ko hamarkadan...) eta Euskadi nuklearizatu baten lehen urratsa izan behar

zuen Lemoizen kontra piztutako gatazkan laburbilduz, ihes egin barik herrietako mugimendu espontaneoan, mugimendu antinuklearren eta proiektuaren gelditzeo erabakiorra izan zen ETA-

ren arteko elkarbizitza konplexuari. Kronologiak jasotzen ditu Iberdueroren aha-legendak, mugimenduen ekintzak, gaur harrigarri egiten diren milaka askoko manifestazioak, desobediencia eta sabotajeak, Martin Zabaletak Everesten jarritako banderak eta egindako oihuak, ekintza armatuetan hildako 12 pertsonak (zentraleko langileak, tekniko buruak, ETA eta Iraultzako militanteak), instituzio autonomiko sortu berrien eta beren goi karguetan zeuden politikarien jokabide tamalgarria..

170. orrialdean irakurleei LPLek aurkezten die Gladys Del Estal euskal militante ekologista, Tuteran 1979an guardia zibilek manifestazio baketsuan hila, eta horretarako datuak hartu ditu ARGIAK aurtengo martxoan plazaratutako *Eguzkiaren alaba hil ziguten* erreportajetik, Urko Apaolaza Avilari aitortpena eginda.

Baina Lemoizi buruzko atalak euskaldunontzako daukan erakargarritasunetik harago, euskaratzea merezi lukeen liburua da *Le nucléaire, c'est fini*. Azkenean, LPLk horrekin zerari erantzun nahi dio: munduko herrialderik nuklearizatuena den Frantzia nola da posible herriarren ezezagutza hain handia izatea atomoaren mende egunero bizi dituzten arriskuez? Gakoa isiltasun nuklearrean datza (*silence nucléaire*), bonba atomikoaren jabe den armada barne daukan industria nuklearrak gizarte osoari inposatu dion isiltasun erabatekoa. Adibide ondo dokumentatuak azaldu ditu LPLk liburuan.

Ezkutatutako istripu eta larrialdien artean dago Bordele inguruan gertatutako susto bat. 1999ko abenduaren 27 eta 28an hondamendia gertatzeko puntuan egon zen Blayaiseko zentral atomikoan, inguru haiek ito zituen uholde izugarriak bere lau errektoreak gelditzeko arriskura eraman zuenean. Gogoratu Fukushima lurrikarak ez baina itsasotik iritsitako uholdeak leherrarazi zuela. Blayaiseko lau errektoreetatik bakar batek eztanda egin balu, euskaldunok ere igarriko genion: Baiona 209 kilometrorra dago, Bilbo bera 287 km-ra, Google Mapek berretsiko dizue.







**ASTRAVYETSEKO ZENTRALA.** BIELORRUSIAK MUGA KONTRAN ERAIKI DU ETA LITUANIako HIRIBURUA DEN VILNIUSETIK 40 KILOMETRORA DAGO.

ferendumaren eta 2012koaren artean? Fukushima istripu atomiko larria zen 2011ko martxoan –eta kasualitatez, Visaginas Hitachi japoniarrak eraiki behar zuen–.

2020ko urtarrilean piztu behar du Bielorrusiak zentral berria eta berme gehiago negoziatuta bada ere, lituaniarrek ikasi beharko dute bizitzen ondo-ondoan daukaten Astravyetseko atomoeekin. Ez ditu askorik kontsolatuko jakiteak ez direla horretan bakarrik. Austriako herritarrak ere, zentral atomikorik eraikitzea legez eta baita konstituzioz ere debekatuta daukaten arren, kondanatuta ikustera nola, lehendik inguruetan daudenez gain, zentral berriak eraikitzen ari diren Eslovakian eta Hungarian, edozein istripuk austriarrak ere zuzenean kaltetzeko moduan.

Bitartean, Bielorrusiako jendeak zer dio? Ez dakigu, Europar Batasuneko kide den Lituaniar larrialdi nuklear

bat egin dutela jakin ez badugu, nekezago iritsiko zaizkigu karaktere zirilikoz idatzitako hedabideen oihartzunak. Txernobyleko fabrika malapartatua Bielorrusiaren mugatik 5 kilometrora zegoen. Txernobyleko katastrofearen ondorioak Ukrainak berak baino garestiago pagatu dituen Bielorrusia 2020an berriro energia atomikoarekin jokatzeko apustuan ikusteak zerbait adierazten du hango sistema politiko eta sozialaz.

Nuklearrik Gabeko Bielorrusiaren Aldeko Zientzialarien Elkarteak aspalditik ari da agintariak ohartarazten Astravyetseko proiektuaren arriskuez eta bere ahalen arabera mobilizatzen. Zientzialarion buruzagietako bat, Heorhi F. Lepin fisikari zaharra, Belsat telebista kate poloniarrari mintzatu zitzaion joan den ekainean. “Txernobil gogoratzeko beharra sentitzen dut, jendea Txernobyl oroitartzeko beharra”, dio kameraren aurrean. “Gauza asko ikusi nituen han

munduari kontatu behar dizkiodanak. Oraindik bihotza urratzen dit”.

Unibertsitatean zientzialari ezaguna zela, 1986an bere borondatez joan zen Txernobylera. Sei urtez aritu zen leher-tutako erreaktorearen ondoan lanean. Txernobylen biktimen legearen idazketa taldean parte hartu zuen. Zenbait liburu idatziak ditu gaiaz. Lepin hasieratik harritu zen Astravyetseko zentralaren kokagunearekin, ingurua arrisku sismiko handikoa delako eta justu hautatutako gunetik oso hurbil dagoelako gerra bakteriologikorako erabili den *Bacillus Anthracis* (lupu beltzaren bakterioa) gordetzen duen biltegi bat. 20 zientzialarik hasieratik ohartarazi zuten publikoki horrelako zentral bat eraikitzeo lekurik desegokiena dela hura.

1994tik Bielorrusiako presidenten den Aliksandr Lukaxenkak ez ditu asko maite Lepin eta bere sokako zientzialariak: “Berak dio zientzialari alfer-rak garena nuklearraren aurka gaude-nok, ezin baitu esan ezjakinak garenik. Hartzen gaitu ‘gaizkile mozorrotu’ eta nazioaren aurkako jendetzat. Hori esan du nitaz”.

Gaiaren arriskuaz ohartzeko diren beste asko, aldiz, isilik dago, horien isiltasuna borrokatzen du Lepinek Bielorrusiatik bertatik. Belsat katearen bideoan Astravyetseko zentralaren atarian aurpegia emanaz mintzo da fisikari zaharra bustitzen ez diren beste jakituz: “Garbi dago: ez dute egia esaten. Diote nuklearrak arriskurik ez duela, merkea dela, etekinak ekartzen dituela. Horrela mintzo dira beren postu txikiak galdu nahi ez dituztenak. Ez dute egia esango, lana galtzeko beldurrez bizi direlako. Baina haiek dira abertzaleak ez direnak. Abertzalea da egia esaten duena herriaren onerako, ez buruzagi batzuen onerako”. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f t

# Abel Azcona

JAIO BEHAR EZ ZUEN ARTISTA



## EROSO SENTITZEN NAIZ MEHATXU ETA GORROTO GIRO HORRETAN, ZORIONTZEN NAUTENEAN BAINO EROSOAGO



Abortatzen saiatu zen emakume drogazale eta prostituta baten semea, ez zuela jaio behar aldarrikatzen du Abel Azconak. Bere bizitza eta zaurietatik sorturiko artea egiten du eta bere heriotza pentsatua du: pieza artistiko bat izango da. Obra polemiko eta zentsuratuen egilea, Eliza Katolikoaren barruan urtetan onarturiko pederastia salatu zuen Iruñean egindako performance batean eta sentimendu erlijiosoen aurkako gorroto delitua leporatuta deklaratzera deitu du epaileak. Nahiago izan du desobeditu eta Lisboara erbesteratu, nahiz eta lehenago edo beranduago atxilotuko dutela dioen.

**Zuk kontatua da, ama toxikomanoa eta prostituta zenuela, behartu egin zutela haurra (zu zeu) izatera; jaio eta gero bazterketa, tratu txarrak, buruko gaitzak, suizidio saiakerak... sufritu dituzu. Bizi esperientzia gogor horien kutsua nabari da zure artean.**

Herentzia eta motxila horrekin bizi naiz eta horren araberako kokapena hartzen dut nire lanetan. Sexuarekin, bazterketarekin, nire bizitzaren parte diren zauri askorekin zerikusia du egiten dudanak, nire historia aztertzeke modu bat delako. 7 urte nituenean adoptatu ninduten, eta adopzio horrek nire aurreko bizitza ahaztea ekarri zuen, harik eta 17 urterekin erabaki nuen arte aurreko bizitzako patroiak errepikatzea, prozesu horiek ulertzeko. Nire amarekin nuen lotura heroina eta prostituzioa ziren, eta hori errepikatu behar nuen. Lanetako batzuek balio izan didate nire burua hobeto ezagutzeko, nolabaiteko oinarri katartikoa izan dute, baina beste batzuek egoera okertzea ekarri dute. Prostituzioari lotutako proiektuak adibidez esperientzia mingarriak izan dira.

**Salaketatik ere asko du zure arteak. Pedofilia, fundamentalismo erlijioso, drogak bezalako gaien bidez, tabu asko mahaigaineratu dituzu.**

Prozesuak hasi ditudanean, jarrera egoista batetik egin dut, nire barne-bizitza aztertzeke behar horrek bultzatuta, baina aldi berean egia da tabuz beteta dagoen gizarte honetan gai deserosoak landu ditudala. Espainiako Estatuak ez du gaitasunik memoria jorratzeke, memoria bere aldaera guztietan, eta ni gai izan naizenean nire memoria arakatzeko eta kanpora ateratzeko, metaforikoki eta literalki biluzteke, nolabaiteko oreka lortu dut nire buruarekin. Espainiak ez du hori egiten eta kaka guztia etxean geratzen da, tabuz betetako herrialdea da, historia pertsonal asko isilpean mantentzen dituen.

Artistak zintzoa izan behar duela uste dut, norbera dena eta sentitzen duena adierazi behar du, eta nire kasuan nire bizi historiarekin egiten dut lan. Gehiegi kontatu dudala? Tira, agerian jarri dut dena, baina ez naiz damutzen.







# Abel Azcona

MADRIL, 1988



Bazterketa egoeran daudenentzako klinika madrildar batean erdituzen Abelen ama, eta bertan utzi zuen semea. Emakumearen orduko bikotekideak umea jaso eta Iruñera eraman zuen. Iruñean hazi zen eta Iruñean adoptatu zuen, aurrerago, familia ultrakatoliko batek. Bere biografiari loturiko gai deserosoak jorratu ditu ekintza artistikoetan (sexu abusuak, drogak, mina...), baita bestelako gaiak ere (Palestinako lurralde okupatuak, errefuxiatuak, 1936ko Gerrako desagertuak...). Liburu ugari argitaratu ditu eta 80 herrialde baino gehiagotan erakutsi ditu inor epel uzten ez duten obra artistikoak: koranaren orriak jan ditu; galerian biluzik jarri eta bere gorputzarekin nahi dutena egiteko eskatu die ikusleei; kargaturiko pistola baten aurrean eseri da, mehatxu egin dioten kolektiboari adieraziz tiro egin diezaioketela; "pederastia" hitza idatzi du ostia kontsakratuak erabiliz; "Make America Great Again" tatuatu du ipurtzuloan... Sarri zentsuratu dute eta salaketak jarri dizkiote, baina epaitegian agertzeari muzin egin eta Portugalera joan da bizitzera.

**Hori guztia ateratzeak oreka lortzeko balio izan dizula diozu, baina zure zenbait proiektu artistikok oso autosuntsitzaileak dirudite.**

Bai, baina niretzat hori oreka da, nire oreka. Gaitz mentalei eta zauri personal askori aurre egin behar diet egunero eta olatu suntsitzaile horren barruan oreka aurkitzen ikasi dut. Artistikoki egingo ez banu, beste modu batera egingo nuke, bizitza eta heriotza ulertzeko dudak modua delako. Jaiotzera behartu ninduten eta nik erabakiko dut noiz bukatuko den bizitza hau; horrek ere oinarrituko eta ulertaraziko ditu buruan ditudan ideia asko.

**Zuri oreka lortzeko balio dizu. Ikusleari?**

Niretzat performance bat da maleta bat irekitzea, baina etxean ireki beharrean jendaurrean irekitzea, eta prozesu kolektibo bihurtzen duzun unetik jende batek lagunduko dizu maletako poltsiko batzuk irekitzen; elkar ekintza horretatik ikasten dut, norbere maleta eta motxilarekin iristen den jende horrengandik. Nire esperientziak ikusarazteak eta jendeari horiek bizitzeko aukera emateak ere haiei laguntzen die gai horien inguruan gogoeta kritiko bat eginen.

**Proiektuak hasten dituzunean ez omen duzu polemikarik sortzeko asmorik. Benetan?**

Ba polemika gehien piztu dutenak oso modu pertsonalean sortu nituen. "Pederasta" hitza idazteko ostiak hartzera adibidez haurra nintzeneko elizetara joan nintzen, oso modu intimoan egin nuen prozesua... eta ez nuen halako erantzunik espero.

**Tira, arteak polemika sortzea ere ez da txarra, ezta?**

Arte politikoa lantzen baduzu eta sektore jakin batzuk kritikatu behar badituzu, establishmentarekin sartuko bazara, jende horrek probokaziotzat hartzea da zerbait ongi egin duzun seinale. Nik erlijio katolikoa salatu eta bat-batean artzapezpikua atera da nitaz denetik esaten, jendeak manifestazioa egin du kalean haserre; bada, funtzio-

natu egin du nire lanak. Obra detonantzaileak direla diot nik: ekintza txiki bat egiten duzu eta bide luzea egin dezake, sekulakoa nahaspilatu daiteke.

**Zure gorputza da zure obra artistikoaren ardatz nagusietakoa. Kontzienteki objektu bihurtu duzu zure gorputza, desio iturri ere bada batzuetan, minaren katalizatzaile... Nola ulertzen duzu zure gorputza?**

Historia autobiografikoak pisu handia du nire gorputzaren erabileran. Adibidez, ez dut nik objektu bihurtu, besteek bihurtu dute nire gorputza objektu: prostituta bat behin baino gehiagotan zu abortatzen saiatu denean, objektu politiko bezala jaiotzen zara. Eta gorputza objektu politikoa den heinean, instalazio artistikoa bailitzan ere landu dezaket. Artistikoki, gorputza da niretzat lantzen errazena eta erantzun azkarrena ematen didana. Errazagoa da ikuslea transformatzea gorputza bezalako obra bizi eta irekia baliatuz, produktu estetiko eta itxia (margolan bat, eskultura bat...) baliatuta baino. Arma politiko indartsuena da gorputza.



**Jaiotzera behartu ninduten eta nik erabakiko dut noiz bukatuko den bizitza hau. Eta opari bat izango da, gaitz mentalak eta neke handia pilotzen dituzunean opari bat delako"**

**Mingarria era bada, hainbatetan. Artearen izenean, zigortu egin izan duzu zure gorputza.**


**Larrialdietan bukatu zenuen, 42 ordu zure gorputzarekin plazenta bat irudikatu ostean.**

Koherentea naiz, naizena eta zoritxarrez bizitza honetara egitera etorri naizena errepikatu baino ez dut egiten, kasu honetan baita artearen bidez ere. Ideia jakin batzuk adierazteko proiektu jakin bat egin behar dudala uste badut, egiten dut eta ez dut baloratzen mina emango didan edo ez. Gainera, min fisikoa ez da min hain izugarria, beste min batzuekin konparatuta. Prostituzioari lotutako prozesu artistikoetan esaterako, fisikoki min ematen ez duten gauzak gogorra goak izan dira.

**Prostituzioa eta sexua, hain juxtu, oso presente daude zure artean.**

Ez hainbeste, baina oihartzun handia izan dute sexuari loturiko obrek. Gainera, proiektu konplexuak iruditzen zaizkit, ez dudalako oso ongi ulertzen jendeak hartzen duen dinamika. Gale-





**AZCONAREN EKINTZA ARTISTIKOETAKO BATZUK:** Artistaren heriotza; *Enpatia eta prostituzioa*; eta Lotsaren proiektua, Zisjordaniako horman.

ABEL AZCONA

ria batean ohean biluzik jarri naizenean izugarria da zenbat jende etorri den nitaz abusatzera, erasotzera... Jendeari askatasuna ematen diozunean, "egin nahi duzuna nirekin eta nire gorputzarekin", izugarria da zertarako prest dauden; gainera elkar kutsatzen dira, batek halako egiten badu hurrengoak gehiago egin behar du; ikerketa soziologikorako ematen du. Bostere kontua da beharbada, bakoitzak barruan daramatzan mamuak... Eromena.

**2015ean, *Amen* obrak hautsak harrotu zituen Iruñean: 242 ostia kontsakratu bildu zenituen (mezetako eukaristietan zuk zeuk hartuak) eta "pederastia" hitza idatzi zenuen horiekin. Elizaren sektore bat asko haserretu da zurekin, baina Elizaren barruan urtetan onartu diren gehiegikeriak frogatuta daude. Errealitatea irudikatzea, errealitatea bera baino gogorragoa egiten zaie batzuei?**

Tira, jende horrek jarraitzen du pentsatzen (eurek hala esan didatelako) Elizan sartzen diren apaiz gay isolatu batzuen kontua dela pederastia. Baina datuek kontrakoa diote: isolatua inondik inora, asko dira gehiegikeriak egiten dituztenak eta bes-

te hainbeste ezkutatu dituztenak. Eta azkenean, abusuak salatzea helburu zuen obra bihurtu da fundamentalismo erlijiosoa salatzen duen obra bat, lehen nioen bezala obra detonatzaile bat, ehunka pertsona atera zirelako kalera Iruñean, egurrezko gurutzeak eskuan, nire eta nire obraren aurka. Eszena beldurgarria benetan.

#### **Nola bizi dituzu mehatxuak?**

Oso eroso sentitzen naiz mundu horretan, gorroto eta herra giro horretan, zoriontzen eta lausengatzen nautenean baino erosoago. Aipatu dugu, autosuntsiketari funtzionatzen dut, eta gainera uste dut egiten dudana artea ez dela "ze polita" esateko modukoa, baizik eta helburua duena zure barruak mugitzea, beldurtzea, asaldatzea... Pentsa, *Amen* bezalako pieza minimalistaren emaitza izan da munduko hogeita katedraletan erreparazio meza egin zutela artzapezpikuek eta Iruñean lehenengo aldiz eliza guztiak itxi zituztela eta 120 apaizak katedralean bildu zirela erritual bat egiteko.

Obrak izan zuen oihartzunean faktore ugari eragin zuten: batetik ni nor nintzen (familia ultrakatoliko baten barruan hazi nintzen, ongi ezagutzen dut mundu hori eta beraiek ere ezagutzen ninduten ni),



## **TERRORISTA**

**Artistak terrorista, militantea eta aktibista izan behar duela irakurri ditut.**

Artistak bakarrik ez, pertsona orok, gehituko nuke. Gutxienez aktibista. Hainbat kolektibotatik terrorista deitzen didate eta nik neure egiten dut hitza; kallean artea egitea eta eskuin murrari eraso egitea terrorismoa bada, agian terrorista gehiago behar ditugu.

XXI. mendean, arteak jada ez du objektu estetiko soila izan behar, eta ikusle batek zure obran parte hartzen duenean berarengan inpakturik ez izatea, onerako edo txarrerako ez transformatzea, artistaren aldetiko errespetu falta ere iruditzen zait.



ABEL AZCONA

Goiko irudian, *Amen obra*; eskuineko orrialdean, *Azken ordua*.

bestetik erakusketa Erorien Monumentuan egitea eskatu nuen eta utzi egin zidaten, eta gainera EH Bilduren Udalak antolatu zuen erakusketa eta oposizioak aukera baliatu zuen politikoki hari erasotzeko.

### **Orduko alkateak, halere, EH Bilduko Joseba Asironek, eskatu zizun mesedez obra erretiratzeko, gustu txarrekoa zela.**

Orain arte inoiz ez dut horri buruzko iritzirik eman, Opus Deiren lurraldean ez nuelako egin nahi aldaketaren udalaren aurka, baina uste dut ez zutela ongi egin, beldurra sartu zitzaizela. Ezkerra koldarra da, beti ongi geratu nahi duelako guztiekin eta gobernatzen duenean egiten duen politika gehiago da eskuindarrak pozik uzteko, ezkertiarrei begira baino. Inor ez dadin kexatu. PSOE ezkertiarra dela esatea asko esatea da, baina PSOEk gobernatzen duenean adibidez diru bikoitza ematen zaio Eliza Katolikoari, PPK gobernatzen duenean baino.

### **Ez jaio izanaren eskubidea aldarrikatzen duzu. Ez nuen lehenago halakorik entzun.**

Bai, Elizak aldarrikatzen duenaren kontrakoa da, horregatik asaldatzen ditu. Emakume prostituta eta heroinazalea haurdun geratu bada eta ez badu haur hori izan nahi, gizarte bezala lan egin behar dugu ume hori ez dadin jaio, eta jaiotzen bada, heroinak utzitako sindromearekin, emakume horren bizimoduak eragindako buruko gaitzekin... gizarteak

zerbait ez du ongi egin. Abortatzeko eskubidea da emakumeak duen eskubidea, baina baita zirkunstantzia jakin batzuetan umeak duen ez jaiotzeko eskubidea ere. Jakina zen jaiotzen uzten bazidaten ondorio batzuk izango nituela eta izan ditut ondorio horiek. Nire bizitzan izan den maitasun ekintza handiena da nire ama biologikoa hirutan saiatu zela ni abortatzen Nafarroan, baina ez zuen lortu.

### **Beharbada harrizten duena da ez duzula abortatzeko eskubidea orokorrean aldarrikatzen, diozu zuek zeuk ez zenuela jaio behar.**

Eta horregatik zailagoa zaie ni erasotzea, ez naizelako orokorrean ari. Dena den, Tuterako artzapezpikuak esan zuen nirekin salbuespena egingo zukeela. Bitxia da, katoliko askorengandik jasotzen dudana mehatxua hori bera da: "Zure kasuan abortatu egin beharko zukeen". Bizitzeko eskubidea argudiatzen dutenak heriotza desio didate.

### **Askotan zentsuratu dituzte zure obrak. Epaitegietara ere eraman zaituzte. Adierazpen askatasunak ez ditu une onenak bizi.**

Espanian adierazpen askatasuna utopia da, jendea erbestean eta kartzelan dugu bere ideiegatik. Lotuta eta ongi lotuta zioen Francok, eta hala da: Monar-

kia, Eliza eta beste hainbat erakunderen artean dena ongi lotuta utzi zuten, eta hori zalantzan edo kolokan jartzen duen edozer kolpeka mozten da. Egoera ihes egiten ari zaie eta kolpeak gero eta gogorragoak dira, baina ez dira konturatzen zenbat eta kolpe gehiago eman, orduan eta gehiago egingo diela ihes egoerak, kolpea jasotzen duzunean hasten zarelako erreakzionatzen. Honek eztanda egingo du.

“

**Jendeari askatasuna ematen diozunean, 'egin nahi duzuna nirekin eta nire gorputzarekin', izugarria da zertarako prest dauden”**

**Artistak ere bihurtu zarete jomuga. Hain arrisksua da artea eta kultura?**

Frantziako Estatuan lege bikaina dute: artea blindatuta dago eta artistak askatasun osoa du obra artistiko batean nahi duena egiteko, baita "Gora ETA" oihukatze ere. Horrelako zerbait beharko genuke leku guztietan. Azken finean, artea da politika egiteko modua eta ez dagoenez beren kontrolpean, zentsurari heltzen diote. Sarri erakunde politikoetatik lortzen ez dena artearen bidez lor daiteke eta jende batengana ere hala iritsi zaitezke. Esaterako, Latinoamerika "Espainiak barkamena eskatzen dizue" kartel erraldoiz betetzen ari gara. Nola ez, salaketa jaso dut jada, Espainiaren irudia kaltetzen ari naizela argudiatuta.

**Ultrakatolikoek salaketei jaramonik egin ez eta erabaki duzu epailearen**



ABEL AZCONA / ROSWITT GALLERY



**aurrean ez agertzea. Desobedientzia da zentsurari aurre egiteko modu on bat?**

Are gehiago, geratzen zaigun aukera bakarrarenakoa da, zein beste gauza egin dezakegu? Hasieran gaizki egin nuen: sistema onartu nuen eta epaitegietara joaten nintzen deitzen nindutenean, baina inoiz amaitzen ez den gorpila da. Nire bizitza osoan izango ditut kereilak, azken bi asteetan hiru kereila berri sartu dizkidate, eta epaitegira gehiago ez joatea erabaki dut, desobedientzia gainera prozesu artistiko bezala ulertzea, prozesu artistikoak politikoak diren unetik. Lisboara ere, beste hainbat arrazoiren artean, horregatik joan naiz bizitzera, nahiz eta Espainiara bidaiatzen dudana noizbehinka. Atxilotzen nautenean, prozesu artistiko gisa ulertuko dut eta kito.

**Atxilotuko zaituztela aurreikusten duzu, orduan?**

Bai. Deklaratzen joateko bilatze eta atzemate agindu bat dut nire aurka, eta polizia identifikatzen ere etorri zait Espainian izan naizenean, baina burokrasia medio, ez da hain erraza ni hartu eta auzitegira eramatea, egun eta ordu bat zehaztu behar dute ni atxilotuta eramateko, Willy Toledo aktorearekin egin zuten moduan. Dena den, egun hori iritsiko da: deklaratu gabeko hainbat bista piltzen dituzunean, atxilotu egiten zaituzte. Isiltasunaren inguruan asko irakurri dut (Tiananmengo plaza, Mayo Plazako amak...), isiltasuna arma politiko gisa, eta isiltasunetik onartuko dut nire atxilotoketa, isiltasuna poliziaren, epailearen eta balizko kartzelaratzeko baten aurrean.

**Zeri dio beldurra Abel Azconak?**

Ez naiz pertsona beldurtia. Lehenengo salto egiten dut, eta gero gerokoak. Kartzelak beldurra ematen du, noski, baina badakit sartzen banaiz ahaldunduta egingo dudala, prozesu artistiko bezala onartuz. Eta agerian geratuko da bada-kiguna: herrialde honetan, ideia nagusiekin bat ez bazatoz erbestea edo espetxea beste aukerarik ez duzula.

**Eta zein obsesio dituzu?**

Obsesio nagusia da nire bizi-kargaren pieza artistikoa azkar bukatu ahal izatea, nekatuta nagoelako jada. Eta beste obsesioa, ordurako nahi dudana guztia kontatu ahal izatea eta dena lotuta uztea. Gauza asko kontatu nahi dut eta horregatik noa hain azkar, kasik hoge liburu publikatu ditut dagoeneko, nire egia kontatua uzteko beharra sentitzen dudalako.

**Heriotzaz ari zara?**

Bai, "bizi-karga" finago geratzen da, kar, kar, kar, baina pieza artistiko batean hilko naizela esaten ari naiz. Niretzat, gorputza da karga kontzeptualaren irudikapen bat, baina karga kontzeptualak askoz indartsuago iraungo du gorputza presente ez dagoenean. Hainbat ideia politiko eta ez jaio izanaren eskubidea defendatzen ari naiz, beraz horrelako pieza batek emango dio zentzua eta bukaera gainerako guztiari. Egin beharreko zerbait da. Eta opari bat izango dela uste dut gainera, gaitz mentalak eta neke handia piltzen dituzunean opari bat delako. ●

**“Ezkerra koldarra da, beti ongi geratu nahi duelako guztiakin eta gobernatzen duenean egiten duen politika gehiago da eskuindarrak pozik uzteko, ezkertiarrei begira baino”**

**MARCOS**  
okindegia

**Benetako antzinako ogia**

© 943 450 966  
Ubarburu pasealekua, 113  
Astigarraga (Gipuzkoa)

**aholkukoop**  
Fiskala Kontables Laborala

**EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN BIDEAN DOAZENEN AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680  
aholku.eus

**BRINTZA**  
AHOLKULARITZA · CONSULTORIA

**Enpresa eta autonomiei aholkularitza eskaintzen diegu**

Urbietan, 15 · 20120 Hernani  
Tel.: 943 33 12 67  
www.brintza.com

ISO 9001  
BUREAU VERITAS  
Certification

**ogiaren egia**

**Galparsoro OKINDEGIA**

Ogi biologikoak  
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak  
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) · DONOSTIA · Tel.: 943 421 074

# Ingurumenarekin bateragarriak

%100 KONPOSTAGARRIAK



#ecofriendly

[kapsulakonpostagarriak.eus](http://kapsulakonpostagarriak.eus)





## Inbertsio publikoak mozkinak privatizatzen

**O**hiko teoria ekonomikoaren arabera, inbertsio pribatuak publikoak baino eraginkorragoak dira. Inbertitzaile pribatuak beraien enpresatan inbertitzen dute ekoizpena bizkortzeko eta ondorioz mozkin itxurosoak eskuratu ahal izateko. Alabaina, gauza bat da teoria interesatuak dioena eta beste bat errealitatean jazotzen dena.

Azkenaldian kasu bat baino gehiago daukagu teoria hori gezurtatzen duena. Izan ere, 2019ko maiatzean Narvartis enpresa farmazeutiko suitzarrak AEBetan *Zolgensna* botika komertzializatzeko baimena erdietsi zuen; botika horrek, saio bakar batekin, bi urte azpiko haur batentzat terapia genetiko ahalbidetzen du eta gihar atrofia hilkorra sendatu. Tratamendu berri hori oso eraginkorra omen da, alabaina, bere prezioa 2.125 milioi dolarrekoa da, hain juxtu, orain artean enpresa farmazeutiko batek saldutako botika garestiena.

Botika hau, bestalde, bi urte baino gutxiagoko haurrentzat da eta AEBetan urtero 400 bat kasu ematen dira, 11.000 jaiotzetatik haur batek izaten omen du gaixotasun genetiko hori. Anartean, gaur egun tratamendua badago, baina hamar urteren buruan jarraitu behar du tratamendu horrek eta lehen urtean 750.000 dolar kostatzen da eta hurrengoetan 375.000 dolar urteko. Beraz, oso garestiak bi kasuetan: botika berriarekin 2.125 milioi dolar eta lehengoarekin lau milioi inguru. Botika berriarekin, Nar-

Gure artean ere badago kasu bat: Euskaltel. Euskaldunon diru publikoarekin negozioa eratu, fibra optikoa azpiegitura publikoa erabilia instalatu, bezeria lortu lehia faltsu baten amarruarekin...

vartisek urtean 2.400 milioi dolar eskuratuko omen ditu.

Halaber, botika horren prezioak ez ditu islatzen berau ekoizteko kostuak. Erreferentzia gisa aurrez erabiltzen zen tratamenduaren gastuak hartu dira; eta beraz, ez dira kontuan hartu ikerketan eta bere garapenean burutu diren inbertsioak, kapital finkoan, alokairuetan...

Badirudi Narvartisek inbertsio handiak egingo zituela horrelako botika eskuratzeko, inbertitzaileak sarituak izan daitezten. Hala ere, ez da egia inbertsio erraldoiak burutu zirenik botika eraginkor hori asmatzeko. Izan ere, Narvartisen patentea Telethon frantziar laborategiak asmatu zuen eta diru publiko eta filantropikoekin finantzatu zen; dirutza hori telebistako programa batetik lortzen zen, ETBk antolatutako maratoiaren antzekotik.



**BALEREN BAKAIKOA  
AZURMENDI**  
EKONOMIALARIA

Duela hogeita hamar urte Telehonek Genethon laborategia sortu zuen, zeinak aipatu gaixotasuna ikertu, garatu eta botika patentatu zuen. 2018an patente eraginkor hori AEBetako enpresa bati saldu zioten hamabost milioi dolarren truk eta enpresa estatu-batuarra, zortzi hilabete beranduago, Narvartisek 8.700 milioi dolarren truk eskuratu zuen!

Adierazgarria da gertakizun hau, gardenki ikusten baita diru publikoaren erabilaren emaitza esku pribatura nola joan den. Ekoizpen publikoa balitz, gizarte osoa profitatzeko izango litzateke, ez pribilegiatu batzuentzat: milioi idunak, ez jende xehea.


Gure artean ere badago kasu bat: Euskaltel. Euskaldunon diru publikoarekin negozioa eratu, fibra optikoa azpiegitura publikoa erabilia instalatu, bezeria lortu lehia faltsu baten amarruarekin, eta behin zuzendariak poltsikoak ederki bete ondoren, Zegona ingelesari saldu zitzaion. Eta orain jakin dugunaren arabera, azken hiruhilekoan hemeretzi milioi euro erdietsi zituen Euskaltelek, ongi etorriko liratekenak gure ongizatea hobetzeko. Horregatik, ulergaitza egiten zaigu zergatik Eusko Jaurlaritzak bere partaidetza saldu zuen, telekomunikazio enpresak oso estrategikoak baitira edozein herrialderentzat.

Kapitalaren morroiek horrela jokatzen dute. ●

# Euskal Herriaren koloreez



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN  
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

**E**skerrak euria iritsi den azkenean: nola eutsi hain berde, bestela, Euskal Herriari...!", diote. Eta badu egiatik. Baina gure amaren herrian teila-kolore iluna hartzen du lurak euria egiten duenean, oso argi ez balego bezala zer dagoen zerez eginda: teilak lurrez ala lurra teilaz. Belardi berdeak modu artifizialean ureztatutako parke artifizial urrietan baino ez daude, eta neguko lokatz lodi gorritzak hauts horizta bihurtzen dira uda-aurrerako. Batzuetan, ibai joria eta baratze gorrietako fruitu joriak baino ez dira ageri berde.

"Maite ditut, maite, gure bazterrak, lanbroak ezkututzen dizkidanean..." kantatzen dugunean, zein dira zehazki "gure bazterrak"? Zenbati datorkio gogora gailur- edo muino-multzo bat egungentian, laino-izara leun batetik gora agerian? Eta zenbati datorkio gogora Euskal Herriaren hego-mendebaldeko muga lau osoa bortitz laztanduz jaisten den Ebro horretako laino itxi usua?

Euskal Herriaren iruditeria geografiko homogeneousatuaz ari naiz, baina, partez, Euskal Herriko egoera politiko heterogeneoaren gaineko iruditeria partzial batek ekarri nau horra: zehazki, joan den hilean

Espainiako Estatuan egindako hauteskunde zurrunbiloan zenbait euskaldunek esan izanak, euforiko, trifatxito delakoak ez zuela ordezkari bakar bat ere lortu EAEn (gerora jakin genuen PPK diputatu bat lortu zuela azkenean Bizkaian). Beharbada, batzuek badugu garaia erabakitzeko ea benetan Nafarroa gu garen ala ez; Nafarroa, bere kontraste eta guzti: Bel Pozueta babestu duen Nafarroa hori, eta Enrique Maia hiriburuko alkate-besaulkira itzularazi duen Nafarroa hori, eta herri batzuetan Vox-i %10etik gorako babesa eman dion Nafarroa hori. Inoiz aditu izan diot Erriberako zenbait jenderi esaten, txantxetan-benetan, beraiek antz handiagoa dutela aragoiarrekin Iruñetik gorako nafarrekin baino, eta maiz entzun izan ditut Iruñetik gorako nafarrak ere hegoaldeko nafarregandik beren burua argi bereizten. Errealitate bat da. Errealitate bat den bezala EAETar asko "denok gara nafarrak" esaka aritzen direla baina Nafarroa sinbolo urruneko idealizatu gisa hartuta, gizon zenbaitek "denok maite dugu ama" esaten duten bezala kasik.

Eta zer esan berez ekialdea den Iparralde horren eta berez mendebaldea den Hegoalde horren arteko amildegiaz. Ba,

oso han garela elkarrentzat, oso beste, oso haiek. Hain urrun gaude elkarregandik, apenas baitugu gertuko herriek elkarrekin duten lehia txoro hori: kostaldeko gipuzkoarrek nafarrei *meaplayas*, Nafarroa iparraldekoek gipuzkoarrei *robasetas*, denek bilbotarrei *harroputzak*, denek arabarrei *patateroak*, denek donostiarrei *ñoñostiarrak*, eta horrela *ad infinitum*. Iparraldekoekin, nik dakidala, halako lehia txororik ez dugu Hegoaldekoek, eta eskerrak, alde batetik; baina, bestetik, hutsune horrek urruntasuna ere erakusten du, bestetasuna.

Ez dut inongo asmorik (ez bedi oker uler; arren) lurraldeen arteko lehia absurdo hori gauza positibotzat jotzeko, ez eta inori kontuak eskatzeko ere: normala da nork bere ingurukoa askoz hobeto ezagutzeta, eta, hein batean, normala da biztanle gehien duten eremuetako jendearen ikuspegiak hedatzea gehien. Baina nolabaiteko batasun batez mintzo garenok, behintzat, agian gehixeago ahalegindu beharko dugu elkar ezagutzen eta aitortzen, edo, hobeto esanda, geure burua osorik ezagutzen eta aitortzen, idealizazioetatik, topikoetatik eta kondeszendenziatik harago. ●





**ENEKO GORRI**  
EUSKARA TEKNIKARIA

## Manifak

**L**agan urriaren 26an, 51.000 lagun bildu ginen Iruñean Altsasukoen aldeko elkarretaratzean. Aitzineko larunbatean, 47.000 herritarrek Kataluniaren sustenguz Donostiako itsasbazterra zeharkatu zuten. Zenbait aste lehenago, 50.000 ginen Bilboko karraketan 47ak libre lelopean. Azaro bukaeran Parisen salatzen ziren euskara kontrako erasoak eta abendu hasieran Baionan gobernua- ren neurri antisozialak.

“Sartze” honek ere eman du karrikara ateratzeko arrazoi bat baino gehiago. Eta ohikoa bada ere militantziaren krisian atentzioa ezartzea, aitortu behar dugu herri horrek baduela oraindik astez aste milaka herritar mobilizatzeko gaitasuna. Bai, eta zer? Argazki eder batzuk aparte, zer ondorio? Ondorio politikoak badirenik ez dut ukatzen. Beste nonbait kokatu nahi nuke fokua ondoko lerroetan.

Gure artean: manifa baten ondotik nor ez da sekulan etxera sartu pixkat frustratua? Ez ote dute manifa batzuek gehiago gure artean sozializatzeko aukerarik, borrokarako momentutik baino? Batzuetan iruditzen zait milaka herritar biltzen ditugula/gaituztela atentzio sobera emanez mezuan (zein argazki aterako dugu? zein mezu igorriko dugu?) eta ez aski parte hartzaileengan sortuko ditugun emozioetan: A puntu batetik B puntu batera desfilatu,

aspalditik ikusi ez ditugunak agurtu, etxeratzean argazki bilduma sare sozialetan partekatu eta ohera.

Adibide zozo bat hartzearen, beti harritu naiz, gure manifestan ia nehor ez baita heldu etxera apaindu eta imajinatutako pankarta batekin. Parisko mobilizazio sozialak, Kataluniako protestak, Libanoko karrika okupazioak eta Txileko manifen argazkiak begiratu eta gureekin konparatu. Kolorea, umorea eta mezu pertsonalizatuak eskas dira frankotan gurean. Anekdotikoa dirudi, baina adierazgarria zait: manifestara goaz, paseatzera joango ginatekeen bezala. Alta, bataila momentua balitz, prestatu- rik joan beharko genuke.

Antolatzaile gisa, guri dagokigu hori sustatzea. Guri dagokigu jendearen emozioetan ere eragiten duten manifak antolatzea, sare sozialak hobeki erabiltzea, gure gorputzak erabiltzea, publiko desberdinei tokia egitea... Bi alaba txiki ditut eta ez dute gehiago manifestara joan nahi. Kolektiboki ezin dugu ezer egin horren aldatzeko?

Datozen hilabeteetan imajinazioa landu dezagun beraz, izan gaitezen blokatzaileak, apaintzaileak, koloretsuak, biziak, pertsonalizatuak, iraunkorrak. Finean, emozio sortzaileak. Like eta klik gutxiago; adrenalina eta endorfina gehiago. Gora bihotzak! ●



**LEIRE NARBAIZA**  
ARIZMENDI  
IRAKASLEA

## Familia

**L**agun batekin elkartu eta umeen gainean itaundu barik, gurasoen galde- ra egiten badiozu, helduaroan zauden seinale, gazte denbora joan zaizula esan gura du.

Familia denon ahotan. Gizartearen oinarri ez ezik, euskarri ere badelako, sistemaren funtsa. Zeren aitaturako guraso horiek gaixotuz gero, familiarte- koen gain geratuko dira zaintza ez ezik, medikuetako kontu guztiak ere.

Bikotekide edota seme-alaben pentzudan daude gaixo askoren tratamendu- dua eroatea eta gainbegiratzea, baita joan-etorriak ere. Zelan egin liteke, lan ordutegian denean guztia? Hor konpon!

Familiakoa zara eta zure ardura da. Eta senideak, ezinean. Baina berdin dio sistemari, zaintzak ez diolako inori ardura, ez duelako baliorik bizimodu honetan.

Sistemaren eredu- tradizionala da, antzinakoa eta patriarkala, etxekoandre bat sendian lemazain zegoeneko. Hala- korik gutxi orain, ordea.

Darabilgun martxarekin bateraezi- nak dira askotan zaintza eta lana. Zelan moldatu muntatuta dagoen hau guz- tiau? Zelan irauli eta gure bizimodura ekarri? Eta zahartzen garenean, nork hartuko du gure ardura, modelo honek segituz gero? Aldatu beharko da zeezer, ostantzean... ●

# Greba orokorra: borroken konbergentzia



JOSEBA ALVAREZ  
ELEAK-LIBREKO KIDEA

**E**uskal Herrian ere, ez da nola nahikoa izan 2019. urtea. Nazioarteko gertaerek zein etxeko gatazkek bultzatuta, euskal jendartearen baitako dinamika sozialak aurrera egin du berari dagokion espazio politikoaren berreskurapenean.

Eragile sozialon aurtengo balantzea ikusgarria da. Guztiok ditugu gogoan pentsionistek bideraturiko mobilizazioak, mugimendu feministak plazaraturikoak, langileen borroka eta grebaaldi gogorak, klimaren aldeko ekimenak, gazte mugimenduaren protesta ikusgarriak, preso politikoaren aldeko dinamika iraunkorra, elkartasun internazionalista edota euskararen aldeko hainbat dinamikaren arrakasta uka ezina. Eta horrekin batera, hor daude ere maila lokaleko proiektu suntsitzaileen aurka bideraturiko ehunka ekimen txiki. Oparoa da milaka eta milaka herritarrek 2019an eginiko lana eta borroka.

Baina honako dinamika eta kritika soziala, erraldoia izanik ere, ez da zentrala bestelako lehenetasunak dituzten indar politikoentzat: hauteskundeak, botere instituzionala eta kudeaketa subordinatua.

Desmobilizazio orokorraren arazo nagusia beraz, ez dago euskal jendartearen apatian, gogo faltan edo beldurrean, klase politikoaren ausardia eta sinesgarritasun faltan baizik, hori aurka ez daudenean

Klase politikoak onartu nahi ez badu ere, euskal jendartea bizi-bizirik dago eta beharrezkotzat jotzen duenean, bere burua ondo astintzen badaki, gainera. Desmobilizazio orokorraren arazo nagusia beraz, ez dago euskal jendartearen apatian, gogo faltan edo beldurrean, klase politikoaren ausardia eta sinesgarritasun faltan baizik, hori aurka ez daudenean.

Jendarte mugimenduaren indarraz eta gogoaz jabeturik, Karta Sozialean bildutako eragile sozial eta sindikal euskaldunek aurrera egiteko baldintzak daudela esan eta Greba Orokorra deitzea erabaki dute urtarrila amaierarako. Bazen garaia!

Milaka arrazoi txiki eta handi ditugulako horretarako.

Duela hilabete gutxi bukatu zen Biarritzeko G7 gailurrak argi eta garbi erakutsi zigun G7 EZ Plataforma Nazionalen parte hartu genuen eragileoi, gaur gaurkoz maila nazionalen ez dagoela antikapitalista guztion elkarlana bideratzerik, nazio mailako beste interesak gurutzatzen direlako. Baina bai, aldiz, marko lokalean, hor posible da antikapitalista guztien konbergentzia eta ekintza batasuna bideratzea. Eta hori da egin behar duguna. Horretan datza ELEAK-Librek sortzea proposatzen dituen eskubide sozial, zibil eta politikoen aldeko maila lokaleko Eskubideen Herri Plataforma (EHP) unitarioen funtsa.

Beraz, ELEAK-Librek eginiko proposamena, Karta Sozialaren aktibazioa eta Karta Sozialaren edukia konpromisoe-tan oinarrituriko dinamikaz bultzatzeko asmoa uztartu behar ditugu proposamen bakarrean, marko lokalean borroken konbergentzia eta desobedientzia zibila bultzatzeko. Greba Orokorra dator, antikapitalista guztiak biltzeko eta geure buruak prestatzeko garaia heldu da. Herri Boterea da indartu behar duguna. ●

**GORA**  
**EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA!**

Denona eta denontzat





# Klima (gailurraren) aldaketaz



**IÑAKI BARCENA**  
EKOLOGISTAK  
MARTXAN-EKO KIDEA

**Txiletik.** Santiagon iragarrita zegoen NBEk urtero klima aldaketari buruz antolatzen duen bilera: COP25 aurtun. Aldiz, egungo krisi politikoak ez du “bermatzen” nazioarteko ekitaldi diplomatiko honen jarduera “normala”. Beraz, Sebastian Piñera presidentea amore eman du eta Madrilen egingo da. Urriaren gobernuak metroaren txartelaren salneurria 30 peso igo eta ur tanta horrek 30 urtetan izandako mobilizazio eta protesta handienak sortarazi zituen. “Ez dira 30 peso, 30 urte dira” entzun diegu txiletar haserretuei. 30 urte pasa eta gero Txilen hasitako *shock* neoliberalak ez ditu azken emaitzak erakutsi. Pinochet diktadoreak utzitako herentzia hilkorra bizirik omen dabil.

**Greta eta Belen.** Gloria Baigorrotegui, ingeniari eta aktibista txiletarrak urriko altxamendua baino lehen bisitatu gintuen. Teknologia eta arazo sozio-ekologikoaz tesi doktorala EHU burutu zuen eta Boroako Zentral Termikoa kasu azterketa izan zuen. Oraingoan, *Trantsizio Energetikoa eta Demokrazia*-z ari ginen Sarrrikoko Ekonomia Fakultatean, eta Greta Thunberg zein Belen Curamil

Maputxeen adibidea oso esanguratsua da. Belenek zioenez, ez daude kolapso klimatiko eta ekologikoaren esperoan, duela 500 urte kolapsatu baitzuten euren zibilizazioa. Kolonizatzaileena da orain kolapsora doana

gazteen diskurtsoak ekarri zituen gure begi eta belarrietara. Gazte eskandinaviarra ezaguna dugu, gure arteraino heldu berri den *Fridays For Future* gazte mugimendu ekologista unibertsala, baita haren aurkako kanpaina mediatikoa ere. Aldiz, Belen Curamil emakume gazte mapucheren hitzak ez ziren hain gertukoak. Bere aita Alberto Curamili *-lonko* (buruzagi) maputxeari, Temuco kartzelan dagoen preso politikoari- Goldman

*Nobel* alternatibo (Alberto Curamil Premio Goldman 2019) sari ekologikoa eman zioteneko hitzak izan ziren bereak. Gloriak, bi aktibista eredu eta bi mundu ulermen bateragarri baina oso desberdinak jarri zizkigun etsenplutzat. Maputxeen adibidea oso esanguratsua da. Belenek zioenez, ez daude kolapso klimatiko eta ekologikoaren esperoan, duela 500 urte kolapsatu baitzuten euren zibilizazioa. Kolonizatzaileena da orain kolapsora doana.

**Madrilera.** Pedro Sanchezek, Piñeraren testigua poz-pezik hartu omen zuen. Trantsizio Ekologikorako ministerioak COP25aren antolamendua onartu eta *green washing* kanpaina berri bati ekingo dio. Lekua aldatu, ekologisten leloak bahitu (sostengarritasuna, ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa, klima larrialdia...) eta esanahiak eraldatuko dituzte, baina horrek ez ditu larrialdiaren parametroak aldatzen.

Gloria, maratoni luze honetan, hemen eta orain, Atlantikoaren alde honetako ekologistek txiletarren testigua ere hartuko dugu. Zuekin batera, Amalurraren defentsan. ●




Lezoko  
Unibertsitateko  
Udala

**ARGIA 100 urte**  
Mende emankorra  
euskal kazetaritza eraikitzen

# Akabo ziberoptimismoa!



**JUNE FERNÁNDEZ**  
KAZETARIA



ANTTON OLARIAGA

**K**azetaria baino lehenago blogaria izan nintzen. Unibertsitateko irakasle batek, Lucía Martínez Odriozolak, animatu ninduen blog bat sortzera karrera amaitu nuenean, 2006. urtean, hedabideetan lana bilatze aldera. Hasieran hori zen nire motibazio nagusia, curriculumaren osagarri dotore bat aurkeztea. Baina egunkari batean lan egiten hasi nintzenean, bloga iritzi artikulua idazteko espazio libre bat bilakatu zen eta berezko distira hartu zuen. Bidelagun ugari ezagutu nuen blogetan: batetik, Luciaren *Momo Dice...* bloga topaleku zuten euskal kazetariak; bestetik, euskal ziberfeminista mordoa. 2010ean *Pikara Magazine* sortu genuenean, bidean deskubritutako blogari feministak izan ziren gure lehen kolaboratzaileak.

Malenkonía handiz gogoratzen dut blogosferaren urrezko garai hura. Iruzkinean bidezko eztabaida lagunartekoa zen, aberasgarria, barea, sakona, karaktere mugarik gabea. 2011ra arte matxiztoren erasorik gabe gozatu nuen blogari jardueraz, orduan mikromatxismoei buruz idatzi nuen post bat Forocochesen partekatu zuten arte.

Ziberoptimista sutsua izan naiz urte askotan, besteak beste, *Pikara Magazine*-k izan duen ibilbidea internetek

eman dituen aukerei zor diogulako. Hedabide digitala izanda, gure irakurleak ez ziren soilik irakurle: iruzkinen bidez artikulua aberastu ahal zituzten, sare sozialetan partekatu eta hala komunitate izaera indartu. Facebook eta Twitteren biralizazio dinamikei esker lortu genuen nazioartean oihartzuna izatea eta hedabide handien agendan eragitea. *Crowdfunding*-ari esker lortu genuen urtekariak finantzatzea, eta hala deskubritu genuen paperezko eta online edizioek egun izan dezakeen sinbiosi bikaina.

Baina pixkanaka hamaika desengainu ere agertu zitzaizkigun. Artikuluetan iruzkinak ixtea erabaki genuen zibermatxistek monopolizatu zituztelako. Gure kolaboratzaileek Forocoches eta La Burbuja foroetan antolatutako matxisten bortizkeria bizi izan dute. Twitteren liskarrak, polarizazioa, lintxamenduak eta difamazioak pairatu ditugu. Azken bolada honetan feminismoaren sektore sektario baten aldetik jaso ditugu mingarrienak. Esaterako, hedabide “proxeneta” bat izatea leporatu digute prostituzioari buruzko askotariko diskurtsoak hedatzeagatik, azken aldiz Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan ospatutako solasaldi aberasgarria, barea eta sakona

txiokatzeagatik. Maiz ardura sentitu izan dugu kazetaritzaren zeregina ulertzen edo errespetatzen ez duten txiolari sektarioen jomugan jarri ditugulako gure elkarrizketatuak. Joera horrek autozentsurara darama, *unfollow* kanpainen beldurrak kikilduta.

Bestetik, hedabide digitalok multinazional monopolistekiko dugun dependentzia kontuan hartuta, hausnartu behar dugu ea gure burua alternatibotzat aurkeztu dezakegun. Facebook-ek behin eta berriro mehatxatu gaitu gure orrialdea ixtearekin, gorputz biluzien debekuari men ez egiteagatik, eta horrek beldur itzela ematen du, gure irakurleen erdia sare sozial horren bidez heldzen baita gure webgunera. Algoritmoen menpe lan egiten dugu. Zaila da Google *Analytics*-en datuak kontuan ez hartzea zer publikatu eta zer ez erabakitze aldera. Handia da lerroburuak idazterakoan SEO irizpideak kontuan hartzearen tentazioa.

Laburbilduz: zaila da egun ziberoptimismoa pikutara ez bidaltzea. Gauzak horrela, ARGIAren mendeurrena aprobetxatu dezakegu kazetaritza ibilbide luzeaz ikasteko. *Big data* versus *Txikitik eragiten*. *Clickbait* versus *Astiro goaz*, urrutira goazelako. ●



# Baratzeko mikoak



**ANUNTXI ARANA**  
ANTROPOLOGOA

**H**amaika ikusi ditu ARGIAk bere mendean, kolore guztietakoak. Gogora etorritako batzuk dira ondoko hauek, subjektiboak eta heterogeneoak, ilustrazio gabeko entsalada.

Sortu zenetik ARGIAren xedea izan da euskara “noranahiko” egitea, etxeko eta munduko berrien ekarlea. Mendeurrena kari, Baionan hizkuntzaren egoeraz egin zen bilkuran, politikari batek zintzoki azaldu zuen frantsesez eginez gero hobeto adieraz zezakeen esan nahi zuena. Ez da lehen aldiz holakorik entzuten eta larri uzten nau, hala bada zertan demonio ari garen.

Ez da euskara bakarrik ARGIArena. *Zerukoa* zenean, emakumeek lan garrantzitsua egiten zuten han, eta lurtar egin ondoan leku handiagoa hartuz joan dira. Sail guztietan gizon-emazteen arteko oreka seriooki bilatu du eta, gaur egunean, inor ez liteke hortaz arrangura izan, feminismoan txapelduna da, mugimenduko joera desberdinetan.

Politika politikarian, une zailak pasatu zituen. ETaren azken urte luzeetan hartu zuen jarrera independentea ez zioten denek errespetatu, eta arbuio gogorrak jasan behar izan zituen. Orain, inork ukatuko al du orduan ere zuzen zebilela? Garain hartan, eta berdin geroago, abertzaleen armak isildu direnean, elkartasuna erakutsi die beti kartzelan daudenei, haien eskubideak erreibindikatzen ditu eta ozenki aldarrikatzen

Politika politikarian, une zailak pasatu zituen. ETaren azken urte luzeetan hartu zuen jarrera independentea ez zioten denek errespetatu, eta arbuio gogorrak jasan behar izan zituen

errotiko injustizia dela estatuak gustuko ez dituen subditoak salbuespeneko lege-di errepresiboen pean atxikitzea.

Bitartean, terminologia politikoan funtsezko hitz baten aldaketa gertatu da. “Euskal Herria” (kultura arloko terminoa) arlo politiko-administratibora pasatu da eta “Euskadi” ordezkatu du, hau da, zazpi probintziak osatzen duten euskaldunen aberriaren izena –superabertzale batzuek sei probintziatarako murriztu zuten, baina ideiak ez zuen luzaz iraun-. Alabaina, autonomia lortu eta zatiketa administratiboa onartutakoan, jeltzaleek beren feudoko hiru probintziak “Euskadi” deitzen hasi zirenetik, zokoratua gelditu da Etxahun Iruriren “gaixo ama Euskadi”. Normala al da izenen esanahia horrela aldatzea? Eta komeni al da horretara makurtzea?

Benoa, zorionak opatzeko aldia dugu eta, antzinako (betidaniko...) modua

erabiliko dut: “Eguberri eta Urteberri on!”; nahiz aspaldi honetan progresiak “Zorionak eta urte berri on” nahiago duen, laikotasuna helburu, naski. Denak dira eskertzekoak, baina solstizioa baldin bada kontua, egokiagoa dateke abenduko Eguberri urtarrileko Urteberri baino. Lehenaren arrabesta da bigarrena, eta biek gomutatzen dute urte batetik besterako iragatea.

Orobat erligiotik urruntzearen, Olenzero batzuek ez dute aditu nahi Jesus jaio dela. Tximiniatik sartzen den batekin eske egitea erligio (paganoa) ez baitlitzan. Elizak bere aldetik, monoteismoa helburu, ez du holako idolatren usainik onartzen. Denbora txarrak sinkretismo-rako. Eta kultura bakoitzak bere besta eta data kutunak baititu, elkar aditzen ez badugu, ez Olentzerorik, ez Urteberririk eta ez ezer.

Gastronomia geldituko zaigu. Azken hamalau urteetan *Lurrama* dugu azaroan, *Euskal Herriko etxaldea*. Lehenengo afixetan behi-txerri-ardi-oiloak azaltzen ziren, plater baten gainean zerbitzatuak; aurtengoan, entsalada-tomate-piper-beterraba-kuiatxo... Hori bai minestronea ona! ARGIAren *Bizi Baratzetik* harakoa ematen du. Salbu indabarik ez duela. Mihi prestuek diotenez, lekari txanda datorren urtean izango da, eta gure sukaldari bikainek menu proteinikoa eskainiko digute, denok sano bon-bon egin dezagun. ●

## MIGRATZAILEAK ETA EUSKARA GASTEIZEN ETA HERNANIN

# Lozorro instituzional eta sozialaren aurrean adabaki boluntarioak

 ONINTZA IRURETA AZKUNE

Kazetariak ikastetxera joan nahi zuen, eta galdetu ea atzeritik etorritako haur-gazteak nola moldatzen diren euskaraz ikasten. Ea Hezkuntzako murrizketek nola eragin duten baliabideetan, ea harrera planik baduten, ea haien jatorrizko hizkuntzak lantzen dituzten... "Harrera planak?", esan digu harritu samar Ruben Sánchez Bakaikoa guraso gasteiztarrak: "Zuriak baino ez dauden ikastetxean nori egin behar diote harrera? Eta zuririk ez dagoen

ikastetxean nori egin behar die harrera?". Ikasgelatik begirada altxatu dugu, eta auzoaz, herriaz, marjinazioaz, pobreziaz, segregazioaz, eta bizikidetzan pausoak emateko uzkur diren erakunde publikoez eta gizarteaz aritu gara. Hala dio Leire Diaz de Gereñu gurasoak: "Ez dago euskararik, ez badago bizikidetzarik". Gasteiza eta Hernanira hurbildu gara, korrontearen kontra lanean direnen pozak eta ezinak ezagutzera.









**J**akin dugu Hernanin etxeko lanak egiten laguntzen dietela guraso atzerritarrek dituzten umeei eta etorri berriak diren haurrei. Zer lan egiten ari diren jakin nahi izan dugu eta egitasmoan parte hartzen duten eragileekin elkartzeko gara: Amher-Sos Arrazakeria (Hernaniko Elkarte Multikulturala), Kaxkardi kirol elkarte, udaleko hizkuntza eta hezkuntza teknikaria (Malores Etxeberria), kulturartekotasun teknikaria (Irantzu Jauregi), eta Elizatxo Ikastolako zuzendaria (Gurenda Elu). Etxeko lanak egiten nola laguntzen dieten baino askoz gehiago kontatu digute.

Tomas Elortza Amher-eko boluntario beteranoetako bat da eta gogoratu da nola duela dozena bat urte, lehenengo aldiz, bi marokoar anai-arrebak eskolak eman zizkien uda batez. Ez zekiten ez euskara, ez gaztelania, dena zuten ikasteko. Orduz geroztik, hainbat urtean, Amher elkarteak koordinatu du etxeko lanetarako laguntza, boluntarioen bidez. Kopuruak gora egin zuen, ordea, eta eskaerari erantzuteko arazoak izaten hasi ziren.

Garai beretsutik, duela hamabost bat urtetik hona, udalaren bueltan elkartzen dira herriko ikastetxe guztiak, Haur Eskolatik hasi eta Lanbide Heziketa eta batxilerretara. Bederatzi eskoletako zuzendariak hilean behin biltzen dira. Foro horretan hezkuntza, euskara, ingurumena, berdintasuna, kultura eta beste hainbat gai lantzen eta koordinatzen dira. Ikastetxeak eta udalaz gain, herriko mugimendu sozialek ere hartzen dute parte gaiak hala eskatzen duenean, hala nola, Amher, Hezkuntza plataforma, aisialdi talde eta euskara elkarteak.

Foro horretan hasi ziren, hain zuzen ere, duela hamabost bat urte, etorkinen eskolatzeaz hizketan eta gai horri heltzeko beharra sentitu zuten. Ikasle etorri berriak eskola jakin batean ari ziren kontzentratzen, itunpeko kristau eskolan, eta kontzentrazioa gero eta handiagoa zen. Lautik hiru ikasle ziren etorkinak eskola horretan, eta gainerakoetan, denak publikoak, apenas

zegoen ikasle etorkinik. Udaleko teknikariek, Etxeberriak eta Jauregik, diote herriarentzat halako egoera bat ez zela batere egokia garbi zutela, eta arrazoi guztiak zeudela gaiari heltzeko. Saiakera egin zuten, baina ez zuten aurrera egitea lortu. Ikastetxeentzako egoera ez zen artean oso deserosoa. Etorkinak jasotzen ari zen eskolarentzako matrikulazio-iturrria zen, behar zituen, eta eskura zituen baliabideekin lortzen zuen, nolabait ere, egoera kudeatzea. Gainerako eskolentzako, berriz, kezka bat gutxiago. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin bilerak egin zituzten, Jaurlaritzak ere, Hernani landu beharreko herrien artean baitzeukan. Diagnosian bat egin zuten Hezkuntza Sailak eta Hernaniko Udalak, baina praktikan ez ziren ezertara heldu.

### IKASLE BANAKETA EZ DA PROPORZIONALA

Euri asko egin du orduz geroztik. Krisi ekonomiko-finantzarioa pairatu dugu, Hezkuntza Saila ikastetxeetan murrizketak egiten hasi zen, eta etorkinek etortzen jarraitu dute, lehen baino gehiago. Bertako jaiotze tasak behera eta atzerritarrek joan-etorrian etengabe. Errealitate hori geratzeko etorri dela dio Jauregik eta beste hainbat eragile ere horretaz jabetu dela.

Hala, duela bi urte, ikastetxeetako zuzendariak eta udaleko ordezkariak biltzen diren foroan, atzerritarren seme-alaben eskola-errealitatea hobeto ezagutzea pentsatu zuten.

Egoerak okerrera egin zuten urte haietan: itunpeko ikastetxeak dagoeneko ezin zuten kudeatu atzerritar kopurua eta beste ikastetxe publiko batean gauza bera gertatzen hasia zen. Inorentzat, herriarentzat, egoera ona ez zela iritzita, non edo nondik lanean hastea erabaki zuten.

Ordurako, Amher elkarteak bide batzuk jorratuak zituen. Hernaniko Udalak aurrekontuen zati bat, urteko 500.000 euro, nola gastatu modu parte-hartzailean erabakitzen du. Prozesu horretara aurkeztu zuten Amher elkarteak proiektu bat, atzerritar familietako haurrei etxeko lanetan laguntzeko. Ezin zieten haur guztiei lagundu



etxeko lanetan, gero eta gehiago ziren. Udalak esku hartzea nahi zuten. Bada, herritarrek Amherren egitasmoa onartu zuten aurrekontu parte-hartzaileetan. Udalak Kaxkardi kirol elkarte kontratatu zuen lan horietarako. Hainbat helburu bete nahi ziren aldaketa horrekin: Amher arindu eta gorantz ari zen ikasle kopuruari hobeto erantzutea, umeek irakasle gazteagoak izatea erreferentzia moduan, eta oso garrantzitsua, etxeko lanak egiteaz gain, Kaxkardiko hezitzaile gazteen bidez herriko aisialdian errazago murgiltzea.

### 40 UMERI ETXEO LANETAN LAGUNTZEN

Amherreko kideek musu-truk lagundu diete hainbat haurri etxeko lanetan eta orain ere Kaxkardik bere gain hartu ez dituen ikasleak izaten ditu. Kaxkardikoen lanaren ardura ekonomikoa udalak hartu du. Laugarren ikasturtea hasi dute Kaxkardikoek. 8 eta 11 urte artekoak dira. 40 bat ume ari dira eta ikasgela bakoitzean gehienez hamar haur dituzte. Bost ikastetxeetakoak joaten dira eta haurrak irakasleek aukeratzen dituzte haien beharren arabera. Atzerritarrentzat eta atzerritarren umeentzat dira eskolak. Solaskideek badute kezka gai horren inguruan. Guraso gaztelania hitzunik eta euskara hitzunik ere badituzte haurrak eskolan ondo moldatzen ez direnak, eta baliabide ekonomikorik

#### GURENDA ELU

Elizatxo Ikastolako zuzendaria

**“Lasaitua hartu dugu. Erantzukizuna daukagu, baina ez gaude prestatuta errealitate hau kudeatzeko. Ikasleak Amherrekin, herriko elkarteekin eta udalarekin elkarbanatzea ardura elkarbanatzea da”**





Ezkerrean Gasteizko Goian elkarteak antolatutako tailer batean, eta eskuinean, Hernaniko Kaxkardi elkarteko kidea etxeko lanak egiten laguntzen.

ez dutenak. Haiak ez dute lekurik egitasmo honetan. Dena dela, Irantzu Jauregi gogoratu du egitasmoan biltzen diren haurrek bi ezaugarri betetzen dituztela: bata, haien gurasoek baliabide ekonomikorik ez dute bide akademikoan laguntzeko, eta bestea, errealitate zeharo arrotzera etorri dira eta herrian harreman sarerik ez dute izaten gehienetan.

Hiru hilean behin Kaxkardiko hezitzaileak umearen ikasketa buruarekin elkartzen dira eta jarraipena egiten dute. Ikasturte hasieran irakasleak esango dio Kaxkardikoari zer behar diuen haurrak. Batzuk ez dute menperatzen euskara, ezta gaztelania ere, beraz horiekin hizkuntzan sakontzen dute; beste batzuek ulermen arazoak dituzte eta irakurketa lantzen dute; badira

hizkuntzekin arazorik ez dutenak, baina adibidez matematiketan trabatuta daudenak eta etxean ezin diete lagundu hizkuntza ezagutzen ez dutelako. Hurrengo egunerako etxeko lanak gabe ere joaten dira, eta horrelakoetan, elkarrekin aritzeko eta euskara praktikatzeko jolasak eta ariketak egiten dituzte.

Etxeko lanak ardatz hartuta euskara menperatzea, akademikoki aurrera egitea da helburu bat, baina harago doa egitasmoa. Kaxkardi umeekin ari da futbolearen, piraguan, udalekuean, eta herriko haur piloaren ezagutzen dute. Zubi lana egin nahi dute, atzerriko umeekin herriko aisialdirako bidea ireki nahi diete.

Gurenda Eluri galdetu diogu ea nola daramaten haien haurrak ikastetxez kanpo beste talde batek kudeatzea,

ikastetxeek ez ote duten sentitzen tartean sartu direla bestelako eragileak. Ezetz dio irmo: "Lasaitua hartu dugu. Guk erantzukizuna daukagu, baina ez gaude prestatuta errealitate hau kudeatzeko. Ikasleak Amherrekin, herriko elkarteekin eta udalarekin elkarbanatzea ardura elkarbanatzea da".

### HEMERETZIGARREN HILABETEAN, JADA EZ DIRA ETORKIN

Egiten ari direna kontatu digute eta gogorazi digute egin beharko lukeenak egiten ez duelako ari direla asko. Solasaldi honetan Hezkuntza Sailari arreta berezia jarri ez badiote ere, tarteka atera da. Irantzu Jauregi Kaxkardiren bi egitekoez (akademikoa eta bizikitzea) ari garelako hausnarrean hasi da:



## HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara...eta gainera euskaraz.

*"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"*  
Antoine de Saint-Exupery



## NATASHA RUEDA GOIAN ELKARTEKO KIDEA

DOS POR DOS



# Orain euskara ikasteko gogoa daukat

Kolonbiarra naiz eta 15 urterekin etorri nintzen Euskal Herrira. Eskolan, Bigarren Hezkuntzako lehen mailan jarri ninduten. Euskarazko lehen klasean, liburua eskuan nuela, irakasleari zerbait galdetzeraz joan nintzen, eta esan zidan ez zeukala denborarik niretzat, zeren nik euskara salbuetsita neukala, eta beste 34 ikasle zituela zain. Nahi banuen saiatzeko, eta bestela jolastokira joateko. Horrela erantzungo badidazu ez dut hemen egon nahi, jolastokira noa.

Ez dut euskara ikasteko gogorik izan. Euskara ikasi behar da, bai ala bai? Eta ez gaitezen ahaztu zein dirutza behar den euskara ikasteko. Orain euskara ikasteko gogoa daukat. Hiru urtez ari naiz euskaltegian. Goian elkartean bost urte daramatzat *urban dance* irakasten. Euskara ikasi nahi dut Goianen nagoelako, Goianek nire bizitzan daukan garrantziagatik. Gazte askok nirea bezalako bizipen txarrak izan dituzte. Bigarren Hezkuntzan euskaratik salbuetsi dituzte eta batxilerra bukatzerakoan, bat-batean, konturatzen dira

batxilerra gainditzeko euskara maila jakin bat egiaztatzeko azterketa gainditu behar dutela. Euskarak ibilbide akademikoa eta haien bizi-asmoak izorratuko dizkiela sentitzen dute. Euskara ikastera derrigortuta daudela sentitzen dute. Goian desberdina da. Euskara ardatza da, euskaraz egin nahi dugu, baina edozein pertsona onartzen dugu, eta datorrenaren egoera kontuan hartzen dugu. Euskaraz egingo du ahal duenak eta ahal duen neurrian. Poliki abiatuko zara, hitzez hitz, euskara entzungo duzu, agian hurrengo urtean euskara eskolak hartzera animatuko zara, edo hezitzailea zara eta umeekin euskaraz zenbatzen hasiko zara. Nik, adibidez, aditzak agintera moldean baino ez ditut erabiltzen haurrekin ari naizenean. Aurrekoan haur batek esan zidan asko hobetu dudala. Nola ohartu den! Hasieran ez nuen ezer ulertzen, orain ia dena ulertzen dut. Ume askok jada ez didate gaztelaniaz hitz egiten. Ulertzen ez badut, galdetzen diet. Beraiek ere konturatu dira aldatzen ari naizela.





“Hezkuntza Sailak etorri berriari hizkuntza menperatzen laguntzeko baliabideak jarriko balitu, Kaxkardiren lehen egitekoaren behar handirik ez legoke. Uzbekistanetik etorri den haurrak nola egingo du eskolan jarraipen egokia hizkuntza bera ez badu ezagutzen?”. Alegia, herrian harremanak egiten, inklusioa lantzen, inbertituko lituzkete indarrak eta diruak. Gogoratu dute haurrak etorkina izateari uzten diola hamazortzi hilabeteren buruan, Hezkuntza Sailaren begietara. Sailak bi ikasturtez baliabideak jartzen ditu haur horrentzat eta aintzat hartzen da epe horretan eskolako erritmoa hartuko duela. Kaxkardiko kideak badakite zertaz ari diren: “Bertako ume batzuek ere zailtasunak dituzte eskolan, nola moldatuko dira euskaraz, eta askotan gaztelaniaz, ez dakitenak? Eta hizkuntza ez da zailtasun guztien iturburua eta konponbidea. Guk oso ume azkarrek dauzkagu, baina lekuz kanpo daude, zentzu guztietan, atzeritik etorri berriak dira”. Uzbekistaneko ikaslearen adibideari heldu diote berriz eta gogorarazi dute duela bi urtez geroztik ikastetxeetan itzultzailerik ez dutela, murrizketen ondorioz. Mongoliarrak eta marokoarrak dituzte eskoletan, ez euskara ez gaztelania dituztela. Itzultzailea eskolaz kanpo aurkitu behar dute. Kaxkardiko bi gazteei irribarre etsigarria atera zaie: “30 ume dauzka ikasgelan eta batek ez du ezer ulertzen! Aupa irakasle!”.

### DOBERA ETA KANIKA ERE ARI DIRA

Ez ditugu mahaiaren bueltan solaskide izan, baina Dobera euskara elkarteko eta Kanika aisialdi taldeko kideak ere ari dira euskara eta etorkinak uztartzen. Doberak *Hamaika batuaz* egitasmoan



GOIAN GASTEIZ

Adin guztietako haur eta gazteak biltzen ditu Goian elkarteak.

ehundik gora haur eta gazte bilduko ditu aisialdian ikasturte honetan. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzakoak dituzte. Helburua euskara menperatzen ez dutenei bide horretan laguntzea da, eskolaz kanpo eta jolasaren bidez. Gehientsuenak etorkinak dira.

Kanikako begiraleak hilero elkartzen dira ekintzak egiteko herriko ehun bat haur-gazterekin. Hiru hilean behin lo kanpoan egiteko planak egiten dituzte. Kopuruan muga jarrita dute, baina egoera berezian dauden haurrak beti hartzen dituzte, adibidez, iritsi berriak. Taldearen zutabeetako bat euskara da eta nolabaiteko harrera egiten diote umeari; etxetik dakarren hizkuntza eta kultura balioan jartzen dituzte eta hemengoa ere azaltzen diete. Begiraleek eta hurrek beraiek ardura hartzen dute iritsi berriari euskara ikasten laguntzeko. Ohikoa da mimika erabiltzea edo belarrira xuxurlatuz euskaraz esandakoak itzultzea.

### EZ DAUDE HEZKUNTZA SAILAREN ZAIN

Solaskideek ez dute ezeren eredutzat hartzerik nahi, haien puzzlea ahal den moduan osatzen ari direla diote. Umeen etxeko lanak aitzakia polita izan dira ikastetxe guztiak eta herriko hainbat eragile publiko eta pribatu sintonian aritzeko. Aurrera jo nahi dute, jakinda adabakiak jartzen baino ez direla ari. Ikastetxe guztien arteko oreka lortzea nahi dute, atzeritarrek ikastetxe batera edo bestera bideratzea, eta ez pilotzea. Aitor dute ez dakitela oso ondo zer den orekatzea. Kazetariak galdetu du ez ote diren horiek Hezkuntza Sailaren esku-duntzak. Solaskideek erantzun dute ez daudela Hezkuntza Sailaren zain, bestela esperoan egon beharko luketela. Horrek ez du esan nahi erakunde publikoarekin lanean ari ez direnik. Lehen pausoa herrira matrikulazio epetik kanpo iristen diren hurrekin eman nahi dute, urtean 30-35 dira. Batzorde aholku emaila

87 udal.  
250.000 biztanleko lurguneko euskalduna.  
**elkarrekin bidea eginez**  
**arnasa GARA**  
**euskaraz GARA**  
**ETORKIZUNA GARA!**

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA



## Goian-en baino ez dut egiten euskaraz

17 urte ditut. Tenerifen jaiotua eta 4 urterekin Euskal Herrira etorri nintzen. Iurretan eta Bilbon bizi izan naiz eta bietan D ereduak ikasi nuen. Gasteiza etorri nintzenetik amak B ereduak sartu ninduen, bestela etxeko lanetan ezin zidan lagundu. Orduan hasi nintzen euskara galtzen. Ez nuen Bigarren Hezkuntza ikastetxean bukatu eta Helduen Hezkuntzara joan nintzen bukatzera. Asteaz ordubete ematen genuen euskara. Erizaintzako laguntzaile ari naiz ikasten, gaztelaniaz, zeren euskaraz oso zaila da. Euskaraz Goian elkartean baino ez dut egiten. Monitoreari jolas hezitzaileetan laguntzen diot. Umeekin egiten dut euskaraz.

bat sor ote litekeen ari dira pentsatzen, haur bakoitza zein eskoletara bideratu aztertzeko eta Hezkuntza Sailari adierazteko. Argi dute Sailak norabide berean jokatzeko ez badu, herrian ezingo dutela aurrera egin, Sailak baitu azken hitza. Abiapuntua baino ez litzateke epea kanpo datozen haurrak bideratzea, hamaika egiteko otu zaizkie denbora gutxian etorkizunera begira: itzultzaileak lortzea, etorri berriei haien hizkuntzez eta kulturaz galdetzea, herrian harrera plan osatu bat egitea...

Gurenda Eluk herriaren egiteko azpimarratu nahi du: "Bagenekien eskolak bakarrik ezin zuela. Familia gehitu genuen eta orain herria ari gara gehitzen. Amher, Kaxkardi, Dobera, Kanika... Horiek denak alboan ditugula gu lasai gaude".

### **GASTEIZEN, ALDE ZAHARREAN, AUZOA BIZIBERRITU NAHIAN**

Gasteizko Alda Zaharrean lau auzokiderek elkartu gara: Ramón Bajo ikastetxeko guraso Ruben Sánchez Bakaikoa eta Leire Diaz de Gereñurekin, eta Goian elkarteko Natasha Rueda eta Salka Mint Karamerekin. Alde Zaharrean dagoen Ramón Bajo ikastetxean, migratzaileak eta euskara lotuta zertan ari diren jakin nahi genuen. Laster konturatu gara ikastetxera mugatzeak ez duela zentzurik. Lau solaskideek auzoa jarri dute erdigunean eta ezinbestekotzat Goian Alde Zaharreko Komunitate egitasmo hezitzailea.

Ramón Bajo ikastetxeko guraso elkartek sortu zuen duela hamalau bat urte Goian, izen hori geroago hartu bazuen ere. A eredutik D eredura aldaketa egin eta atzerri-tarren ghetto bihurtutako eskola orekatzen saiatu ziren gurasoek sortu zuten aisialdi elkarte. Orduz geroztik asko garatu da. Goianek auzoarekin lotura trinkotzea du bereizgarri nagusi. Talde guztietan bost irizpide hezitzaile lantzen saiatzen dira: euskara, parte-hartzea, hezkidetzatza, elkar zaintza eta aniztasuna. Ezaugarri bereziak dituen auzoan dago Goian. Estigma handia du Alde Zaharrek, borrokaz eta etorkinez betetako auzo zahar-kitutzat hartzen da. Era berean gentrifikazioa pairatzen hasia da, turistak eta parrandazaleak tokia hartzen ari dira. Horregatik bi hel-

buru, euskara ardatz hartuta, nola lortu auzoa bizirik mantentzea eta hainbeste jatorritako auzokideak elkarrekin bizitzea?

Bi xede nagusi dituzte, baina egunegun moldaketak egin behar izaten dituzte. Nola bermatu euskara komunikazio hizkuntza izatea? Oso konplexua da auzoko errealitatea, eta Goianen egitekoa hobeto azaltzeko, adibide bat eman du Sánchezek: "Tau umeekin oso ondo moldatzen da monitore gisa, baina ez diote euskara irakatsi. Era berean, nire umeek ekintza horietan euskaraz parte hartzea nahi dut, baina Tau-rekin ezin da. Baina ez dut Tau kanpoan utzi nahi. Nola egiten dugu hori?".

Adin guztietako haur eta gazteak biltzen ditu Goian elkartek. Auzokoak dira gehienak, baina Gasteizko edonork eman dezake izena. D ereduko eta A ereduko ikasleak dira. Hezitzaileak ez dira beti euskaldunak, Sánchezek aipatu duen moduan. Ahal duten bezala kontopontzen dira: hezitzaileak ez badaki euskaraz, agian laguntzaileak jakingo du edo ez badaki ere euskarazko hitzak sartzen hasiko da. Beste batzuetan umeak beraiek dira euskaraz ulertzen ez dutenak. Euskara ez jakiteak ordea, ez die aterik ixten ez hezitzaileei, ezta umei ere. Helduentzako ekintzak ere badituzte. Esate baterako arrakasta du *Sukaldean solasean* ekimenak. Lehen gaztelaniaz egiten zen. Gaur egun errezeta egiten duenak bere hizkuntzan azaltzen du, eta euskaraz ere kontatzen dute. Yoga euskaraz ematea erabaki zuten. Topaguneak eskaintzen duen Auzoko programa ere badute, *Hizkuntzen arteko enkontrua* deitu diote ekimenari. Ume eta ez hain ume, inauteriak, Olenzero, eta egutegiko beste hainbat data berezi ospatzen dituzte.

Goian elkartea udalak diruz lagundua da. Hala ere, premiak izaten dituztenez, dirua lortzeko ekimenak antolatzen dituzte. Edonorentzat eskuragarria izan dadin, ekintza bakoitzak 40 euroko kuota du urtean eta elkarlan-bekak eskuratzeko aukera dute kuota ordaindu ezin dutenek. Elkartean kaleko hezitzailea, guraso elkarte, Ramón Bajoko irakasle bat, boluntarioak eta hezitzaileak biltzen dira.



## 'RAMÓN BAJO' IKASTETXEAN EZ DIRA ESPERIMENTUAK IZANGO

Bi gurasoak pozik ari dira lanean auzoan, baina biak dira ezkorrak. Leire Diaz de Gereñuk azpimarratu du, ez Hezkuntza Sailak ez gizarteak berak ere, ez dutela benetako borondaterik agertzen eskolaren bitartez bizikidetzaz sustatzeko: "Esaten da segregazioa saihestu behar dela, baina ez dago helburu komunik. Ez da nahikoa ikastetxeak D eredua izatea. Horrek ez du esan nahi bizikidetzan aurrera egingo duzunik, euskararen aurrera egingo duzunik, beste beste segregazioagatik. Aldaketa asko gertatu dira azken hogeitaz urtean eta hezkuntzan ez zaio nahikoa serio heldu gaiari. Gurea bezalako hezkuntza sisteman, zeinetan hizkuntza gutxitua den ardatz, bereziki zaindu behar dira, adibidez migratzaileen harrera planak eta salbuespen egoerak. Bestetik, eskola komunitatea osatzen dugun guztion erantzukizuna ere bada. Etengabe esaten da euskara hurbildu behar zaiela etorkineei. Ez da hala, ezer baino lehen, gu hurbildu eta elkarrekin bizitzea da bidea".

Sánchez ere ez dago Hezkuntza Sailak zer egingo zain, baina fokua gizartearen jarri du, ez du uste Ramón Bajon gerta-

tu zenaren antzekorik gertatuko denik Euskal Herrian, alegia, ghetto bihurtutako ikastetxera bertako gurasoek haien umeak eramatea, ikastetxea nolabait orekatzeko: "Gurasoek beraien haurrak jarri behar dituzte lehen lerroan horrelako bat egiteko. Ikastolek horretatik asko izan zuten: ilegalak ziren ikastoleta-umeak bidali zituzten. Gaur egun prest dago jendea horrelako apustuak egiteko?". Eta beraz, erakunde publikoen esku-hartzerik ez bada, zuriak ez direnen eta zuriak direnen eskolak bereiziko dira, pobreak direnen eta ez hain pobre direnen eskolak. Atsekabetuta dio Sánchezek: "Euskara nola landu etorkinekin? Gure whatsappetan ohiko mezuak dira halako familia hurrengo astean etxerik gabe geratuko dela". Diaz de Gereñuk tinko dio pobrezia eta marjinazioari

aurre egiteko borondate politikorik ez dagoela, baina gizarteari ere badago kiola aldaketa eskatzea, ikastetxe segregatuak desagertzeko eskatzea, eta ez duela hala egiten.

Ez dute nahi euskararen gaitzen erruduntzat etorkinak hartzerik, hartarako joera handia baitago. Diaz de Gereñuk ondoko gogoeta egin du: "Ados, euskara hizkuntza gutxitua da, bizi-raun nahi dugu, eta horrek gure artean biltzeko joera sortzen du, bereziki eremu soziolinguistikoko eraldunetan, baina hori ez da gizarte bat, eta euskararen aitzakian beste kontu batzuk ezkutatu litezke".

### LEIRE DIAZ DE GEREÑU

Ramón Bajo  
ikastetxeko gurasa

**"Euskara hizkuntza gutxitua da, biziraun nahi dugu, eta horrek gure artean biltzeko joera sortzen du, bereziki eremu soziolinguistikoko eraldunetan, baina hori ez da gizarte bat, eta euskararen aitzakian beste kontu batzuk ezkutatu litezke"**

raren aitzakian beste kontu batzuk ezkutatu litezke. Pentsatu beharko dugu nola egingo dugun euskara indartzeko. Lehenagotik dauzkagun baldintzak hor daude, eta gainera, ingelesaren hegemonia zabaltzen ari zaigu, baina arazoa ez da bestea". ●

**VITORIA GASTEIZ**  
green capital

**Bizi Berdea**

BIOSPHERE  
certified destination

www.vitoria-gasteiz.org/turismo

f t @turismovitoria



ig @turismo\_vitoria

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko Udala


# GIPUZ

## Etorkizuna orain

Gipuzkoa etorkizuna da.  
Iritsi den etorkizuna.



GIPUZKOA  
ETORKIZUNA  
ORAIN







# MENDEURRENAK HIRU OPARI *bata jendeari, bestea Argiari, handiena Euskal Herriari*

 EITITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

**U**rte biribil honek opari bana egin digu ARGIA Jendeari, Euskal Herriari eta komunikazio proiektuari. Zabalduko ditugu?

ARGIA Jendeari bihotza indartzeko bzipenak oparitu dizkio Menduurrenak: jaiaren bueltan elkartu da hedabide hau eusten duen komunitatea urtean zehar, eta batzen gaituen su horren beroa sentitu du. Euskal Herrian barna hogeita bi ekitaldi egin ditu ARGIAk hamar eragilerekin elkarlanean: Iruñean abiatu zen menduurrena, hiri buruzagiko euskararen historia eza-gutuz, Donostian urriaren 12an egin zuen jai nagusia *Deskoloniza gaitezen* lemapean, eta Duzunaritzen egin du azken egun-pa-

sa, lurrari loturik. Azken ekitaldi sorta, berri, abenduan Durangoko Azokan egin berri du, ARGIAk dinamizatu baititu "Go-goetaren Plaza"ko mahai-inguruak.

Euskal Herriari oroimen historiko piezak oparitu dizkio Menduurrenak: zenbakiro ekarri du astekari honek *Komunitatea* atalean euskarazko komunikabide independentearen historiako pasarte baten berri, eta astero banatu du azal historiko bat lamina bihurturik. *Ez gara neutralak* liburuan bildu ditu egungo ARGIAren izaera eta oinarriak. Eta aurtan digitalizatu du ARGIAk 100 urteko altxorra, herri honen historiaren lekuko diren *Zeruko Argia*-ko eta ARGIA-

ko artikulu eta argazki guztiak. ARGIAren nahia da digitalizatutako testu eta argazki hauek guztiak ahalik lasterren herri-tar denen eskura jartzea, alegia, ARGIAren webgunean egotea, lizentzia librean.

Komunikazio proiektuari kide berriak ekarri dizkio Menduurrenak: orain ARGIA Jende gehiago gara, eta ondorioz, erredakzioan hiru langile gehiago ere bai: bideoak egiten dituen bat, eta lehen aldiz Arabako eta Nafarroa Behe-reko erredaktore bana.

Bihotza azkartuta, bere jatorriaren eta izaeraren kontzientziak eta Euskal Herri osoan kideak gehituta ekingo dio ARGIAk hurrengo mendeari.





## IRAGANAREN JABE EGIN GARA

Ehungarren urtea ehun orriko astekari bereziarekin hasi genuen eta eskutan duzu mendeurrenaren zikloa itxi duen beste hainbesteko astekaria. Noski, ehun urteko proiektu bizi bat, taldean egina eta milaka herritarren inplikazioan oinarritutakoa, idaztea ezinezkoa da. Izan ere, ARGIA Jende bakoitzak ditu bere esperientziak, gertakizunen oroitzapen eta azalpenak. Baina historia bakar murritzaila bat idazteari uko eginik, urteurrena baliatu dugu euskarazko hedabide independente honen historia aleak berreskuratzeko: astez aste historiako 48 pasarte ekarri dizkigu *Komunitatea* atalean Miren Osa Galdonak. Astekariarekin batera astero jaso dugu etxean lamina dotore bat: *Zeruko Argiako* eta ARGIAko 45 azal hautatu, Koldo Izagirrerren iruzkinak jantziak. Bai Osaren artikuluak eta bai Izagirrerren testuak berreskuratu nahi izanez gero, errazena

Internerera jotzea da: [www.argia.eus/argiak-100-urte](http://www.argia.eus/argiak-100-urte) helbidean daude hauek guztiak eta mendeurrenari buruz argitaratutako informazio guztia ere bai.

Ehun urteotan euskarak bizi izan dituen zapalkuntzak kontuan hartuta, euskarazko hedabide herrikoi independente batek ehun urte bete izana bada lorpen berezia. *Zeruko Argia* martxan jarri zuten kaputxinoek "miraria"ren bidez azaldu ahalko zuke ten errepresioen gainetik mendea betetzera iritsi izana, baina egungo lantaldeak beharra sentitu du iraupenaren gakoiez hausnartzeko, eta ARGIAN 1980tik hona kazetaritza eta lana ulertzeko dugun modua adierazteko. Batez ere, hurrengo mendearen erabiltzaile izan dakizkigun. *Ez gara neutralak* liburuan bildu ditu gako hauek guztiak Gorka Bereziartuak, begi zorrotz bezain esku finez. Liburu hau etxetara banatu dugu astekariarekin batera: ARGIA Jende guztion lorpena baita euskarazko

hedabide independentea ehun urteetara iritsi izana, eta guztiok jabe egin gaitezen ARGIAren historiaren eta izaeraz.

## EHUN URTEKO ALTXORRA GUZTION ESKURA ETA SALBU

Ez da txantxetako hiru hamarkadatan ARGIAren Lasarteko egoitzan sentitu izan dugun ardura: alboan dugun Oriain ibaiak gainezka egin eta ura sartuko balitz zer? Milaka argazki osatutako artxiboa eta *Zeruko Argia* zein ARGIAko milaka zenbakiak goiko solairura igo genituen orain urte batzuk, beldur horrek eraginda. Baina egoitzak su hartuko balu zer?

Lasaiago lo egiteko motiborik badugu orain: Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak ARGIAren argazki artxibo osoa eta ehun urteotako testu guztiak eskaneatu ditu eta hauek guztiak formato digitalean daude egun, ARGIAN bertan eta erakunde publikoen biltokietan. ARGIAren





nahia da ahalik lasterren hondare historiko hau guztia ARGIAren webgunean herritar guztion eskura jartzea lizentzia librean. Herri honen hondarea denez, material guztia doan jarri du ARGIAK, baina berak ez du dirurik artxibo hauek guztiak interneten erabilgarri jartzeak eskatzen duen lana ordaintzeko. Desio dugu aurten Eusko Jaurlaritzarekin digitalizazioan hasitako bideak hurrengo urteetan jarraipena izatea, guztia ARGIAren webgunean erabilgarri egotea lortu arte.

Orain arte aipatutako guztiak eta herri honen antolatutako ditugun ekitaldiak dira berariaz Mendeurrenari lotuta egin ditugunak. Baina badira beste hamaika lorpen, aurten gauzatu direnak. Ekinak, zoriak edo mende bete honen bultzadak ekarri dizkigunak, jarraian irakurgai:

**ETZANDA HOBETO**

Aurreko urteetan egin du ARGIAK pixkanaka bere lan antolaketa eta erabaki-

guneak are eta gehiago horizontaltzeko bidea eta urte berezi hau urrats ikusgarriena eta sinbolikoena emanaz hasi du: zuzendaririk gabeko hedabidea izatea. Txandakakoa izango den zuzendaritza ere aurten berri du. Baina ARGIA ez dago gai honetan lo, ahalik eta horizontalen jarduteak etengabeko lanketa eskatzen baitu..

**AMETS BAT BETE DUGU: LURRALDE TASUNA LANTALDEAN BERMATZEA**

ARGIA zerbait izatekotan, Euskal Herriko komunikabide bat da, Euskal Herri osoko gaiez euskal herritar denei informatzea helburu duena. Bide horretan jauzi handia emanaz bukatuko du urtea: zazpitik sei lurraldetan izango ditu aurrerantzean erredaktoreak. Arabako Zigor Oleaga eta Nafarroa Behereko Jenofa Berhokoirigoin dira lantaldera batutako bi kideak eta ziur lurralde horietako albisteak, ikuspegiak, iturriak, pertsonaiak, kolabo-

ratzaileak eta eragileak ekarriko dizkiotela komunikazio proiektuari.

**BIDEOETAN TREBE**

Bideogintza indartzeko Eneritz Arzallus batu zen lantaldera urte hasieran eta bere lanaren ondorio dira, besteak beste, pil-pilean diren albisteez egindako bideo labur indartsuak, ongi dokumentatuta gelditu diren mendeurren ekitaldietako mahai-inguruak, edo astero interneten jartzen dituen *podcast* irrati emanaldi pilulak.

**PATATAREN ONDORENGO LEHEN URTEA ETA EZ HAIN AZALEKO KONTUAK**

Honezkero ohitu zara diseinu honetara, baina aurtengo urte berezia hasteko estreinatutako genuen. Lantaldera batu zen Maitane Gartziandia diseinatzaileak berri du aurten ARGIAren logoa, aste-kariaren diseinua, *Larrun* hilabetekari





ESTITXU EIZAGIRRE



monografikoa, baita udan banatu dugun *Gakoak* kazetaritza liburukia ere.

ARGIA etxean jasotzen dugunok aurten-go urtea gogoratuko dugu bidalketarako plastiko madarikatua alboratu eta pata-taz egindako zorro konpostagarrian biltzea lortu duelako Antza inprimategiak. Urtero 200.000 plastiko zorro gutxiago izango ditu Euskal Herriak.

### ZUTIK ERREPRESIOAREN AURREAN

*Kazetaritza ez da delitua* mezua zabaldu behar izan du aurten ere ARGIAK. Izan ere, Ertzaintzak herritar bati eginiko hizkuntza eskubide urraketa baten berri emateagatik, bi ertzainek salaketa jarri dute Lander Arbelaitz kazetariaren aurka. Epaitegian deklaratu behar izan du kazetariak eta oraindik ez dago auziaren berririk. Informatzeko eskubidea kalean defendatzen jarraituko dugu.

### PAPEREZKO FRUITU GEHIAGO

Urte oso emankorra izan da argitaratutako liburu eta jolas berrietan, lantaldea indartsu dagoen seinale. Onintza Iruretak *Berdea da more berria* liburua argitaratu du otsailean, Bizkaiko zaharren egoitzetako langileen greba kontatuz, eta urte berean beste bi hizkuntzatarata itzuli da (gaztelarrera eta katalanera).

Mikel Garciak Pape Niang. Hasiera berri bat liburuan kontatu du Niangek Senegaldik Euskal Herrira iristeko eta bertan bizi ahal izateko egindako bidea, migratzaileen bizipenei ahotsa jarritz.

Jakoba Errekondok 1.111. artikulua idatzi du aurten astekarian, eta horietatik 111 artikulua hautatu dituzte Euskal Herriko hainbat alorretako 22 pertsona esanguratsuk. Emaizta, di-

seinu bereziko 111 hostoz eta orriz jantzi liburua.

Xapoketan karta-jokoa ere kaleratu du Argiak, Euskal Herriko animaliez dugun ezagutza gero eta urriagoa osatzeko asmoz: Iñaki Sanz biologoak landu ditu edukiak, Eñaut Aiartzaguenak egin ditu marrazkiak eta EHUko Lore Erriondo irakasleak pedagogia plan-teamendua zaindu du.

Paperezko harremana sendotu du Argiak euskal preso politikoeekin, hizkuntza dispersioa gainditzeko asmoz. Astekaria jasotzeko proposamena luzatu die aurten komunikabide independenteak eta kartzeletatik ehunka gutun zoragarri jaso ditu bueltan.

Hauek eta gehiago 2019ak ekarri dizkigunak. Biribila bezain betea izan den urtearen bultzadaz ekingo diogu hurrengo mendearen gurgil-birari. ●



# Festak ere gure modura

Hogeita bi ekitaldi antolatu ditu ARGIAK urtean zehar. Aukera ederra izan dira Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta hirietako kaleak euskaraz hartzeko. Era guztietakoak izan dira: hitzaldi eta mahai-inguruak, egun-pasak, ibilbide gidatuak, bazkariak, musika eta poesia emanaldiak, zine emanaldia, irakurraldia, liburu azoka...

Euskarazko kazetaritza izan da ekitaldi hauetako batzuetan gai nagusia, baina beste ekitaldi batzuetan, aldiz, ARGIAK egunerokoan lantzen dituen gaiak izan dira ardatz: adibidez feminismoa eta langile borrokak, euskararen egoera, Kataluniako independentzia prozesua, faxismoaren gorakadaren zergatiak, bertako anfibio eta narrastien ezagutza, landareak eta nekazaritza ekologikoa...

Ekitaldi hauek tokian tokiko eragileekin elkarlanean egin ditugu: Elkar-Ekin elkarteak, Manu Robles Arangiz Institutua, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak, Mintzalasai elkarteak, Hala Bedi irratia, Baltsan elkarteak, Akelarre elkarteak, Gerediaga elkarteak, EHKOLEktiboa eta Biharko Lurraren Elkarteak.

Emanaldi txiki eta ertainak izan dira: bilduenak hogeitahiru lagun ingurukoak, jendetsuena hiru mila lagunekoa, eta asko 80 lagun bueletakoak. Hauetako bakoitzean elkartu dira ARGIArekin harreman ezberdinak dituzten herritarrak: aspaldidanik ARGIA Jendea direnak, komunitetera iritsi berriak eta ARGIAZ entzun bai bai-

na ezagutzen ez zutenak. Komunikazio proiektu batek bere jardunarekin konektatzen dituen gaiak, pertsonak, elkarteak eta herriak gurutzatu dira kalean.

Ekitaldiak antolatuzeko erakunde hauen diru ekarpena jaso du ARGIAK: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Kulturaren Erakundea, Donostiako Udala eta Laboral Kutxa.

101. urtean jarraituko dugu kalean komunitatea elkartzen. Esaterako, aurreko lehenengoz egin den Ziburuko Liburu eta Disko Azoka egingo dute hurrengoan bigarrenaz, Baltsan Elkarteak eta ARGIAK elkarlanean.

## MEDEURRENEKO EKITALDIAK

- Otsailean Iruñean egun-pasa: *Jatorrirra bidaia* kaputxinoen konbentura.
- Martxoan Azpeitian *Faxismoa gaur eta hemen* hitzaldia.
- Martxoan Bilbon *Zaintzako langileen borrokak* mahai-ingurua.
- Apirilaren Arrasaten *Hizkuntza eskubideak, norenak?* mahai-ingurua.
- Apirilaren Gasteizen *Kataluniako prozesua eta garaipen ikasbideak* hitzaldia.
- Maiatzean Urroren *Leurtzako urtegi anfibio eta narrasti bila* ibilbide gidatua.
- Maiatzean Donostian *Zerukotik lurrekora* zikloa.
- Mendearen umeek munduari desafio hitzaldia.

- *Ehun urte, ehunka irudi* hitzaldi ilustratua.
- *Enpeinatzea ez bada libre* kantaldia.
- *Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria* bat hitzaldia.
- Ekainean Hendaian *X. Irakurraldi Publikoa*.
- Ekainean I. Ziburuko *Euskal Liburu eta Disko Azoka*.
- Irailean Eskuernagan *ARGIAko kolaboratzaileekin upategian topa!* egun-pasa.
- Irailean Baionan *Euskara Ipar Euskal Herrian, Euskal Hirigune Elkargoa sortu ondoren* mahai-ingurua.
- Urriaren Hernanin *Faxismoa gaur eta hemen* hitzaldia.
- Urriaren Donostian *Napardeath* film trilogia emanaldia plazan.
- Urriaren Donostian *Deskoloniza gaitzen* egun osoko jaia.
- Azaroan Duzunaritzen *100 urteko paisaia 111 pauso* egun-pasa.
- Abenduan Durangoko Azokan *Gogoetaren Plazako* mahai-inguruak.
- *Gu gara euskal prentsa: euskaraz eta ez elebitan*.
- ... eta *debalde ematen diot herriaren belarriari...* *Lizentzia libreak* kultur gintzako alorretan.
- *Kultura lana da. Profesionalizazioa* hizpide.
- *Euskara integrazio hizkuntza. Zer diote euskalduntutako euskal herritar berriek?* ●

Oiartzunen,  
365 egun euskaraz

[www.oiartzun.eus](http://www.oiartzun.eus)



# Gertaera historikoen leihoa denon esku

"Dudarik gabe, txapelketa hau Euskal Herriaren historiara pasatuko da". Horrela zioen *Zeruko Argia*-ko argazki oinak duela berrogei urte. 1980ko urtarrilaren 6an Donostiako Balda pilotalekua mukurua bete zen, hamairu urteko etenaren ostean Euskaltzaindiak antolatutako Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala entzuteko. Xabier Amurizak eraman zuen txapela, eta itu bat jarri zuen: haren kantaerak, eskolak, doinuek... beste bertsogintza baten hasiera ekarri zuten. Oraindik asko geratzen zen egiteko –ikusi besterik ez dago finalista guztiak gizonak zirela–, baina bertsolaritza garai berriekin uztartzeko lehen pauso garrantzitsutzat jo liteke.

Momentu historiko hura eta orduko atmosfera ezin hobeki islatzen duten argazkiok ARGIAren artxiboaren parte dira. Halako milaka gehiago gordetzen dira etxe honetan. Eusko Jaurlaritzarekin egindako elkarnari esker, irudiak eskaneatu eta fototeka baten bidez denok ireki ahal izango dugu leiho hori.

📷 LUIS OTAEGI / ARGIA ARTXIBOA    📄 URKO APAOLAZA



Finalistak pentsakor: Jon Enbeita, Anjel Larrañaga, Xabier Amuriza, Txomin Garmendia, Jose Luis Gorrotxategi, Patxi Etxeberria eta Manuel Sein *Xanpun*; aulki hutsa Jon Azpillagarena da, kantuan ari da.



Bertsolari zaharrei omenaldia.





# SOSTENGATU INFORMAZIO BURUJABETZA BULTZA KAZETARITZA INDEPENDENTEA







**EGIN ZAITEZ  
ARGIAKOA!**  
[argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)

## HERRIGINTZAREN BORROKA MOLDEAK

# Gatazka armatuaren osteko ajeak astindu nahian

Aliantzez, gatazkez, desobedientziaz eta biolentziaz hausnartu nahi dugu. Kolektiboki egin nahi dugu gogoeta, oinak praktiketan dituzten lagunen eskutik: Joxemi Zumalabe Fundazioko militanteak, G7ko kontragailurraren eta Salda Badago jardunaldi feministen antolatzaile bana, eta Kataluniako protestetan murgilduta dagoen lagun bat.

## ZIGOR OLEAGA

**B**orroka moldeak eraldaketarako erreminta dira, ez helburu. Pentsamendua bezala erremintek ere kokatuta egon behar dute, uneari eta tokiari lotuta. Borroka soziala prozesu dinamikoa da, hausturak eta jarraitutasunak agertzen ditu baina ez da borroka isolatu eta estatikoen kateatzea. Horregatik guztiagatik, borroka moldeak uneoro auzitan, eztabaidan izan beharko lituzke herrigintzak. Utopiarantz pausuak emateko eraginkorrenak diren moldeen bila, baina eraginkortasuna modu enpresarialean ulertu gabe: gure utopien haziak egon behar dute erabiltzen ditugun erremintetan.

Joxemi Zumalabe Fundazioa 2015-2016an hasi zen borroka moldeez hausnartzen. Herri mugimenduen barne bizitzan zentratutako zikloa itxi ostean, mugimenduen kanpora begirako jarduneari arreta jartzea erabaki zuen fundazioak. Borroka moldeen lantaldeko kide Andere Ormazabal Gastónek, Ainhoa Narbaiza Irizarrekin eta Jokin Azpiazu Carballorekin bildu gara. Prozesua amaitu gabe dagoela eta ez daudela "argazki

orokor bat emateko moduan" ohartarazi digute Zumalabeko kideek eta, ala, zenbait iritzi norberarenak izan daitezkeela.

Gatazkak, desobedientzia, biolentzia eta aliantzak ari dira hausnartzen Zumalabeko kideek, herrigintzako hainbat kide eta talderekin batera. Zergatik horiek eta ez beste batzuk?: "Une horretan jendartean bizirik zeudenak aukeratu genituen". Zoru hori erabiliko dugu guk ere hausnarketan aurrera egiteko. Gatazka armatu osteko "ajea" da egungo egoera ulertzeko gako nagusietako bat, zumalabetarren esanetan. Eta hor ezker abertzaleak (EA) egin dituen aldaketek eragin handia dute. Batetik, lehentasunetan: "Herrigintzako sektore handienak eta artikulatuenak, esparru instituzionala lehenetsi du herri mugimenduaren aurrean, eta 2011ko legeztatzeaz geroztik militante askok erakundeetara egin dute jausia". Bestetik, gatazkarekiko jarrreran: ulerkera positibo batetik, ekidin beharreko elementua izatera igaro da maila handi batean.

EAK pisu espezifikiko handia izaten jarraitzen du herrigintzan. Baina mugimendu

gehiago daude ezkerreko abertzaletasunaren barnean zein horretatik kanpo ere, eta gatazka ulertzeko modu oso ezberdinak dituzte: "Une honetan badirudi herri mugimenduen baitan gatazka soziala ulertzeko moduak ez direla uztargarriak (...) askotariko begirada horiek elkarren artean osagarri izan baino, elkar oztopatzen ari direlakoan gaude", dio Zumalabek gatazken inguruan argitaratu duen liburuxkak. G7aren kontragailurrean gertatutakoak horren isla lirateke.

Oro har, gatazkek behera eta normalizazioak gora egin dute gure herrian azken urteetan. Lehen normaltasunez bizi ziren gatazka mailak orain muturreko egiten zaizkigu; desobedientzia zena, biolentzia; erabilgarritzat genituen moduak pentsa-ezin egiten zaizkigu; onargarriak ziren arrisku pertsonal eta kolektiboak onartu ezinak... ezarian-ezarian gure praktikak eta ametsak kimatzen ditugu. Normalizazioa *continuum* bat da, posizio batean edo bestean kokatu, nori bere neurrian baina guztiongan egiten du habia.



## G7 ETA DESOBEDIENTZIA

Min asko utzi du G7 kontragailurrak Euskal Herriko herrigintzan. Aurreikusita zegoen ekintza desobediente masiboa bertan behera utzi izana icebergaren alde ikusgarria izan da. Antolaketan aritu ziren pertsonetako batzuek erreportajearen parte hartzeko gonbitari ezetza ematea nahiago izan dute, min horiek tarteko. Hartzea López Arana kontragailurraren antolaketan eta horren desobedientzia lantaldean parte hartu zuen: “Aukera galdua izan dela askotan aipatu da, baina eztabaida azaleratu du, ispi luaren aurrean jarri gaitu”. Ipar Euskal herriko militantziako sektore jendetsuek “bake sozialaren alde” egin zuten Lópezen esanetan, desobedientzia eta konfrontazioa saihestuz.

**“Une honetan badirudi herri mugimenduen baitan gatazka soziala ulertzeko moduak ez direla uztargarriak (...) elkar oztopatzen ari direlakoan gaude”**

Joxemi Zumalabe

Baina gatazkaren ezinbestekotasuna defendatzen dutenek ere ez dute lortu praktika desobediente publiko, jendetsu edo jarraiturik garatzea, ez kontragailurrean ezta azken urteetan ere –bestelako desobedientziak egon badaude: etorkinen babes mugimenduetan, okupazioan, antiespezisten ekintzetan, arau sozialen aurkakoak...-. Desobedientzia denen ahotan dago, baina oso gutxiren praktikan. Zer dela eta? Indarrak sakabanatuta daudela eta iparrorratz komun baten beharra dagoela uste du Lópezek. “Birsortze” baten beharra defendatzen du, bi oinarriren gainean: “Kapitalismoa ezin dela birformulatu, desegin behar dugula; eta gure kabuz eta horizontalki eraiki behar ditugula gure proiektuak”.

Gabezi zehatzagoak atera dira Lópezekin zein Zumalabeko kideekin so-





DAINI BLANCO

**20.000 POLIZIA** inguruk militarizatu zuten G7 kontragailurra. Iganderako deitutako erresistentzia eta desobedientzia ariketak bertan behera uzteak hautsak harrotu zituen antolatzaile zein parte-hartzaileen artean.

lasean. Oro har ondorio errepresiboak asumitzeko prestutasuna txikiagoa da militanteen artean, konfrontazioak beldur handiagoa ematen du. Garai batean nekez eztabaidatzen zen konfrontazio estrategia bat sostengarria ote zen politikoki eta pertsonalki, eta horrek kalte handiak eragin izan ditu; agian orain kalkulu sobera dago eta ziurtasun gehiegi behar da ezertan arriskatu aurretik. Zalantza agertzen da baldintzen inguruan: ez dago baldintzarik tentsiorik eta aktibatutako jende nahikorik ez dagoelako? Kontrara, ez ote da desobedientzia bitarteko aproposa gaurdanik baldintza berriak sortzeko?

Baina bada legetik harago joateko desioa herrigintzan, baita egoerarekiko ondoeza eta haserrea ere. Lópezek dio mugimenduak eta eztabaidak egon badaudela, lehenago edo geroago talde edo ekimenen bat pizgarri bilakatuko dela. “Badugu lehen ez genuen eta oso garrantzitsua den euskarri bat: erraztaileak, elkarzaintza, asanbladak giro onean egiteko tresnak... Biharko desobedientzia ondo egiteko baliabideak”.

Demoak, Bizi!, Bakearen Artisauak, Laborantza Ganbera.. Historikoki oso ‘hegoaldezentrikoa’ izan den herrigintzan Iparraldetik zer ikasia dagoen galdetu diogu López. Fokua zabalduz erantzuten du, munduan ematen ari diren errebolta eta protestetatik ikasi beharra dagoela esanez. Aljeriatik, Iranetik, Txi-

letik, Jaka Horietatik, Ecuadorretik, Sudanetik... baita Kataluniatik ere.

## HERRIALDE KATALANAK: KONFRONTAZIOA GORA, BIOLENTZIA ESTREINAKOZ

“Borroka moldeen arloan aurrera pausu bat eman da prozesu independentistan”, dio Arran gazte antolakundeko bozeramile Adriana Rocak sententzia ostan ireki den protesta zikloaz. Konfrontazio handiagoko moldeak hedatu dira. “Independentismo herrikoiak gehiago onartzen ditu orain gatazka eta ezegonkortasuna”. Independentismo ‘herrikoi’ horren barnean ezker independentista sartzen du Rocak, baita alderdi nagusien oinarrietako asko eta ANC eta Omnium elkarteak ere.

Urte luzez praktikatu eta jendarteratu da desobedientzia. 2017ko erreferenduma desobedientzia ariketa masiboa izan zen, herritarra eta instituzionala. Baina ordutik ulerkera aldatu da, Rocaren esanetan. “Desobedientzia oso koreografiatua, arautua, argazkirako pentsatua zen nagusi. Ematen zuen errepide bat moztea biolentzia zela”. Sententziaz geroztik, ekimen desobedienteek konfrontazio handiagoa bilatzen eta onartzen dute. Errepide mozketak, azpiegituren blokatzeak, komunikatu gabeko mobilizazioak... Tsunamiaren adibidea jarri du Rocak. Ekintzen helburua konfrontazio

handikoa da eta jendearen jarrera aktiboagoa, baina duen babes masiboa da –Tsunamiak etengabe azpimarratzen duen indarkeriarik ezaren mugak gainditu ditu jendeak inoiz–.

Herrialde Katalanei arreta handiz begiratzen dio euskal herrigintzak azken urteetan. Zer irakaspen eskaintzen digute hango praktikek? ANC, Omnium, CDR edo Tsunamiaren jarrerak erakusten dute mugimenduek alderdiekiko autonomia eta jarrera exijentea izatearen garrantzia. Konplizitate zein areriotasun garaietan –ANC eta Gure Esku Dagoren arteko alde esparru honetan, herrialde bakoitzean nagusi den eredu zeharo ezberdinaren metafora argigarria da–. Desobedientziak gatazka eta masibotasuna uztartzeko potentzialitatea duela ikusi dugu berriz ere. Baina potentzialitate hori urtetako lanaren fruitua da, txikitatzen hasi zen. Gogoratzen Arenys de Munteko erreferenduma? Hamar urte pasa dira. Hots, desobedientzia egunerokotasunean entrenatu behar da: ezin da egun batetik bestera pasa obedientzia orokortutik desobedientzia masibora. Desobedientziak, azkenik, prozesuaren grabitazio zentroa ezkerreko mugitzeko gaitasuna du. Oso errealitate ezberdinez ari gara, bai, baina Euskal Tsunamiaren deialdiaren arrakastak erakusten du teklaren egokian asmatuz gero Kataluniako desobedientziak pizgarri izan daitezkeela Euskal Herrian. Gaur gaurkoz, or-





DANI BLANCO

dea, euskal independentismoa ilusio eta erabakitasun handiagok mobilizatzen da Kataluniagatik Euskal Herriagatik baino.

Borroka molde biolentoak ikusi ditugu lehendabizikoz Kataluniako prozesu independentistan –biolentzia zer den eztabaidatzeko espaziorik ez dugu–. Prozesuaren totem nagusiarekin apurtu da une batez: indarkeriarik eza. Baina biolentziak eta biolentziak daude. Kataluniakoaren ezaugarri nagusiak dira espon-taneotasun maila altua, antolakunderik atzean ez izatea, iraunkorki garatzeko itxurarik ez izatea edo autodefentsazkoa izatea, besteak beste. Gazteak izan dira protagonista, gehienak antolatu gabeak.

**ANC, Omnium,  
CDR edo Tsunamiren  
jarrerek erakusten dute  
mugimenduek  
alderdiekiko autonomia  
eta jarrera exigentea  
izatearen garrantzia**

Rocaren esanetan, prozesuari loturiko frustrazioari eta haserreei gehitu egiten zaizkie etorkizun sozial, klimatiko, ekonomiko eta politiko ilunaren pertzepzioa.

Independentismoaren barnean jarrera kriminalizatzaileak egon badira ere gutxiengoak izan dira, sektore askok babestu egin ditu istiluak eta gazteak, eta gehiengo zabalak ulerkortasuna agertu du neurri batean edo bestean.

Rocaren esanetan errepresioak ez du momentuz beldurra hedatzea lortu eta, aitzitik, osaera anitzeko babes sareak antolatu dira espetxeratuaren alde. Baina tartean tarteko istiluek balio al dute independen-



DANI BLANCO

**ISTILU IKUSGARRIAK** egon ziren Katalunian sententzia ostean, prozesu independentistan lehen aldiz.

tisten kopurua handitzeko? Edo alderantziz gertatzen da? “Segun eta nondik zabaldu nahi duzun”, erantzun du Rocak: “Guk ezkerretik eta behetik zabaldu nahi dugu”.

**50 urtetako biolentzia  
politikoaz parametro etiko  
eta politiko propioetatik  
egindako irakurketa zintzo  
batek mesede egingo lioke  
herrigintzari**

Biolentziaren inguruko eztabaidak ez du zerikusirik Euskal herrian. Eztabaidak baino, eztabaida ezak. Zumalabek antolatu zituen eztabaida eta hausnarketa saio itxietan, parte hartzaileek aukera bera eskertu zieten, tabu bilakatu baita. Irakaspenen inguruko hausnarketa-rik eta transmisiorik ez dagoela sumatu dute Zumalabeko kideek, ezta errelato propiorik ere. Iragan hurbileko 50 urtetako borroka ziklo baten alde oso garrantzitsu batez ari gara, arrasto sakonak utzi dituen euskal jendartean. Orainaldiko eta etorkizuneko borrokan kalterako da hutsunea. Parametro etiko eta politiko propioetatik egindako irakurketa zintzo batek mesede egingo lioke herrigintzari, akats zein lorpen handi eta txikiak borroka berriak elikatu ditzaten.

## EUSKAL HERRIKO JARDUNALDI FEMINISTAK ETA ALIANTZAK

Aliantzak indartu egin dira borroka armatuaz geroztik, Zumalabeko kideen esanetan. Epe laburrekoak, egoera konkretu baten edo kanpaina zehatz baten inguruan ehunduak, zein arnas luzeagokoak edo estrategikoak. Azken horiek dira eraikitzen eta mantentzen zailagoak. Herri mugimenduen arteko etsaitasun garaiak ere ari dira izaten, klase kategoriaren inguruan ardaztu diren mugimenduetako batzuk EArekin, feminismoarekin edo sektore autonomoekin izan dituzten talkak lekuko. Hutsik geratu den erradikalitatearen espazioa okupatzeko lehia antzematen da. Baina aliantzetara mugatuko gara gaurkoan.

Aliantzen gakoetako bat batasunaren eta aniztasunaren arteko tentsioan asmatzea da. Agendak, edukiak, kultura politikoak edo metodologiak adostek ahalegina eskatzen du, eta gutxitan inbertitzen da behar beste. Aldi berean, indar txikia duten mugimenduen jardun eta aldarrikapenei hauspoa emateko baliagarriak izan daitezke. Hori da “Gerra hemen hasten da” ekimenaz antimilitaristek Zumalaberi azpimarratu dioten lorpenetako bat, esaterako. Arrisku bat aipatzen dute: neoliberalismo basatiaren eta eskuin muturraren beldurrez, aliantzak kapitalismoaren aurpegi onbera aldarrikatzen duten edukien gainean eraikitzea.

Guztionez baina erradikalak izango diren batasun anitzak sortzean dago arronka. Ipar iraultzailea mantenduko dutenak baina eguneroko beharrei erantzunez aldi berean. Azkenaldian ugaritu egin dira XXI. mendeko “Manifestu Ko-

munista” baten beharra aldarrikatzen duten ahotsak, ezker guztia batuko duen ipar komun bat. Arruzza, Bhattacharya eta Fraserren “feminismoa %99aren alde” proposamena ildo horretan egingo ekarpena da, eta aliantzei berebiziko garrantzia ematen die.

Aliantza anitzek beste desafio zail bati erantzun behar diote: kolektiboan arteko botere asimetriak, pribilegioak eta zapalketak borrokatzea. Inor saiatu bada aliantzak sortzen eta horien barneko desorekei aurpegira begiratzen, hori feminismoa da. Cony Carranza Castro feminista arrazializatua da. Euskal Herriko mugimendu feministaren Salda Badago jardunaldien prestaketan aritu da, eta jardunaldietako dekolonialitatearen mahaia bultzatzen.

Urteak direla hasi zuen Carranzak Euskal Herriko feminismo zurian bere tokia hartzeko prozesua. Munduko Emakumeen arteko lehenik, Emakumeen Mundu Martxan edo Eskubide Sozialen Kartan ondoren, Garaipenen... Bera eta beste emakume batzuk “zubi” bihurtu ziren pixkana, eta zubi lan horren emaitzetako bat da Salda Badagoren egitarau zentratean dekolonialitatea kokatzea. Izerditutako emaitza.

Dekolonialitate mahaia “inflexio puntua” izan dela dio Carranzak, pozez. Askok zoriondu zuten gerora, baina erresistentziak eta haserreak ere piztu ziren modu injustuan seinalatuak sentitu ziren feminista zurien artean. Ez zuen sorpresa handirik hartu Carranzak: “Hau urteetako lana izango da, gatazka egongo da, mina. Zaila da botere harremanak lantzea edo egiturazko arrazakeria onartzea”.

Gainontzeko zapalkuntza ardatzetan ere antzeko erresistentziak sortzen dira behekoek goikoak interpelatzen dituztenean. Are gehiago: behean gaude-

nean goikoarekiko zilegi edo eraldatzailer jotzen ditugun jarrerak ez zaizkigu hain onargarriak egiten goian dagoena norbera denean. Behetik amorrutik interpelatu dezakegu goikoa, ‘brotxa lodia’ erabili eta talde bezala izendatu dezakegu –espainola, burgesa...-. Aldiz, tonu pedagogiko adeitsua, ‘pintzel fina’ erabiltzea eta pertsonen artean ezberdintzea eskatzen diogu behekoari –gizon *matxistak*, zuri *kolonialistak*...-. Carranza hezitzailea da, gozotasuna eta pazientzia lehenesten dituena dio, bazueta zaila egiten bazaio ere. “Baina ez dut amorrua baztertzen”. Horregatik borrokatu zen “beste presentzia bat duen” emakume gazte arrazializatuak dekolonialitatearen mahaian ahotsa izan zezaten, entzuteko deserosoagoak askoentzat.

“Kontua ez da erruak banatzea, baizik eta ardura hartzea borrokan konplize bihurtzeko”, azaldu du Carranzak. Pribilegioak onartzea eta lantzea eta besteei dagokien espazioa paternalismorik gabe libre uztea garrantzitsua da, baina baita minak konpartitzea ere: “Hemen ere badaude mina eta sufri-mendua, odol historiak, desagertuak. Bilgune Feministarekin egin ditugun topaketetan bakoitzaren minez eta pribilegioez hitz egin dugu”.

## SENTIKORTASUN HANDIAGOA ETA BABA GEHIAGO

Errepasso partzial honen ostean, galdera. Zer gako hartu behar dugu kontutan? Hiru ideia azpimarratu dituzte Zumalabeko kideek: moldeak eraginkortasunetik baloratzea, erremintak helburu

Gabonetan  
kezkak etxean utzi,  
guk eramango  
zaitugu.

AUTOBUSAK  
*Aizpurua*

Bidaia bat baino askoz gehiago.

Tel.: +34 943 36 32 90  
[www.autocares-aizpurua.es](http://www.autocares-aizpurua.es)



bilakatu ez daitezzen; gatazkaren ulerkera positiboari eustea, tenkatzea edo konfrontatzea demokratizatzailea delako; eta belaunaldiak elkarriketan jarri beharra, borroka ulertzeko edota militatzeko moduetan gertatu diren hausturen aurrean. Lópezek "birsortu eta elkar lotu" beharra azpimarratu du berriz, eta gure historiatik, feminismoetik eta munduan pizten ari diren erreboltetatik ikasi behar dugula aldarrikatu. Carranzak "sentipentsamenduaren" bandera altxatu du, "burutik gorputzera eta zentzumenetara" pasatzea. Emma Goldmannen esaera sonatua moldatuz amaitu du: "Begiara begiratzeko gai ez bagara, ez da nire iraultza".

## “Urteetako lana izango da, gatazka egongo da, mina. Zaila da botere harremanak lantzea edo egiturazko arrazakeria onartzea”

Cony Carranza

Arrazionalki aztertuta, ez du ematen oso osasuntsu daudenik herrigintza eta bere borroka moldeak. Besteak beste, Zumalabeko kideek aipatu dituzten ajea eta elkar oztopatzeak gaituzten behar dira. Baina ezkortasun horrek iragan idealizatu baten nostalgiatik badu zer edo zer, eta, bestalde, Euskal Herria ez da basamortu bilakatu. Praktikak, humusa, saiakerak eta proposamenak egon badaude. Azterketa arrazionalak begitartea iluntzeko motiboak ematen dituzte, eta noraeza gailen-



**DEKOLONIALITATEAREN MAHAIA** "inflexio puntua" izan zen Carranzarentzat (pantailan ezkerrean). Urteotan landutako aliantzen fruitua, batetik; lantzen jarraitu behar denaren ispilu, bestetik.

tzen da. Baina, pertsonak eta jendarteak gutxi dute arrazionaletik, auresanezinak gara onerako eta txarrerako. Eta mundua, mundua bai dagoela auresanezin. Eraldaketa garaian gaude, hurrengo urteetan euskal herrigintzak agertoki sozial, politiko eta ekonomiko ezezagunei egingo die aurre. Agertoki horietan eragiteko gaitasuna izatea da erronka. Ezkerretik alternatiba sinesgarriak ezean, are eskuinerago eginez bilatuko ditu jendeak irtenbideak, ziurgabetasunaren eta bel-

durraren aurrean. Herrigintzak bere borroka moldeak zorrotz behar ditu uneoro errealitatean eragiteko, testuingurua eta bere burua aztertuz. Baina erreminta horiek zikin egon behar dute, erabileraren erabileraz kamuste etengabe.

Edonola ere, burura zuzenduriko liburu mamitsu berriak baino -honen moduko erreportajeak baino ere, beraz-, azalean eta tripetan sentikortasuna handiagoa eta eskuetan baba gehiago behar ditu herrigintzak. ●

LAI DA ZAPRE



**EZAGUTU EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN ARNASGUNEA**





---

## FRANCIS DUPUIS-DERI

Montreal (Quebec), 1966. Zientzia politikoen sailean irakaslea da UQAM Montrealgo unibertsitate frankofonoan. IREF Ikerketa eta Ikasketa Feministen Institutuko kidea da. Antifeminismoa eta maskulinismoa ditu nagusiki ikerketa eremu. Esparru horiei buruzko hainbat liburu idatzi ditu, tartean, *Antiféminismes et masculinismes d'hier à aujourd'hui* (Antifeminismoak eta maskulinismoak, atzotik gaur arte). Demokraziari, mugimendu sozialei edota anarkismoari buruzko liburuak ere argitaratu ditu.





# “Maskulinitatearen krisiari buruzko diskurtsoa ez dator bat errealitate sozialarekin”

FRANCIS DUPUIS-DERI

Urteak daramatza Dupuis-Deri unibertsitarioak antifeministen eta bereziki maskulinisten diskurtsoak aztertzen eta gezurtatzen. Gizonen gailentasuna mantentzeko helburuz dabilen mugimendu politiko horren aurka antolatzeke behar gorria ikusten du.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

## Maskulinitatea krisian dagoela dionik ere bada.

Ez dakit Euskal Herrian nola doan kontua, baina, izan Quebec, Frantzia, Ingalaterra, AEB ala beste, herri anitzetan entzungai den diskurtsoa dugu maskulinitatearen krisiari buruzkoa. Gizonek gizon izateagatik sufritzen dutela dion diskurtsoa dugu hau. Ez dute sufritzen langabezian daudelako, paper gabeak direlako edo beste. Ez, sufrimenduaren arrazoia emakumeen emantzipazioan edota emantzipazio nahian kokatzen dute.

## Diskurtso bat dela zehazteko denbora hartu duzu.

Judith A. Allen historialariak dio hori eta nik bat egiten dut haren ikuspegiarekin. XIX. mende bukaeran AEBetan maskulinitatearen krisia egon zela dioten bizpahiru liburu aztertu ditu eta ondorioa nahiko argia du: historikoki begiratu, absurdoa da hori adieraztea, jakinda orduan emakumeek ia ez zutela eskubiderik. Maskulinitatearen krisia diskurtso bat da, ez da errealitate bat. Hori horrela, diskurtso horren parean aldi oro datu

objektiboak jartzeko gomendioa egiten digu A. Allenek. Instituzioetan gertatzen denari begiratu beharra azpimarratzen du, boterea eta dirua zeinen eskutan den eta baliabideak zeinek kontrolatzen dituen so egiteko garrantziaz ari da, baita zeinek zein hiltzen duen edo nork egiten duen eraso ondorioztatzeko inportantiaz ere. Maskulinitatearen krisiari buruzko diskurtsoa ez dator bat errealitate sozialarekin.

## Diskurtso hau ez da berria.

Ez naiz historialaria baina historiari begira jarri eta deskubritu dut Mendebaldean badela 500 urte baino gehiago gizon batzuek diskurtso hori daukatela. Adibidez, XVI. mendeko Ingalaterrako edo Frantziako erregeek, apaizeriak eta antzerki edota poema egileek... Erregimen politiko, ekonomiko, kultural edota juridikoa edozein izanda ere, emakumeen dominazioaren diskurtso hori agertzen da aspaldidanik eta edonon. Joera hori prebentziozko antifeminismo gisa identifikatzen dut, feminismoaren kontra egindako prebentziozko eraso

gisa. Emakumeak patriarkatuaren arabera segitu behar lukeen eginkizunetik urrunduz gero, orduan berehala sexu arteko harremanen ezegonkortasuna ondorioztatzen dute. Azkenean, parekidesun ezean izanda ere, antifeminismo bat egon da beti, gizonen gailentasuna eta sexuen arteko bereizketa berresteko balio duena.

## Boterearen aurka borrokatu diren batzuen partetik ere gainera. Pierre-Joseph Proudhon anarkista, besteak beste.

Proudhonek ehundaka testu idatzi ditu emakumeen kontra, tonu oso bortitza erabiliz. Aldi berean, bere idatzi pertsonalei begiratu gero argiki zioen emakume bat nahi zuela, bere zerbitzuko izanen zena, zainduko zuena, bere amaren rola beteko zuena. Proudhonek errotik nahi zituen askatasuna eta berdintasuna gizonentzat, baina hori patriarkatuak ahalbidetu abantailekin. Nonbait ez da inkoherentea, zapalkuntza sistema horrek abantailak dakarzikielako zapalduen aldean ez direnei. Anarkista, sozia-

lista edota errepublikazale askok zuten gauza bera pentsatzen, hots, etxea dela emakumeen espazioa. Proudhon anarkista zen benetan, baina gizonentzako anarkismoaren aldekoa, emakumeak meneko mantenduz, gizonak zeuzkaten abantailekin jarraitzeko gisan. Thomas Hobbes, Jean-Jacques Rousseau, John Locke, Mendebaldeko modernitateko filosofo handi guztiak ildo horretan ziren.

### **Horrek erran nahi du antifeminismoa ez dela soilik eskuineko kontu bat?**

Uste dut antifeminismoa tendentziaz azkarragoa dela eskuin aldean edota eskuin muturrean, ezkerrean baino. Baina aldi berean, antifeminismoa, antiarrazismoaren gisara ez da beti ezker-eskuin espektroarekin koherentea. Ezker muturrean ere seixistak eta erasotzaileak daude.

### **Gaur egun, zein da maskulintestek erabiltzen duten hiztegia?**

Nonbait analisi feminista alderantziz jartzen dute: patriarkatua matriarkatu bilakatzen da, gizonen zapalkuntza emakumeen zapalkuntza delarik, emakumeen eskubideez hitz egin beharrean gizonen eskubideez mintzo dira, eta abar. Diote jendartearen feminizazioa dagoela arazoaren oinarrian. Ez dira konturatzen maskulinitate kontentzionala izan ohi dutela oinarriko arazoa. Haien argumentazio osoa deseraikigarria eta gezurtagarria da. Beste elementu bat lapurtu diete feministei: norbanakoaren hitzaren inportantzia. Aita taldeek, demagun, dibortzio kasu katastrofiko bat kontaktuko dute, nahiko eraginkorra zaielako entpatia lortzeko eta errealtate soziala lanbrotzeko. INCEL Nahigabeko Ezkongabeen Mugimendua ere horrela funtzionatzen du.

### **Gizonez urrikaltzea bilatzen duen joera dute.**

Hori da. Atentzioa haiengana bideratu nahi dute, lagundu beharreko biktima gisa azaltzen dira, agintari politikoak eta zibilak interpelatuz. Krisi diskurtsoetan beti identifikatzen da oina-

rrian den arazo bat. Maskulinitatearen krisia deitzen duten horretan arazoa emakumeak dira, feministak. Beraz diskurtso erabat politiko, erreakzionario eta antifeminista dute.

### **Testuingurua ezberdina izan arren, argudio berek osatzen dute diskurtsoa.**

Antifeminismoan korrente ezberdinak daude. Maskulinitatea da horietariko bat. 2000 urteaz geroztik, behin eta berriz errepikatzen ari dira ideia berak. Emakumeekin konparatuz gizonen suizidio tasa altuagoa dutela, haien sufrikarioaren frogua gisa baliatzen dute baieztapen hori. Mutilek eskolan dituzten zailtasunak ere goraiatzen dituzte, hezkuntzaren feminizazioan eta eskoletan dagoen modelo maskulinoen eskasian jarriz arazoa.

Gizon heterosexualek seduzitzeko dituzten zailtasunak ere maiz plazaratzen dituzte. INCEL mugimendua dabil horretan. Epaileak emakume eta feministen aldekoak direla ere diote, haurren zaintza haien esku ez uztea eta mantenu pentsioak ordaindu beharra

deitoratzeko orduan. Bikote barneko indarkeriari doakionez, harreman heterosexualetan emakume eta gizonen arteko bortizkeriaren simetria dagoela defenditzen dute.

### **Errealtateari begiratu eta banan-banan deseraiki daitezkeen argudioak.**

Bistan da. Har dezagun suizidioaren gaia. Gizon gehiago suizidatzen da, besteak beste, maskulinitatearekin lotu ohi diren bide bortitzagoak eta beraz eraginkorrak erabiltzen dituztelako (pistola edota urkatzeak). Baina beste datu batzuei so eginez gero, laster gezurtatzen da baieztapena. Adibidez, suizidio saiakeren kopurua berdintsua da gizon eta emakumeen artean. Gaizki izatearen isla diren beste adierazle batzuk ere badira, anorexia demagun, zeinek ia bakarrik emakumeak dituen hunkitzen. Beraz suizidio tasari mugatuz, gaizki izatearen errealtatea ez da bere osotasunean hartzen. Gainera, epistemologikoki begiratzen badiogu

gaiari, maskulintestaren tesia erortzen da. XIX. mende bukaeran eta XX. hastapean, hots suizidioari buruzko datuen bilketaren hasieran, gizonen suizidio kopurua gaur egungoa baino askoz altuagoa zen. Alta, garaian mugimendu feminista ia ez zen existitzen. Gaur egungo jendarte ez feminizatuetan ere, Mexikon ala Errusian demagun, gizonen suizidio tasa emakumeena baino askoz altuagoa da.

### **Antolatuta daude ala modu pertsonalean plazaratu diskurtsoak dira?**

Gehienik kronikariak, intelektualek, maiz psikologoek plazaraturiko diskurtsoa dugu maskulinitatearen krisiari buruzkoa. Frantzia Eric Zemmour polemikoa dugu adibide on bat. Emakumei zuzenduriko aldizkariak ere egiten dituzte tarteka zenbaki berezi batzuk “nora desagertu dira gure gizonak?” gisako titularrekin. Gero badaude talde batzuk, haien mobilizazioa justifikatzeko asmoz diskurtso hauek errekuiperatzen dabilzanak. Banaturiko edota dibortziaturiko aita taldeak batez ere, komunikabideak eta Parlamentuko komisioak presionatzeko lobby lana egiten ari direnak. Talde batzuek topaketak egiten dituzte oihan erdian, “barnean daukaten gerraria berriz topatzeko” asmoz, hots, haien maskulinitatea berriro adierazteko.

### **Antifeminista identifikatzen dira?**

Ez, izaera hau gordetzen dute, maskulinitate izaera ere ez dute plazaratzen. Maiz humanista, berdinzale, sexuen arteko benetako parekidetasunaren aldeko gisa definitzen dute haien burua. Eskubideen erretorika berreskuratu dute, umeen edota aiten eskubideen aldekoa.

### **Azkenean, gizonen gailentasuna mantendu nahia dago diskurtsoaren atzean.**

Maskulinitatearen krisia deitoratzean, noski emakumeak kritikatzeko dira, baina horrez gain, “benetako” gizon bat eta “benetako” emakume bat definitzeko moldea dute berretsi nahi. Klise eta estereotipoei segi, gizona ekintza da, bortizkeria, dinamismoa, mugimendua eta emakumea berriz, pasibotasuna, ezintasuna, zaintza, horrek jendartearen dakarzkien funtzio banaketa guztiak. Natural gisa definituriko ezberdintasun hauen berresteko bidea da maskulinitatea.

“ Parekidetasun ezean izanda ere, beti egon da antifeminismoa, gizonen gailentasuna eta sexuen arteko bereizketa berresteko balio duena”

Francis D.-Deri





**Antifeminismoaren parte dugu maskulinismoa. Zein dira antifeminismoaren barnean dauden beste mugimenduak?**

Anitz daude. Erlijiozkoak batetik, Men-debaldean emakumeen gorputzaren eta sexualitatearen kontrolaz obsesionatuta daude, batez ere amatasunaren eta abortuaren gaiarekin. Nazionalistak, eskuin muturrekoak eta antikapitalistak ere badaira. Adar bakoitzak erreferentzia, lehen-tasun, borroka esparru eta propaganda propioak dauzka, baina beti ere ideia orokor berarekin: feministak kritikatzeta eta arren nagusitasuna berrestea.

**Harrigarria badirudi ere gaur egungo talde maskulinista anitzen hastapenean patriarkatua eta sexismoa borrokatzeko helburua zegoen.**

1960. hamarkadan, ezker muturrari lotutako feminismo bat loratu zen AEBetako unibertsitateetan eta laster Frantzia, Belgika eta beste zenbait herritan. Inperialismoaren aurkako, Vietnamgo Gerraren kontrako, ageriki komunista edo anarkista zen mugimendu bat zegoen. Han zeuden sexismoaz

eta misoginiak desgustaturik, emakumeek laster haien talde propioak sortu zituzten. *Radical Lesbian* edota *The Furies* taldeak adibidez. Noski, mutilak ere zituzten hurbilekoen artean, izan anaia, harreman heterosexual edota bisexualen baitan bikotekidea, militantzia esparruko kidea ala beste. Elkartasunez, emakumeen mugimendua lagundu nahian elkartuko ziren horietariko batzuk, patriarkatuaz eta sexismoaz modu kritiko batean gogoetatzeko. Hitzaldiak eta kongresuak antolatzen hasi ziren, laster ehundaka gizon batuz. Oinarrian ziren gizonak hastapeneko helburuez desbideratu ziren nahiko laster.

**Nola da posible?**

Introspektzio joera bati segi, haien egerra galdekatzen hasi ziren. Arazoa da pribilegiadunak elkartzean laster haien arazoez hitz egiten hasteko arriskua dagoela, menekoen arazoak ahantziz. Testuinguru eta ikuspegi oso heterosexual batetik ari zirenez, taldetik atera ziren laster gayak, talde propioak sortzeko. Poliki-poliki haien bikotekideaz edo bikotekide ohiaz hitz egiten hasi ziren gizon heterosexualak, biktima gisa koka-

tuz. Garaiko ezker muturreko aktibistek ere aitortzen dute talde horien kontrola erabat galdu zutela. Jende berri asko etorri zen eta poliki-poliki gunek bere izaera antisexista galdu egin zuen, gizonen erronkez hitz egiten zuten gizonen topaleku bikatu arte.

**Erran dezakegu feminismoa azkarra denean dagoela antifeminismoa ere presenteago?**

Horri buruzko eztabaidak daude. Batzuek diote baietz, beste batzuek ezetz, mugimendu feminista ez zegoenean ere bazegoela antifeminismoa. Hori horrela da. Askotariko faktoreak daude jokoan. Quebecen feminismoa azkarra daukagu eta antifeminismoa ere presente dugu. Sobietar blokean zeuden herriei buruzko ikerketa bat irakurri berri dut, hango aita mugimenduei buruzkoa, diskurtso antifeminista bortitza daukate horiek. Alta, mugimendu feminista ez dago baitezpada indartsu herri horietan. Dena dela, Melissa Blais ikerlariak dion gisara, kontuz ibili behar dugu feminista izatea erraza dela dion ustearekin. Inoiz ez da erraza feminista izatea, mugimendua azkar dagoenean ere erasoak jasateko arriskua dago.

**Bortitza da antifeminismoa eta hitzezko bortizkeria ere gainditu dezake, eraso fisiko bihurtuz. Faxismoa gora doan garai honetan antifeminismo erradikal eta bortitz bat plazaratuz doa, inolako konplexurik gabe. Zer diozu bortizkeria horretaz?**

Irain misogino eta lesbofoboaren bidez, feministen gorputzak eta sexualitateak zikinduz eta indarkeria fisikoa-ri buruzko erreferentziak eginez doa aitzina antifeminismoa. Heriotza mehatxuak jasotzen dituzte lagun feminista batzuek. Blogari feministek sekularako erasoak jasan dituzte. Atentatu terrorista antifeministak ere izan dira. Adibidez, 1989an Montrealgo Eskola Politeknikoan izandako sarraskia, zeinetan hamalau emakume erail zituen antifeminista batek. Abortatzeko kliniken aurkako atentatuak ere ukan ge-

nituen AEBetan edota familia epaileen kontrako lehergailu bidezko atentatuak Australian, 90. hamarkadan. Terrorista neonazi batzuk ere hitzartze antifeminista eta misogino oso bortitzak plazaratzen ari dira.

“**Antifeminista eta maskulinista izaera ez dute plazaratzen. Maiz humanista edota berdinzale gisa definitzen dute haien burua”**

Francis D.-Deri

**"Feminazi" iraina geroz eta gehiago entzuten dugu Euskal Herrian...**

Ez nuen inoiz entzun eta erran behar dut humanitatearen historiako irain erridikuloenen artean dugula! Nazismoa genozidio politika bat izan da, konkista militar bat, milioika hildako eragin dituen. Erran gabe doa feminismoa ez dela hori. Are gehiago, errotik eta harrigarriki, bortizkeria ezari lotua den mugimendua dugu feminismoa. Zientzia politikaren ikuspegitik, absurdoa da ikustea nolaz ez den bortitzagoa. Frantzian bi egunero emakume bat hiltzen du bere bikotekideak edo bi-


kotekide ohiak. Eta ez da matxinadarik? Ez dut ulertzen. Baina, irainera itzuliz, erabat antifeminista dela argi da.

**Antifeminismoaren lanjerra gutxitzeko pistak zein dira?**

Hiru postura ezberdin daude feministen artean: ez ikusiarena egitea, unean uneko borroka eramatea eta borroka hau lehen-tasan gisa jartzea. Ikusiz nire ikerketa esparrua dela, antifeminismoaren aurkako borrokan naizela eta hurbilekoak ere arazoaz kezkatuak ditudala, iritzi pertsonala emanen dut. Jakinik, noski, emakume feministek nahi dutena egingo dutela. Uste dut garrantzitsua dela batzuek lehentasunez borroka ildo bezala hartzea, antifeminismoa borrokatzeko tresnak eskura ukateko. Sare sozialetan oso bortitza da antifeminismoa, feminista anitzi egiten diote eraso. Paradigma indibidualista bat sendi da, zeinek dioen sare sozialetan izateak hori dakarrela eta azkarra izateaz gain, ukaldiak biltzen ikasi behar dela. Joera oso indibidualizatzailea da. Elkartasun estrategiak garatzea beharrezkoa da, sarean ere feminista bati eraso egiten diotenean elkartasun eta babes estrategiak aktibatu behar ditugu. ●

**Erakusketak**  
**2019.11.09 – 2020.02.16**

Andre zigarrongileak plaza, 1  
Donostia  
[tabakalera.eu](http://tabakalera.eu)



TABAKALERA



KULTURA  
GARAIAKIDEAREN  
NAZIOARTEKO  
ZENTROA

Donostia/San Sebastián





MONDRAGON

GIZATASUNA  
LANEAN

Finantza  
Industria  
Banaketa  
Ezagutza

informazioa  
politika  
kultura  
gizartea  
ingurumena

# ZOR100NAK! ARGIA.

Mende oso bat zuen argipean.

Eta mende berriak ere makina bat  
albiste, gertakari, argazki eta erronka  
ekarriko dizkigu.

Segi bidean argi!

[www.mondragon-corporation.com](http://www.mondragon-corporation.com)







MARIA DE JESÚS PATRICIO MARTÍNEZ *MARICHUY*  
MEXIKOKO PRESIDENTEGAI ZAPATISTA 2018AN

# “Eskutik doaz kapitalaren proiektu handiak eta estatuaren biolentzia”

Euskal Herrian izan da María de Jesús Patricio Martínez *Marichuy*, Lumaltik Herriak ekarrita. Bere bizipenak eta ordezkatzeko duen Kongresu Indigena Nazionalaren (CNI) proiektu politikoa ezagutarazi ditu hainbat fakultate eta kulturgunetan. Nahua jatorriko medikua da eta giza eskubideen aldeko borrokan ibilbide luzea egina. Bere izenak sona berezia hartu zuen mundu osoan, 2018an Mexikoko presidentetzarako hautagai izendatu zutenean, EZLNren babesarekin. "Helburua ez zen hauteskundeak irabaztea, arreta deitzea baizik", adierazi digu.

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA

## Zertan da ezberdina komunitate indigena batean 1963an edo 2019an jaio izana? Nola bizi zen Maria umea 60ko hamarkadan eta nola bizi dira egungo haurrak?

Orain askoz jende gehiago dago herrietan, auto gehiago, errepideak daude... gure garaian antzinako jokoetan ibiltzen ginen, ez baikenuen ez panpinik ezta jostailuzko autorik ere. Guk jokoak asmatzen genituen eta komunitatean zabalitzen genituen. Pertsonen artean elkarbizitza gehiago zegoen, baita umeen artean ere. Gaur egun, baina, aldatu egin da egoera. Komunitatea hazi egin da, eta horrek bizitza eta denbora pasatzeko erak aldatu ditu, baita jaten duguna ere. Lehen

lurrak ematen zigunarekin elikatzen ginen, baina orain kanpotik datozen produktuak saltzen dituzten denda gehiegi dago. Horrek pertsonak kaltetzen ditu, umeak barne. Lehen lasaitasuna zen nagusi, orain mugimendu handiagoa dago.

## Ikuspegi europarretik zaila da irudikatzea nolako den bizitza komunitate edo herri indigena batean.

Komunitate batean ez dago errepiderik, bideak daude. Basoa dago, zuhaitz asko, ura... Lurrak ematen duena jaten dugu, eta zelaian dauden animaliak jaten ditugu. Modu autonomoago batean bizi gara, hau da, ez gara hain menpekoak. Hiria oso bestelakoa da: han dena diruak mu-

gitzen du, dirua da motorra, eta dirurik ez baduzu ezin duzu beharrezkorik erosi. Gaixotzen bazara, dirua behar duzu. Komunitateetan norbait gaixotu ezkerro, sendagarria bada, bertan sendatzen dugu.

## Medikuntza tradizionalari esker?

Bai. Landareak, ura, lurra, lurrak ematen diguna... osasuna izateko beharrezko elementuak dira; elikadura batez ere: ondo jan ezkerro gaixotzea zailagoa da. Saltzen dituzten kanpoko produktuak zenbat eta gehiago kontsumitu, jendea gehiago gaixotzen da, gizartea bera ere bai. Produktu industrializatuek kontserbatzaile asko dituzte, eta metabolismoa eraldatzen dute.



### Zer etorkizun dute komunitateetako gazteek?

Komunitateen bizitza ez bada errespetatzen kanpoko eraginak sartzeko atea irekitzen da, eta komunitateak barnetik suntsitzen dira. Gazteak ikastera komunitateetatik kanpora joaten direnean, beste moda batzuek eragiten diete, eta elkarbizitarako beste era bat ekartzen dute. Hau handitzen doan heinean higitzen doa komunitateko bizitza. Lur hau bizirik mantendu nahi dugu komunitateetan, ura, basoak, zuhaitzak... Bada-kigu horrek ematen duela bizitza, eta kanpotik datorkigunak kaltetu egiten gaitu, heriotza ekartzen digu.

### Zein da herri indigenen hizkuntzen egoera?

Herri bakoitza hizkuntza bat da. Herriak suntsitzeko hainbat metodo daude, eta bata hizkuntza desagerraraztea da. Komunitateetan estatuak eraiki dituen eskolak diseinatuta daude gaztelaniaren alde, biztanleek beren hizkuntza ikas ez dezaten. Leku batzuetan isunak jartzen dizkiete beren hizkuntzan hitz egiten duten umeei. Hizkuntza galaraztea he-

rriak suntsitzeko oso era eraginkorra da, gure hizkuntzan komunikatzeak komunitateak indartzen baitu.

Azkenaldi honetan, baina, komunitate asko hizkuntza defendatzeko borrokatzen hasi dira, eta horrek bestelako borroka indartzea ekarri du: komunitateen kulturaren alde, medikuntza tradizionalaren alde... Geure burua berreraiki behar dugu, garena indartuz eta herria aldarrikatuz. Mexikoko Estatistika Institutuak 10 milioi indigena garelako dio, hiztunak bakarrik hartzen baititu kontuan; gure kalkuluen arabera, ordea, 20 milioi inguru gara.

### Gobernua aldatu da Mexikon baina kontuak antzera jarraitzen du. Zer irakurketa egiten duzu egungo egoeraz?

Guk jada ez dugu alderdi politikoetan sinesten, herri indigenak zatitu eta suntsi-

tu egin baitituzte. Hauteskunde garaietan bozak lortzeko etortzen dira komunitateetara, baina behin hauek amaitzean, ez ditugu gehiagotan ikusten.

### Nola sentitzen da bat Kongresu Indigena Nazionalak bozeramaile hautatzen duenean?

“  
Komunitate asko hizkuntza defendatzeko borrokatzen hasi dira, eta horrek bestelako borroka indartzea ekarri du”

Proiektu kolektiboa izan zen. Komunitateen arazoak handitzen ari direla ikusita, zerbait gehiago egin behar zela erabaki zuen CNIK V. kongresuan, eta hauteskudeetan aurkeztea erabaki genuen, indigenon ahotsa gehiago entzutea eta komunitateen arazoak ikusaraztea helburu jarrita. Asmoa, irabaztea baino, arreta deitzea zen, eta gure komunitateek hitz egin ahal izatea.

### EZLNren laguntza izan zenuen. Zein da zapatistek herri indigenekin





### duen konpromisoa?

CNIa beren ekimenez sortu zen, Mexikoko komunitate indigenak batzea nahi baitzuten. Lehenengo deialdi horren ondoren pentsatu genuen arazoak bagenituen, elkartzen jarraitu behar genuela hauek elkarrekin konpontzen saiatzeko. Elkartuta indartsuago egin ginen, eta irauteko gaitasun handiagoa lortu genuen.

### Hainbat herrialdeetako indigenak

### biltzen dituen antolakuntzarik ba al dago?

Beste herrialdeetako kideak izan diren asanblada edo kongresuak egin ditugu, baina oraindik ez dago antolakunderik. Garrantzitsua da herrialde ugaritako komunitate indigenen artean elkarlana garatzea, Mexikon enpresak egiten ari diren proiektu handiak beste lekuetan ere egiten baitituzte, eta herri indigenen etsaiak dira. CNIko bozeramaile izendatu nindutenean, beste herrialde batzue-

tako anai-arrebekin izan nintzen, eta esan zidaten beren bozeramaile ere bantintzela. Horrek hunkitu egin ninduen. Globalizazioaren kontu honek denoi antzera eragingo digu. Modu ezberdinetan gertatzen da tokian toki, baina emaitza bera du: suntsiketa eta ustiaketa.

### Zure hautaketak zer eragin izan zuen emakumeen parte-hartzean CNIin eta bestelako fenomeno politikoetan?

Emakume indigenen parte-hartzea bul-







tzatzeko aurrekari handia izan zen, izan ere komunitate indigenetan emakumeek oso gutxi hartzen dute parte bizitza politikoan. Eta zapatisten komunitateetan nabarmen handitu zen emakumeen parte-hartzea. Zerbait ezberdina eraiki nahi badugu, hiltzen gaituen kapitalismoa suntsitu nahi badugu, elkarrekin borrokatu behar dugu gizon eta emakumeok.

**CNiren lehen emakume bozeramailea izateaz gain, emakumeek debekatua zuten dantza tradizional bat dantzatu duen lehen**

#### **emakumea zara.**

Dantza hau jainkoei uzta ona eskatzeko egin izan da betidanik, eta nik dantzatzeko gogoia izan dut haurra nintzenetik, baina gizonentzat zela esaten zidaten. Dantzatzeko grinak nire barnean jarraitzen zuen, eta nire kabuz entseatzeko hasi nintzen inork ikusi gabe. Prest nintzela, aitak dantzatzeko baimena eman zidan, nahiz eta gaizki egingo nuela esan. Asko entrenatu nuen eta pausu guztiak ondo egin nituen. Egun hartan dantzalekutik atera ez izana garaipena izan zen niretzat, eta ordutik bertan ibiltzen naiz ur-

tero dantzan emakumeek osatzen dugun koadrila edo dantza-talde batean.

#### **Nola baldintzatzen du bizitza arrazismoak, estatuaren eta paramilitarren biolentzia kasuetan?**

Komunitateetan Mexikoko Estatuaren presentzia handitzeko Guardia Nazionala ezarri dute, batez ere proiektu handi hauek egingo dituzten lekuetan. Komunitateen lehengaiak ustiatu eta dena suntsitzera datoz. Proiektu hauek bermatzeko eta biztanleen artean beldurra eta ezinegona zabaltzeko ezarri

*Ez dago B planetarik*

*Zaindu ura, eraiki desagun etorkizuna.*

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**  
 Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia  
[www.consorcioideaguas.eus](http://www.consorcioideaguas.eus)



dute polizia, ez herria defendatzeko. Poliziaren presentzia handitzeak ez du beherakadarik ekarri ekintzaile sozialen hilketetan edo feminizidioetan. Eskutik doaz kapitalaren proiektu handiak eta estatuaren biolentzia.

#### Kolonbiaren gisara?

Nazioarteko kapitalaren proiektuei aurre egiten diogunok arrisku hori dugu, edonon. Borrokak ez dira indibidualak, kolektiboak dira, eta talde batek aurre egiten dienean akabatu egiten dituzte. Orain gutxi, kide mexikar bat hil digute zentral termiko baten aurka borrokatzen zuen taldeko erreferente zelako.

#### Zein dago proiektu erraldoi hauen atzean?

Gehienak enpresa transnazionalenak dira. Proiektu hauek aurrera eramanez ez daude ezta Mexikon ere. Kanpoan daude, eta bost axola zaie komunitateetako herritarroei gertatzen zaiguna, etekina eta metaketa bilatzen dute. Enpresa hauek denetarik egin dute horretarako, baita zerutik erortzen den ura aldatu ere. Haiek ereiten dituzten haizek ur gutxiago behar dutenez, euria datorrenean kanoiekin hodeiak dese-

giten dituzte, euri gutxiago egitea lortuz eta komunitateetako uzta galduz.

**Zuen kideak hil dituzten proiektu handi horietan Euskal Herriko enpresak ere sartuta daude.**

“**Orain gutxi, kide mexikar bat hil digute zentral termiko baten aurka borrokatzen zuen taldeko erreferente zelako**”

Guk badakigu XV. mendean hasi zen kolonizazioak martxan jarraitzen duela oraindik ere. Bukatu ez zutena amaitu nahi dute, eta orain bertako gobernuen baimena dute gure lurralde legalki ustiatzeko. Egoera larria da, eta horregatik herri indigenak altxa egin gara, antolatzen hasi gara eta “aski da” esan dugu. ●



DANI BLANCO

**eusLiderrak,  
hizkuntza-ohiturak  
aldatzeko tailerrak**

AHIZE-AEKren egitasmoa



#### Norentzat:

Ikasleak, gurasoak, administrazio langileak, elkartetako kideak, enpresetako langileak, kirol-entrenatzaileak, aisialdiko begiraleak

Informazioa eta kontratazioa: 944 159 512 · 663 015 525 · [ahize@aek.eus](mailto:ahize@aek.eus)

NAZIOARTEA

# Nire bizilaguna giza trafikatzaileria da

Migrazio krisiak Europan duen eraginaz asko idatzi da, baita iheslariak bizi izandako egoera gordinez ere. Ahaztu zaigun arren, libiar xumeek ere pairatzen dituzte fenomeno horren ondorioak, eta ez dira makalak.

 KARLOS ZURUTUZA

**N**ekez pentsa liteke Libiako hiririk garestiengan gaudenik. Zaborra eta lokatza nonahi dago Zuara hiriko Martirien etorbide nagusian: arropa dendak, kafetegiak, okindegiak... Dendari bakoitzak garbitu eta egokitu behar du bere sarrera bezeroak galduko ez baditu. Tunisiako mugatik 60 kilometrora, Zuara 60.000 biztanleko Libiako kostaldeko amazig enklabe bakarra dugu. Aldi berean, "Lanpedusako Triangeluaren" ezkerreko ertza da -Misrata da eskuinekoa-. Hauxe da, hain zuzen, Afrikatik Europarantz doan migrazioaren foku nagusia. Eta hilobi komuna.

Ideologia baino, geografia hutsa da Zuara Tripoliko gobernurantz alboratu duen faktorea. Libiako ekialdean beste gobernu bat dago 2014tik. Iragan apirilean, hain zuzen, hango buruzagi militar Khalifa Haftarrek Tripoliren kontrako erasoaldia burutu zuen, eta lerro hauek idatzi bitartean, hiriburuak setiopean dirau oraindik. Azken hamarkadako Libiako hirugarren gerra ez da Zuarara iritsi, baina ez da deus aldatu Gadafi boteretik bota zutenetik. Hor daude 2011ko bala zuloak, gerrak utzitako hondakinak eta, batez ere, hondarra. Hondartzaren kontrako borroka amaigabea da Zuararena. Hareaz gain, diru asko dago hirian, gizaki nahiz gasolina trafikatzaileriek urteak eman baitituzte beren negozioaren

etekinak biltzen. Bitartean, zuaratarrek beste aldera begiratu ohi zuten. Kale hautsiok zeharkatzen zituzten luxuzko autoek zera adierazten zieten bertakoei: "Gu gara Libiako nagusi berriak". Diru fluxu oparoa, baina, ez zen hiria konpontzeko eta edertzeko erabili. Zuaratarrek berehala jabetu ziren horretaz: kafea, zelularren kaxa berria, edo Txinan egindako jaka Libiako beste edozein hiritan baino garestiagoa zen, Tripoli barne. Inflazioa da, hain justu, zure bizilaguna gizakiekin trafikatzaren aritzearen berehalako eragina.

Saiakera egin zuten gaitz horrekin bukatzeko. 2015eko abuztuan, Zuarako hondartzan berrehun bat gorpu agertu ziren goiz batean. Kostaldetik hurbil hondoa jotako itsasontzi zahar baten bidaiarien erdia zen. Zuaratarrek palak hartu eta hilobi komun bat egin zuten. Gero porturantz jo zuten: "Zuarak ezin du xintximarien aterpe bilakatu", oihukatu zuen taldeak. Ez zen trafikatzailerien kontrako lehenbiziko protesta, baina tragediaren dimentsioak azkena izatea eskatzen zuen.

"Zerbait egin behar zen. Libian ez dago eraginkorra den gobernurik, beraz, gure burua antolatzea erabaki genuen segurtasuna bermatzearren", zioen Zuarako Larrialdien Komiteko buru Sadiq Jiashek. Taldea 2014an eratu zen, hiriaren hamaika larrialdiei aurre egite-





Libiatik Europara doazen  
migratzaile gehienak Afrika  
osotik iritsitakoak dira.







Zuarako Imsuten brigadak giza-trafikoarekin bukatu zuen, baina baliabide ezak unitatea desaktibatu zuen.

ko asmoz. 35 kide zituen: sendagileak, suhiltzaileak, poliziak... Denen artean, *Imsuten* –"maskaradunak" amazigen hizkuntzan– izeneko brigada antolatu zuten. Giza-trafikorarekin bukatzea zuten helburu, eta halaxe egin zuten.

Lanean hazi bezain laister, hainbat trafikatzaille harrapatu eta espetxeratu zituzten.

"Hasieran alboko Sabrata hirira bidaltzen genituen, baina berehala zeuden bueltan. Askatasuna erraz erosten zutela ikustean, gure espetxea altxatu genuen Zuaran", gogoratzen zuen Jiashek. Maskaradun gehienak bertako gazteak ziren, hirian aski ezagunak, eta lan bikaina burutzen ari ziren. 2015ean, kazetari honi

emandako elkarrizketa batean, euren buruzagiak mezu bat helarazi nahi izan zion Europari: "Laguntza izanez gero, giza-trafikoarekin bukatzeko gai gara". Baina inork ez zuen mezua entzun Mediterraneoko ipar itsasertzean, eta taldea desegin egin zen. Zuaratarrek bigarren ikasgaia ikasi zuten orduan: trafikoaren kontra borrokatzeko baliabideak behar dira, eta Europa ez dago laguntzeko prest.

Porrot egindako saiakera hark eragin zuzena izan zuen trafikoaren gaineko pertzepzioan. "Zertarako denbora galdu unibertsitatean, edo aurki itxi behar ko dudan denda bat irekitzen?". Hauxe ohiko galdera. Aldi berean, estatuko administrazioan lana lortuz gero, soldata ordenagailuko pantaila batean geldituko da. Hil bukaeran, amaigabeak dira Libiako banketxe aurrean sortzen diren ilarak. Zortea lagun, mila dinarreko soldatetik 200 bat jasoko dituzte, diru metalikoarekin arazo handia baitago Libian. Eta Zuaran denek ezagutzen dute kontrabandoan –gizakiena, gasolinarena ala bestelakoena– aritzen den norbait.

Modu askotan egin daiteke: iheslariz jositako kamio bat gidatuz; baltsak ekointziz; errepidea zainduz, bidea libre noiz dagoen eta noiz ez abisatuz... 2018 azaroan, 24 urteko zuaratar batek "bertako mutil arrunta besterik ez naiz" batez

aurkeztu zuen bere burua. Khalid zuen izena. Zioenez, 2017ra arte gasolinaren kontrabandoan aritu zen: tratua itsasoaren erdian egiten zen, Libiako eta Maltako itsasontzien artean. Iparraldekoek hamaika tona erregai zeramatzen etxera bueltan, eta euro andana libiarrek. Bartzuk ikertzen hasi ziren, hain zen erraldoia negoziua. Daphne Caruana kazetari maltatarra haien artean, bonba-auto batez akabatu zuten arte. Gertakizunak Mediterraneoko irla-estatua astindu zuen, bertako politikari eta mafien arteko lotura agerian gelditu baitzen. Gobernuak neurri zorrotzak hartu zituen kontrabandoarekin bukatzeko. Bere barkuaren bodegak gasolinaz berriz zamatatu ezinik, Khalid giza-trafikoan hasi zen.

"Egun zortzi bat lagun gara taldean eta 2000 eta 8000 libiar dinar arteko tarifikak (500 eta 2000 euro artean) eskatzen ditugu bidaiari bakoitzeko. Azalaren araberako prezioak dira: zenbat eta argiagoa, are garestiagoa. Honela, marokiarrek ordaintzen dute gehien, eta Eritrea, Etiopia edo Somaliatik iritsita-koak baliatzen dira deskontuaz", azaldu zuen trafikatzaille gazteak. Istripurik ez omen zen gertatzen. "Bote bakoitzarekin telefonoz kontaktuan gaude itsasaldian zehar, eta nahikoa erregai daukate erreskate barkuetara iristeko", azpimarratu zuen.







**Sei milioi biztanleko herrialdean, milioi bat migratzaile dago, bi guda pasa berritan**

## GIZATASUNAZ

*Piazza* izenaz ezaguna den Martirien Hiribideko plaza nagusia salbu, Zuarako kaleek ez daukate izenik oraindik. Nahikoa izango zen bertan hildakoen izenak oroitzea, Libiako beste hainbat tokietan lez. Zuarako alkate zen Hafed Bensasi berak onartzen zuen udalak ez zuela behar bezala funtzionatzen.

"Suak itzaltzearekin konformatzen gara, hondoratzen ari den barku baten zuloak tapatzearekin", zioen Bensasiak azken erabakia ekarri zuen gogora: 2017ko udazkenean, Zuara alboan dagoen Sabrata hirian, trafiko mafia bati dirutza eman zioten bere jarduna eteteke, baita beste taldeena ere. Erabakiak, jakina, milizien arteko gerra txiki bat ezandarazi zuen.

"5.000 migrante iritsi zitzaizkigun handik, oinez. Gizatasunagatik arropa, jatekoa eta oinarrizko batzuk eman behar genizkien, baina nekez iristen da guretzako", zioen alkateak. Udalaren aurrekontuaren erdia "segurtasunerako" bideratzen dutela azpimarratu zuen jarraian. Kazetari honek elkarriketatutako migratzaile gehienak bat zetozen: Zuara eta Misrata ziren eurentzako hiri seguruenak, eta Tripoli arriskutsuene-



Bukamasheko planta kimikoak lurra eta itsasoa kutsatzen jarraitzen du.

tako bat. Hiruburuan ez bezala, Zuaran kale erdian lan egin dezakete, lan bila aritu edo, besterik gabe, lasai paseatu.

"Ikusten duzu mutil hori musika entzuten bere mugikorretik? Tripolin ezinezkoa litzateke, berehala lapurtuko baitzioten aparailua", zioen James izeneko nigeriar batek. Bestalde, jarraitu zuen gazteak, Zuaran ez da talde armatuez arduratu beharrik. Trafikoan murgilduta ez egotekotan, hondartza bidean dagoen furgoneta baten atzealdean edo itsasoratzekeo prest, arazorik ez. Zuaran armadaren eraikin zahar batera eramaten dituzte azken hauek.

Iragan azaroan, atxiloketa zentrokotuzendaria zen Anwar Abudik bertan 300 bat lagun zeudela zioen, "Afrikatik iritsitakoak denak". 25 emakume zeu-

den tartean, eta jaioberri bat. Abudik ere Libia osoko bulego ofizialetan entzuten zen esaldi bera errepikatu zuen: "Ez daukagu baliabiderik". Nazioarteko laguntza -dela sendagaiak, ambulantiak edota manta xumeak-, Tripolira bidaltzen da, eta ez da handik ateratzen. "Hona ez da inoiz ezer ere iristen", berretsi zuen ofizialak.

Milioi bat migratzaile eta iheslari dago Libian, Nazioarteko Migrazioen Erakundearen arabera. Sei milioiko biztanlegoa duen herrialdeak nekez kudeatu eta bere gain hartu dezake zama hori. Hiruko erregela simple batek egoera ulertzen laguntzen du: proportzio bera erabilia, Euskal Herriak 500.000 iheslari hartu beharko lituzke, bi gerra jasan ostean, eta beste baten erdian.

# 31

hogeita  
hama  
urte

# ika

euskara zabaltzen

**Zorionak  
100 urteko  
gure ARGIAri**

**GASTEIZ euskaltegia**  
Errege-erregina Katolikoak 15 C  
945 288 922

**ZALDIARAN euskaltegia**  
Zaldiaran Plaza 15-16  
945 244 905

**ARATZ euskaltegia**  
Adriano VI.a 18  
945 154 341

## ADREILU BANA

Abandonatutako hotel bat eta alderdi politiko baten egoitzaz gain, Zuarako plaza nagusian dago eskualdeko klinika psikiatriko bakarra. Akram Idrisi da jabea eta zuzendaria. Erresuma Batuan medikuntza ikasi eta bere herrira bueltatzea erabaki zuen 2011n. Dioenez, Libiako gaitotasun mentalen kasuistika eta teoria ez datoz bat.


"Gerra baten ondoren, depresioa eta trauma ondorengo estres kasuak dira ohikoenak, baina psikosia da nagusi gurean. Kasuok gure 680 espedienteen ia erdia osatzen dute", zioen psikiatruk bere bulegoan. Idrisen ustez, haxixaren kontsumoa zen arrazoietakoa bat. Aditua, baina, dena "askoz konplexuagoa" dela-koan zegoen:

"Nortasun krisi itzela dago libiarron artean: badira diru asko izatetik txirotasunera igarotakoak, eta alderantziz; edo "heroi" sentitu zirenak bolada batez, eta egungo errealitatearekin konektatu ezin dutenak. Azken hauek "ni gerran izan nintzen baina zu ez" batez justifikatzen dituzte beren ekintzak, dela giza trafikoa, erregaiarena, edo bortxaketa bat", argitu zuen Idrisik.

Gehiago dago. Zuarako Larrialdi Komitearen bueltan, Sadiq Jiashek "lotsa" sentitzen duela onartu zigun. "Ba al dakizu nola lurperatu ditugu itsasoak ekarritako gorpuk azken urte hauetan?", bota zuen, bere furgonetan sartzeko gonbita egin aurretik. Jarraian, mendebalderanzko bidea hartu zuen.

"Hasiera batean hiri kanpoaldean lurperatzea erabaki genuen baina Zuaran lur emankor gutxi dago, eta nekazariak ez zuten gorpurik nahi beren lursailetan. Ulertzekoa da", gogoratu zuen Jiashek. Gure eskuinean, 2001ean aurkitutako hiri erromatar baten aztarnak ikus zitezkeen. Pisindon antzinako hiria izan

## AFRIKA IPARRALDETIK EUROPARAKO MIGRAZIO BIDE NAGUSIAK



ITURRIA: I-MAP FRONTEX

zitekeela diote, baina hau frogatzeko aukera gutxi dago. "Gadafiren gobernuko brigada batek tokira sarrera debekatu zuen hainbat egunez. Bertan aurkitutako gauzak kamioetan zamatuta osten, ospa egin zuten", zioen Jiashek. Ez omen da ezer gelditzen.

Hogei kilometro mendebalderantz, Tunisiako muga bistan dugula, gure gidariak autoa eten zuen errepide alboan. Bukamash izeneko planta kimikoa seinalatu zuen. Horixe omen dago Zuarako minbizi kasu gehienetan atzean. Bertako medikuek diote malformazio ugari dagoela jaioberrien artean, baita abortu asko ere. Hamarkada luzez, arrasto kimikoak prozesatu gabe bota zituzten itsasora, inongo kontrolik gabe. Egun, plantako depositu asko sustantzia kimiko arriskutsuz beteta dago, baina ez

dago ingurua garbitzeko planik, ezta aukerarik ere. Landareak, olibondoak, arrainak... dena kutsatuta dago, eta ia dena jaten dute bertakoek.

Plantaren inguruan baratze antzeko lursail bat dago. Letxugen orde, adreiluak daude. Hauexek hemen hilobiraturako 2.000 lagundik gorako hiliarriak: gizaseme bakoitzeko adreilu bana. Jias bezalako boluntarioek lurperatu zituzten, lanetik ateratzean, asteburuetan edo euren jai egunetan. 2017an proiektu bat izan zen benetako hilerri bat eraikitzeko, "muru batek hesituta eta guzti", zioen Jiashek. Baina egitasmoa bertan behera utzi zen. Dirurik ez.


"Ezagutzen al duzu lagun dezakeen erakunderik Europan?", bota zuen, adreiluak besterik ematen ez dituen baratzearen erdian. ●



**urpa**  
BUS

Pol. 55, Bº Ubilluts, 9 - nº4  
943 305 050  
20140 Andoain, Gipuzkoa  
[www.autocaresurpa.com](http://www.autocaresurpa.com)  
[info@autocaresurpa.com](mailto:info@autocaresurpa.com)





1, 2, 3... 361, 362, 363, 364,  
BAI, EUSKARAK 365 EGUN.

#Goazen  Donostia



DONOSTIA  
SAN SEBASTIÁN

# AMAZON

## Ekonomia digitalaren paradoxa

Negozioak egitearen funtsa merke erostea eta garesti saltzea dela uste ohi dugu, ñabardurak ñabardura. Halaxe funtzionatzen du zure etxadiko fruta-dendak, esaterako. Baina eredu bakun horrek ez du balio azken hogeitaz urteetan azaldu diren enpresa teknologikoetarako. Amazonek hamalau urte behar izan zituen lehen irabazi nabarmenak lortzeko, 2015ean. Uberrek ez du inoiz ere mozkinik lortu. Eta, halere, etengabe hazten jarraitzen dute horiek guztiek. Nola funtzionatzen ote dute?

 PAUL IANO

**H**arrigarria badirudi ere, Amazonen benetako negozioa ez da ez liburuak saltzea, ezta Alexa domotika-gailua edo Internet bidezko salmenta ere. Bere egiazko negozioa ekonomia-aren funtsezko azpiegitura kontrolatzea da, elektrizitate- edo ur-enpresa pribatuen antzera. Liburua hastapenetan lehenetsi zuen produktua baino ez zen izan, mozkin-marjina ona zuelako eta garraiatzeko erraza zelako, eta Interneten leku bat eskuratzeko asmoz.

AEBetan sarri gertatzen ari den istorioa erakusgarri: betiko saltokietan gero eta salmenta gutxiago duen enpresa txiki batek bere produktuak Amazonen salgai jartzea erabaki du, egoera aldatu nahian. Salmenta-kopurua berehala ikaragarri handitzen da, baina aste batzuk geroago, Amazonek negozio horren produktu onenen parekoak salgai jarri dituela ikusten du. Orain, ez du non saldu Internet bidez, Amazonen salbu. Tranpa batean erori dela konturatu da. Bere negozioak Amazonen beharra du, baina, aldi berean, halabeharrez lehiatu behar du harekin.

Konparaziorako, imajina herriko nekazarien azoka nekazaritza-enpresa handi baten kontrolpean dagoela. Enpresak bertako laborari eta abeltzai-

nak gonbidatu ditu haien produktuak saltzeko. Ondoren, haien jarduna ikertu eta produktu berdin-berdinak saltzen hasi da, baina prezio baxuagoan, gainera bertako ekoizleen postuak bazterreratu dituela, bezeroek topa ez ditzaten. Norbait kezkatzen bada, enpresak saltzeko baimena ukatzen dio, eta herrian ez dago non saldu azokan baino.

Amazonek kontrolpean ditu sareko azoka bakarra, salmentei buruzko datu guztiak, publizitate-sistema zabala, eta aldi berean, edozein produktu ekoizteko gai da. Enpresa txikiak gonbidatzen ditu bere plataformetara, haien jardunaren datuak ikertu, produktuak kopiatu eta negoziotik at eta bestelako aukerarik gabe uzten ditu. Eta hori guztia burutzeko aste gutxi batzuk baino ez ditu behar. Enpresek kexa adierazi edo aurka egin ez gero, Amazonek egotzi egiten ditu.

Era berean, Amazonek erosi berri ditu hodei-informatikaren industriaren ia erdia (alegia, Interneten azpiegitura bera), online publizitate-industriaren zati handi bat, AEBetako supermerkatu-kate nagusietako bat eta ikus-entzuzkoen ekoizpen-estudio handi bat. Aldi berean beste hainbat arlotara hedatzen ari da: industria farmazeutikoa, ondasun higiezinak eta pakete-banaketa.

Zerbitzu horiek guztiak *Amazon Pri-*

*me* delakoan batu dituzte. Horrela, produktu bakoitza bestearen lagungarri izan daiteke eta bezeroak Amazonen kontsumo-burbuilaren barruan mantentzen dituzte. Ohi ez bezala (eta Wall Streeten onespenez), mozkinak ez dizkiete inbertitzaileei eman behar: konpainiak etengabe hazteko inbertitu egiten ditu, eta hori, era berean, zerga gutxiago ordaintzeko baliagarri zaie. Hainbat trilioi dolarretako monopolio huts bilakatu da, isilpean, baina agerian.

### AMAZONEN EKOSISTEMA

AEBetako ekonomia "Amazondu" izanek ondorio larriak ditu milioika lagun bizi zutenetan. Amazonentzat lan egitea ezin latzagoa da, hori gauza jakina da. Langile ohi askok *The New York Times* egunkarian salatu dutenaren arabera, lanaldia ez da inoiz amaitzen eta den-denek negar egiten amaitu dute behin edo behin haien bulegoetan. Emakume batek salatu zuen seme-alabarik balu, lanean mailaz igotzea ezinezko litzaiokela lanaldiaren luzeragatik. Beste batek ez zuen lau egunez lo egin; ohikoa, omen.

Eta, hala eta guztiz ere, horiek guztiak Silicon Valleyko langileak dira: akzioen gainerako opzioak, oporrak, baja hartzeko aukera, lantoki atsegina eta abar dauzkate. Amazonen egoitza na-





DENVER POST

gusitik kanpo, aldiz, egoera askoz okerragoa da. Produktuen biltegietan, askotan dalatu dute langileek pixoihalak erabiltzen dituztela (eskatutako kuotak betetzea ezinezkoa baita komunera joanez gero), eta lan-ingurune arriskutsua dela. Muturreko kasuak ere izan dira: esaterako, behin Amazonekin afiliatutako biltegi bateko langileak lanean jarraitzea behartu zituzten lankide baten gorpua lurrean zerraldo egon arren, ambulantzia iritsi zen arte. Heriotza horren arrazoia, ziur aski, laneko presioarekin lotuta egon zen: egunero 12 orduz presaka ibili behar izatea, 24 kilometro inguru eginez, 45 graduko tenperaturan.

Biltegietan gertatzen denaren antzera, Amazonek kontratatzen dituen logistika-enpresak ezinezko erritmoan lan egitera behartzen dituzte. Enpresa horiek sarri salatu izan dituzte segurtasun-arauak hausteagatik eta soldata baxue-

giak ordaintzeagatik. Horrelako egoerek dozena erdi istripu hilgarri sortu dituzte errepideetan, baita zenbait etxe-animaliaren heriotzak ere, lanez gainera zeuden langile oharkabeen eskutik.

Herri eta eskualde askotan, Amazonek baino ez du lanposturik eskaintzen, eta sindikatu edota bestelako langile-boterearen arrastorik gabe, nekez aldatuko da aipatutako egoera. Amazonek langile eta subkontrastei presio ikaragarria egiten die erresistentziaren muturrera eramanez, bai enpresaren kulturagatik beragatik, bai hala eskatzen duelako hain erritmo biziko negozioa mantentzeko erronka itzelak. Monopolio bantzen lan egitean espero izatekoa da soldata baxuegiak eta segurtasun-neurri eskasak izatea, eta arazo fisiko eta mentalen biktima-kopuru beldurgarria sortzen da. Segurtasunik gabe eta gogor lan egin, ala ez egin.

### AMAZON EUSKAL HERRIAN

Oraingoz, Amazonek aldaxka txiki batzuk baino ez ditu Euskal Herrian, baina bere zerbitzuak gero eta ezagunago bihurtzen ari dira eta bertako jendeak zenbat eta gehiago erosiz gero, ekonomia bere irudi eta antzera itxuraldatzeko behar duen balio ekonomikoa lortuko du. Bilbon, momentuz eraikuntza-lanetan baino ez dira ari 8.000 metro karratuko biltegia abiarazteko; ia logistika-lanik ez, oraingoz.

Amazonek Euskal Herrian saltzen duen produktu bakoitzarekin urrats txiki bat aurrera egiten du jokalaria jokoaren arauak ezartzen dituen sistemarentz. Gobernu baten antzeko antolakuntza-mota eta boterea ditu, baina inolako kontratu sozial edota ordezkariarik gabe.

Amazoni ez zaizkio kostua edo mozki-na gehiegi axola. Ur handitan arrantzan dabil, baita irabazten ere. ●



# ATXEGA JAUREGIA

*jatetxea*

ATXEGA  
JAUREGIA



Aitzearra, 1

Zumartegi industrialdea


☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

[www.atxegajauregia.com](http://www.atxegajauregia.com)



# 1920ko hamarkada (ez hain) zoriontsua



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**A**EB, 1920. Konstituzioaren Heme-retzigarren Zuzenketa onartu eta, horrenbestez, emakumeek bozkatzeko eskubidea lortu zuten. Hala, 1920ko urte zoriontsu eta eroak ondo hasi ziren, eta bereziki pozgarriak izango ziren emakumeentzat. Gordon A. Craig (1913-2005) historialariaren hitzetan: “Herrialde guztietan, Lehen Mundu Gerrak ortodoxia eta aginte guztiak ahuldu zituen eta, amaitu zenean, ez gobernuak, ez elizak, ez eskolak eta ez familiak ez zuten garai bateko indarra gizakien bizitzak arautzeko (...). Bereziki emakumeei egin zien horrek mesede. (...) Toki publikoetan bakarrik azaltzeko, alkohola edo tabakoa kontsumitzeko eta ezkondu aurretik sexu harremanak izateko tabuek indarra galdu zuten. Emakumeek gizartearen tiraniaren menpe egoteari utzi zioten”. Ilea eta gonak moztu zituzten, kortseak gerri zabaleko soineko erosoek ordezkatu zituzten, galtzak ere jantzen hasi ziren, baita zigarroak erre eta alkohola edaten ere; eremu publikoa hartu zuten, lotsak galduta; ekonomiaren loraldiak eta kontsumo ahalmenak Botere haiekiko independentzia areagotu zuen; sexu-askatasunean ere aurrera egin zuten, antisorgailu berriak lagun... Horixe zen *flapperra*, hamarkada zoriontsuko emakume berriaren estereotipoa.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa izan zen. Gerora garrantzitsuak izango ziren pausoak eman ziren, jorratuko zi-



EZKERREAN, ILUSIOA: 1920KO HAMARKADAKO EMAKUME EMANTZIPATU ZORIONTSUAK. ESQUINEAN, ERREALITATEA: DOROTHEA LANGE-REN ARGAZKI EZAGUNA, HAMARKADA AMAIERAKO KRISIAREN SINBOLO.



G. G. BAIN COLLECTION / OAKLAND MUSEUM

ren bideak ireki, baina hamarkada horretan munduko emakume gutxi dantzatu zuten charlestona.

AEBetan bertan emakume guztiak ezin zuten botoa eman; beltzek –emakume zein gizon– 1967an lortuko zuten bozkatzeko eskubidea. Garai hartako irudi publiko indartsuenetakoa, Josephine Baker, estatu-batuarra eta beltza zen, eta Europan, Parisen egin zuen AEBetan ukatu zioten bidea.

Gainera, AEBetako loraldi ekonomikorik ez zegoen gainerako herrialdeetan. Galtzaileak galtzaile, gerraren irabazle gehienek ere asko galdu zuten gataskan, eta zulotik ateratzeko urteak izan ziren haiek. Gerran parte hartu ez zuten zen-

bait herrialdeetako emakumeentzat ere ez zen pagotxa izan; Espainian, esaterako, Primo de Riveraren diktadura jasan behar izan zuten 1923tik aurrera. AEBak izan ziren benetako irabazle ekonomikoak, baina han ere elite murrizt batek soilik jantzi zitzaizkeen Coco Chanelen arropa askatzaileak. Eta 1929ko krisian gerrak puztutako burbuila hura lehertu egin zen. Horrenbestez, “emakume berriak” inor gutxi ordezkatu zuen.

Orain, beste 20ko hamarkada baten atarian, ikusteko dago datozen urteek argazki alai mordo bat utziko diguten ala benetan “emakumeek gizartearen tiraniaren menpe egoteari” utziko dioten. ●



## Mantra, funtzionarioa eta mandarina

XVI. mendean bidaiari portugesak *mandarim* esaten hasi zitzaizkien txinatar inperioko funtzionarioei eta, orduz geroztik, administrazioko ofizial horiek erabiltzen zuten hizkuntzari ere hala esaten zaio. Hitza sanskritotik dator, *mantrinah* (aholkulari, ministro) hitzetik, hain zuzen. Eta *mantrinah* sanskritozko beste hitz askoz ezagunago

batetik dator: *mantrah* (aholku, otoitz, himno).

Laranja bezalaxe, mandarinak ere Txinan du jatorria. Eta mendebaldean laranja ahizpa txikiak izendatzeko burokrata inperialen izen berbera erabiltzen hasi ziren arrazoi soil bat medio: funtzionarioen jantziak eta fruituak kolore berekoak ziren. ●

# BARIETATEA ETA ANIZTASUNA



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Jon eta Aneko Harlouchet barietate bereko artaburuak desberdinak direla azaltzen.

**D**uzunaritzeko kultura ezagutzeko aukera izan dugu *111 hostoz eta orriz jantzi* liburuaren aurkezpen egunean. ARGIAk mendea bete duen ospakizun saila borobiltzeko egun gustagarria. Ehun urtetako kazetaritza goratzeko nekazaritzaren alorrean oinetakoak zikinduz ibiltzea baino bide ederragorik ez zait bururatzen.

Hasteko, euri-jasa eta euri-erauntsi artean, aterrune den mendrenik gabe Duzunaritze eta Sarasketa artean ibili ginen. Euri eta behe laino gutxitan gozaten den paisaia genuen begiera. Hariztia (*Quercus robur*) da nagusi bertako mendixketan eta udazkenaren zurdakiak dena margetzen zuen. Margo festa izugarria zen.

Su egurretarako zuhaitzak botatzeko garaia zela, etxe atarrietan landatzen ditugun zuhaitzak eta arbolak zirela, hesietako zuhaixkak eta igokariak zirela, hurraren (*Corylus avellana*) gorazarrea, lizarraren (*Fraxinus excelsior*) eta haritzaren arteko aldea, intsusaren (*Sambucus nigra*) kultura, hilerrietako landareak, intxaurrendoen (*Juglans regia*) harrotasuna eta abar; horrelako ibilaldietan nahi adina gairekin topo egiten da. Udazken margoena nagusitu zen, jakina. Koloreen gaia atzendua dugu



DANI BLANCO

oso euskaldunok, eta horretaz jakin nahi duen guztiari gomendatzen diot Patziku Perurena handiaren *Koloreak euskal usarioan* liburutzarra; maiz samar egokitzen zait eta uste dut eskola liburua beharko lukeela izan.

Ondoren liburuaren aurkezpena eta ekitaldiak hartuko zituen Idartia etxaldera hurbildu ginen. Bertan nekazaritzara emandako familia baten gorabeherak eta historia ezagutu genituen. Izan ere, istorio-erraike apartak dira Harlouchetarrak: aitona Jean Michel, Jon semea eta Ekain eta Aneko bilobak.

Behi-esne ekologikoaren ekoizpenari lotutako etxaldea da, baina denetik egiten dute. Behiak elikatzeke ia jaki guztiak etxeok dira. Esne gordinaz gain jogurtak eta gazta zuriak egiten dituzte. Era berean, behie emateko arto transge-

nikoa nahi ez, eta bertako arto gorria eta zuria berreskuratzeko eta mantentzeko lan izugarria egiten ari dira.

Egun hartan lezio asko jaso genituen, baina, bat azpimarratu behar izanez gero, Jon Harlouchetek bertako arto aldaera edo barietateari buruz aipatu zuena. Bertakoa eta naturala bada, hau da, klonikoa ez bada, artaburuak desberdinak ikusi behar ditugu. Hau da, espezie batekoak eta aldaera batekoak izango dira, baina barietatean aukera dago. Horixe: "Barietatea", aukerak edo aldaketak dituen "aldaera".

Goizeko ibilaldian ere basoan ikusi genuen gauza bera: hariztia zen baina haritz bakoitzak bere margoa zuen, desberdina. Margo aniztasunaren alde egin behar dugu. Eta Baso Autoktonoen Mundu Eguna zen, azaroaren 23a. ●

sasoikoa ...  
bertakoa ...  
**NAFARROAKO**









“100 URTEKO PAISAIAN 111 PAUSO” EGUN-PASAREN KRONIKA

## DUZUNARITZE ARGIAREN MENDEURRENAREN LEKUKO

Idiartia etxaldearen zurezko ganbara, jantoki eta areto dotorea. Egun hura ez zela berriz errepikatuko, sentipen hori izan zuten parte-hartzaileek.

**2**019a urte berezia izan da ARGIAren tzat, esku artean duzun ale hau ere bada horren adibide. Ehun urte betetzea ez baita lorpen makala, are gehiago euskarazko hedabide txiki batentzat. Ospakizunek forma ezberdinak hartu dituzte urte oso honetan zehar eta, nola ez, landa eremuko ingurune naturalera ere hurbildu nahi izan dituzte ospakizunak: azaroaren 23an Duzunaritzen egin zen “100 urteko paisaia 111 pauso” izeneko egun-pasa berezia, EHKolektiboa eta Biharko Lurraren Elkartarekin (BLE) elkarlanean antolatua.

### “ZE ARRAROA, EURIRIK GABE NAFARROA”

Nafarroa Behereko Garazi eskualdean bildu ziren 80 bat lagun larunbat hartan, euriari eta hotzari aurre eginez. Jon Harlouchetek hartu zituen Idiartia etxaldean, goizeko 10:30ean. Handik, Duzunaritze herrira ibilaldia egin zuten hurbildutakoek, Jakoba Errekondok bertako paisaiari buruz emandako azalpenez lagunduta. Landareetatik abiatuta elikaduraz, mistikaz, heriotzaz, koloreez edota hizkuntzaz aritu zen Errekondo.

Etxaldera bueltan, EHKolektiboak eta BLEk prestatutako saldak berotu zituen ibiltariak. Ondoren, ikuiluan lasto-fardoaz osatutako anfiteatroan hitzaldia eskaini zieten Harlouchet aita-seekek hurbildutakoei: etxaldearen historia azaldu, azken urteetan egin dituzten aldaketa eta hobekuntzak ezagutarazi eta eredu ekologikoan jardutearen garrantzia aritu ziren. Harlouchet kide den Arto Gorriak elkartearen lana ezagutzeko aukera ere izan zuten hurbildutakoek.

### BAZKARIA, LIBURU AURKEZPENA ETA EMANALDIA

Eguerdian etxaldearen zurezko ganbaran bazkari ederra gozatu zuten, bertako produktu ekologikoz egina. Bazkalostean, Sustrai Colinak irriz jarri zituen entzuleak, bakarrizketa umoretsua eta bertsoak uztartuz. Ondoren, Errekondok ARGIArekin atera duen azken liburua aurkeztu zuen: *111 hostoz eta orriz jantzi*. Liburuan parte hartu duten hainbat kide atera ziren jarraian: Itxaro Borda, Sustrai Colina eta Pantxika Maitia, eta lurrari buruzko jakintzaz mintzatu ziren, kulturaren esparrutik. Eguna bukatzeko,



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN



DANI BLANCO

*Buztinezko Etorkizuna* testua irakurri zuen Bordak, Ibon RGren musikaz lagunduta eta Colinaren bertsoen parte-hartzearekin. Egun borobila mendeurren borobil batentzat! ●



**TOKIKOA ETA  
EKOLOGIKOA  
KONTSUMITU.  
ZIURTASUNA  
KONTSUMITU.**

- ✓ Sasoian sasoikoa ekoizten da.
- ✓ Ez du transgenikorik onartzen.
- ✓ Ongarri naturalak erabili eta herbizida eta pestizida sintetikoak sahiesten ditu.
- ✓ Abereen ongizatea ziurtatzen du.
- ✓ Biodibestsitateari eusten dio.
- ✓ Elikadura-balio handiagoa du.
- ✓ Tokikoa defendatzen du.
- ✓ Berme bikoitza dauka.





**D**onostiako Victoria Eugenia antzokiko areto batean ari da elkarrizketak ematen, hiruzpatalau kazetari hartu ditu aldiko. Egun osoa darama horretan. Zuzendari gehientsuenek egiten dute hori jaialdira datozenean, baina ez guztiek. Ohikoak izaten dira harrera eta jarrerera distantea, zenbaitzuetan hotza eta harrokoa ere bai. Ohikoa ez dena da, ia 83 urterekin halako freskotasuna izatea galderak erantzuteko orduan; ohikoa izaten ez dena da, kazetariak banan-banan agurtzea keinu adeitsuz, denborari ez erreparatzea –“utz iezaezu beste gal-

dera bat egiten, hartara bakoitzak hiru-na egin ahalko ditu eta”, esanez prentsa arduradunari-, eta aldamenean izan duen langilearekiko errespetua azaltzea keinu umoretsu batez: “Nik lerdokeriak esaten ditut eta itzultzaileak konpontzen dizkit. Berak egin du lanik handiena gaur goizean”.

*British Social Realism* (Britainiar Errealismo Soziala) deitu eskolaren oinordeko nagusia da Loach, Mike Leigh-rekin batera. Zinema soziala, zinema politikoa egiten duela esaten diote. Ez du ukatzen, baina ñabardura dator ondotik: “Politikoki konprometitua izan banaiz

gaztetatik, zinema soziala egin izan badut, jendearengatik da. Jendea, auzokoa, interesatzen zait”. Jendea, langile jendea, jende xehea izan du beti miran Ken Loachek bere zinema ibilbide luzean. Telebistarako hasi zen lan egiten, 60ko hamarkadaren lehen erdian, eta sona hartu zuten zenbait dokudrama zuzendu zituen, haietako ezagunena *Cathy Come Home*, 1966an filmatua. Bigarren Mundu Gerra osteko ongizate sistema britainiarrean etxebizitza bat lortzeak zituen zailtasunen inguruko filma zen. BBC-k ekoitzia izan zen eta etxerik gabekoen legea aldatzea ekarri zuen.



**Ken Loach**  
Zinema zuzendaria

“

## Zinemari eskatu behar zaio gutxienez esna egotea

”

Keinuen segida bat da zinema, keinuen sekuentzia bat. Zinemagileak etengabe keinu egiten dio kamerari, haren aurreko paisaiari, pertsonaiari, objektuari. Keinua galtzen bada, galdu egiten da zinema, galdu gizatasuna. Zinema, keinua eta gizatasuna zaintzen dituen espeziekoa da Ken Loach zuzendari ingelesa (Nuneaton, Warwickshire, 1936). Donostiako Zinemaldian izan da aurten; *Sorry We Missed You* filma aurkeztu du Perlak sailean, aurrez Canneseko jaialdian publikoaren eta kritikaren oniritzia jasota.

 GORKA EROSTARBE LEUNDA  DANI BLANCO

Orduz geroztik, 30 filmetik gora egin ditu, mende erditik gorako ibilbidean. Baina zehaztapen keinua hor ere: “Filmak ez dira nireak. Batetik, taldean eta elkarlanean egin izan ditudalako ia beti. Azken bolada luzean Paul Laverty izan dut lagun gidioen lanketan. Eta, bestetik, behin filmak egin eta gero ez direlako geureak, jendearenak baizik”. Paul Lavertyrekin elkarlana *Carla's Song*-ekin hasi zuen 1996an. Ondoren etorri ziren *My Name is Joe* (1998), *Bread and Roses* (2000), *Ae Fond Kiss (Just a Kiss)* (2004), *The Wind that Shakes the Barley* (2006), *It's a Free World* (2007), *Route*

*Irish* (2010) eta *I, Daniel Blake* (2016), besteak beste. Eta harekin ondutakoa da *Sorry We Missed You* berriena ere. Eta jendea, jende xehea, prekarizatua, protagonista beste behin. “Kapitalismoa bere faserik basatienera iritsi da. Langilea bera da bere burua esplotatzen duena, horretara behartzen du sistemak. Ez nuke esklabotza denik esango, hitz horrek konnotazio oso lazgarriak baitauzka, baina esplotazioa deituko nioke”. Newcastleko auzo xume bateko familia du protagonistatzat filmak. 2008ko krisiaz geroztik ahalegin betean dabilta ekonomikoki aurrera egin ahal izateko.

Emazteak gaixoak eta adinduak zaintzen egiten du lan. Senarrak lan berri bat aurkituko du banatzaile modura, autonomo gisa. Euskal Herriko edozein familia izan liteke. Prekaritatea: orduak eta orduak lanean, denborarik ez familiarentzako, harremanetarako... Kapitalismoa eta ito-larria.

**Ingalaterrako familia xume bat erretratatu duzu; baina izan liteke Europako edozein familia xume ere.** Merkatu librearen praktikek eragin zuzena izaten dute familiarik xumeenetan; merkatu librearen tresna garrantzitsue-

na esplotazioa da, eta familia bateko ki-deak egunero 10-12 orduz lanean ari badira, horrek inguruko harremanetan eragiten du. Lanean eta nagusien aurrean irribarre egin zenezake, baina etxera itzultzean lehertzen dira kontuak, eta ez dira harreman sanoak eraikitzen bikotekidearekin, umeekin, lagunekin... Merkatuak eta esplotazioak dute errua, ez jendeak. Nekatuta bizi da langile hori, energiari gabe, eta familiak sufritu egiten du. Estresa izugarria da, estres ekonomikoa, egungo gaitz nagusietakoa da, kapitalismoak elikatua eta bultzatua.



***Niretzat ezinbestekoa da kontatzen ari naizen istorioa neure sentitzea, bestela ez litzateke sinesgarri geratuko, eta ez litzateke iritsiko ikuslearengana***



**Familia xumeak dira ahaztu nagusiak zineman, filmetan?**

Noren esku dago zinemaren industria, nork egiten du zinema, batez ere? Zinemaren erakusten dena ez dago baldintzatua horrenbeste gidoiari eta zuzendariengandik, baizik eta inbertsorengandik, eta kapitalaren jabe handi horiek, inbertsoreek, ahazten dute familia xumea. Jende asko dago jende xehearen inguruko filmak egingo litzuzkeena, neronek ezagutzen ditut, eta ez dira gutxi, baina batzuek bakarrik lortzen dute; normalean ideiak dituen jende horrek ez du baliabiderik izaten. Neroni eta Aki Kaurismaki salbuespenak gara.

**Zinema sozialarekin zein da zure helburu nagusia, gertatzen dena erakustea soilik edo baita erreakzio bat, mugimendua, protesta eragitea ere?**

Bertold Brechtek zera zioen *Eta pentsatzen nuen beti* poeman: "Beti pentsatu izan dut hitzik soilenak nahikoa behar dutela izan. Gauzak nola diren esaten dudanean jendearen bihotza birrinduko dela. Erori egingo zarela zeu-



re burua defendatzen ez baduzu". Eta horretan saiatzen naiz ni ere, gertatzen ari dena ahalik eta modurik soilenean eta zuzenenean kontatzen. Horrekin nahikoa behar du izan hartzailea triste jartzeko edo haserretzeko... Gero norberaren esku egongo da haserre hori, etsipen hori, mugimendu politiko edo sozial batera bideratzen duen ala ez, zer egiten duen. Filmari, zinemari eskatu behar zaio gutxienez esna egotea, gertatzen denarekiko esna eta erne egotea.

**Pertsonaiekiko enpatia behar du zinemagileak?**

Niretzat ezinbestekoa da kontatzen ari naizen istorioa neure sentitzea, bestela ez litzateke sinesgarri geratuko, eta ez litzateke iritsiko ikuslearengana. *Sorry We Missed You* filmean familia prekariatu baten larrian jartzen saiatu gara, esplotatua den horri ahotsa ematen eta euren alde keinu bat egiten. Autonomo faltsuen eta prekaritatearen gaia eguneroko ogia bihurtu zaigu, eta neronek ez nuen uste halakorik sekula ikusiko nuenik. Pelikulan ikusten da nagusi berriek nola nahi duten langileek euren gain har ditzaten ez dagozkien ardurak ere. Jendea ez da zoriontsu honela eta esperantza galtzera iristen da.

**Esperantza aipatu duzu. Costa Gavras ere Zinemaldian izan da. Aipatu du European zein munduan ezkerak hartutako jarrerarekin etsita dagoela. Zeu ere hala zaude?**

Nik uste dut jendea konturatzen dela gobernatzeko ahalmena izateko lehenik batasuna behar duela ezkerrek. Egon daitezke, ikuspegi, taktika eta estrategia desberdinak botoak eskurtzeko, baina programa bat osatzerako orduan gutxieneko batasuna behar da, benetan lehen-tasunezkoa zer den ezartzeko. Ezinbestekoa da arduraren politikoa, batasuna bilatzea eta topatzea ezkerrean; parean kapitalismoa daukagu, bere molde desberdinetan, baina hark batuta egiten du aurrera, komertzioarekin, merkatu librearekin, globalizazioarekin, eta behar izanez gero, faxismoarekin... Ingalaterrara begiratuta, hor dugu Corbyn. Eta esperantza ematen dit horrek. Tony Blairren guztiz bestelako pertsonaia da. Sindikalismoa indartu du, ezkerrean batu du Erresuma Batuan, aurre egin die boteredunei. Hori guztia asko da. Nik uste dut posible dela batasun hori lortzea. Hor dago nire esperantza.

**Baita Ingalaterratik kanpo ere?**

Ez nuen uste sekula hau esango nuenik, baina jarrai dezagun Ingalaterrako adibidea. Ezkerrean dagokionez, nahi-





DANIEL BLAKE



SORRY WE MISSED YOU

ko ondo ari dela uste dut. Eta esperantzazta dut bi arrazoiengatik. Batetik, herri xeheak beti egiten du aurrera, beti dago norbait borroka egiteko prest. Eta, bestetik, sistema kapitalista basatia lehortzen ari da, ez du gehiagorako ematen... Hortik gauza onak etor daitezke, ondo batu eta landuz gero. Bai, baina langile jendeak eta herri xeheak ere eskuinari, eta are, eskuin muturrari botoa ematen dio AEBetan, Frantzia, Espainian...

Langileek ere elementu erreakzionarioak izaten dituzte, ez dugu ukatuko. Guztiok dugu. Kapitalismoaren ideia oso gauza potentea da, bila ezazu zure arrakasta, indibidualtasuna... eta gauzak gaizki doazenean, jendeak beldurrez, eskuinera jotzen du. Baina mundua suntsitzen ari gara, eta ardurak agintari-klaseari eskatu behar zaizkio, ez langileari. Christine Lagardek esaten zuen "hazi egin behar dugu, hazi egin behar dugu", baina hori absurdua da! Eta bai, langileak, telebistatik begira adora ditzake Trump bezalako agintariak, beste alternatibarik ez denean... Ideia oso sinplea dago atzean, zu pobrea zarenean zure ondokoa joko duzu erruduntzat, errazena hori delako, duelako azal kolore desberdina, edo lana hark duelaiko edo... baina horren aurka borrokatu behar dugu. Autokritika egin, aberas-

tasun ametsak alboratu eta mobilizatu egin behar dugu bizi-duintasun eske. Nik uste dut, gainera, jende xeheak oraindik ere badituela elkartasun eta zintzotasun balioak; goikoek ez dute halakorik, elkartasuna alboratu dute eta gehienez ere karitatea eskaintzen dute.



***Ezinbestekoa da ardurak politikoa, batasuna bilatzea eta topatzea ezkerrean; parean kapitalismoa daukagu, bere molde desberdinetan***



**Gizartearen errealitatea inoiz aldatuko balitz, bestelako zinema molde bat egingo zenuke?**

(Barre egin du) Lan prekarizatuei buruz eta autonomo faltsuei buruz filmak egiteari uzten badiot, seinale ona izango da, ez da dudarik. Aldaketa eman dela esan nahiko du. Baina errealistak izanik, zine-

ma egiten daramatzadan urte hauetan guztietan injustizia sozialen inguruko filmak egiten jarraitzen dut. Eta badaramatzat urte batzuk!

**Umorea ez duzu galdu, hala ere.**

Ez, garaia izaten dira, eta batzuetan umore gehiago txertatzen dut filmetan. *Sorry We Missed You*-n ere badago umorea. Eta, esaterako, umoreko jartzen nau futbolak. Ahal dudanean joaten naiz futbola ikustera, nire auzoan. Ingalaterrako laugarren mailan jokatzeko du Bath Cityk. Komunitatea sortzen da haren inguruan, eta giroa ederra izaten da. Ez zait batere inporta lehen mailako futbolaren arrakasta [2015ean taldea zorrak janda zegoen, eta Ken Loachek berak ekimen bat bideratu zuen futbol taldea klub komunitarioa bihurtu zedin, eta parte hartzen zuen orok botoa emateko eskubidea izan zezan. Orduz geroztik jabetza komunitario taldea da Bath City].

Badaramatza urte batzuk zinemaren munduan, bai, 50etik gora, hain zuzen ere. Eta ez du galdu jende xumearekiko interesa, haiekiko ardurak, artistikoa zein humanoa. Elkarrizketak amaitu berritan greban diren zahar etxeetako langileengana batu eta haiekin solasean aritu dela jakin dugu, "elkartasuna adierazi, eta bide batez, borroka horri ikusgarritasuna emateko". Keina. ●

# MUSIKATIK BIZI EZ ARREN, MUSIKA DUTE BIZIGAI

Ziburun elkartu gara ama eta alabarekin: Maddi (1961, Donostia) eta Nahia Zubeldia (1982, Donibane Lohizune). Maddi H-Eden taldearekin plazaratu zen duela zortzi urte eta bakarka ari da orain. *Zimurrak baleki* da bere azken diskoa. Nahia, berriz, Unama eta Lumi taldeen partaide da. *Itzal zikinak* da Lumiren azken lana. Itsasertzean ibili ohi dira biak: "Itsasoa 'askatasuna' eta 'lotura' da aldi berean", dio amak; "irekidura da ere", gehitu du alabak. Itsasoak badauka usaina eta erritmo andana, berezko musika.

 MIKEL ASURMENDI  DANI BLANCO

**"Maddi Zubeldia kantari ari da!", esan genion elkarri. Gure seme-alabei *Pintto Pintto gure txakurra da-ta, goxo-goxo abesten ziena. Zein ausarta den Maddi! Hala ote?***

**Maddi:** Ausarta? Ez dut uste. Zu harritu zinen bezala, ni ere bai. Etxean kantatzen (ge)nuen... Banuen nire mundu intimoa: testuak idazten nituen, ene kantatxoak sortzen nituen... Baina bakarrik egiten nuen, nire gelan ez zen inor sartzen.

**Eta plazaratzea?**

**Maddi:** Plazara ateratzea ez zegoen planifikatuta. Garai hartan lagun batzuk biltzen ginen Azkainen, Martintxo Kantu tailerra animatzen zuten (Mixel Jorajuria, Txomin Arizaga eta Xano Urtxegi besteak beste) eta adiskide egin ginen. Asteburu-pasak egiten genituen han-hemenka, eta "hara Maddi, hartu gitarra" esaten zidaten... Afaldu ondoren, pixka bat girotu eta berotu ondoren, ausartzen nintzen kantatzera. "Kantaldi bat egin behar dugu", esaten zuten gero. Donibane Garazi aldean geunden batean, usaian baino gehiago edango genuen, edo nik behintzat, Mixelek bota zidan: "Azkaingo Serres auzoko kaperan kantatuko al zenuke?". Nik: "Musikariak nirekin ari badira...". Orduan abiatu ginen. Geroago, jendeak diskoa egin behar genuela eta, H-Eden taldea sortu genuen.

**Ordurako zu kantari ari zinen Nahia?**

**Nahia:** Bai, ama plazaratu aitzin guk kantatzen genuen, etxean eta etxetik kanpo. Anaiek eta lehengusinek talde bat osatu genuen oso gaztetik: Unama. 2000. urtean. Lumi taldea etorri zen geroago, tarteko ere beste talderen bat osatu genuen, modu naturalean.

**Maddi, abesteaz gain, idazten eta antzerkian ere ari zara?**

**Maddi:** Idaztea kantuan hasi baino lehenagokoa da, beti idatzi izan dut. Baina, seme-alabak txikiak direnean eta gero ere, denbora murrizta izaten da. Emakumeok -amok esplizituki- denbora gutxi hartzen dugu guretzat, besteen zeregin asko egin ondoren; lana eta etxeko lanak egin ondoren. Unama taldea sortzeak izugarritzko poza eman zidan, haiekin abesteak, nire testuak eta aireak kontuan hartzen zituztela ikusteak. Noizbait nire buruari denbora luzeago eskaintzeko aukera etorriko zela bizi nintzen, eta berandu bada ere, hori heldu zen.

**Amaren jardunak nola eragin du zure musika ibilbidean?**

**Nahia:** Amak erran duena berresten dut. Gutaz arduratzen zen eta ez zuen idazteko edo musikarako astirik. Hala ere, sortze eta hiletetarako testuak idazten

eta kanta konposatzen zituen lagunek eskatuta. Guk bagenekien dohain horiek zituela. Beraz, pozgarria izan zen bera ere plazaratzea, lehen diskoa [H-Eden. *Hamaika aztarna*, 2013] argitara eman zuenean plazera izan zen etxekoentzat.

**Unama nola sortu zen, zein testuingurutan?**

**Nahia:** Familiaren inguruan, [Unai] anaiarekin eta lehengusu-lehengusinekin usu abesten genuen, lauak adin beretsukoak gara [Domeka, Kamila, Nahia eta Unai] Behinola, Kamilak eta biok, kantuz ari ginen...: "Ikastolen alde egingo zenuten zerbait?". Eta guk baietz! Gainera, anaiek guk baino musika tresna gehiago jotzen dute, Kamilak eta biok gitarra jotzen dugu soilik.

**Unama, izen polita.**

**Nahia:** Unama baleontzietan erabili sokaren izena da, arpoiari lotzen den soka. Lau musikariak ziburutarrak gara eta giro horretan gogoeta egin dugu.

**Lumi taldea sortu zenuen gero. Unamaren estilotik aldentzen da, musika elektronikoagoa da...**

**Nahia:** Baina funtsean ez dago aldaketarik. Unama sortu aitzin metal talde batean aritu nintzen, lehen esperientzia







musikala hura izan zen eta gero sortu zen Unama. Talde baten jitea norekin sortzen duzun araberakoa izaten da, guk lehengusuen artean osatu genuen, Unaman euskal musikaren polifonia eta ahotsaren lana ageri da. Bestalde, tartean rock talde bat sortu genuen, eta Lumi Manuk eta biok [Manu Matthys bikotekidea] sortu dugu. Bera elektronikoa mundutik heldu da, eta naturalki uztartu ditugu gure estiloak. Musikaren bidea jendearekin

bildu ahala lantzen duzu, ez dituzue xerkatzen estiloak, doinuak naturalki heldu dira. Musikan ez dago mugarik, kideon go-goaren arabera sortzen dira estiloak.

**“Lumi” hitzak prostituta esan nahi du. Zer dela eta “Lumi”?**

**Nahia:** Euskal Herrian buhamea anitz izan zen, haiek bazuten beren hizkuntza. Hemen plantatu zirenek euskaraz egiten zuten eta beren hitzak euskararen egituraren uztartu zituzten. Haien hiztegiaren aritu naiz miatzen, interesgarria iruditzen baitzait Ziburuko historian arakatzea. Lumi proiektua interesgarria egin zaigu, besteak beste, musikaren mugak lausotu nahi ditugulako, musika ezustean sortu edo zabaldu... *Lumi* latinetik dator, *argitasuna* da nonbait. Prostituta dela jakiteak ere eman zigun gogo gure musikarekin lotzeko.

**Itzal zikinak da zuen azken lana. Nostalgia dario...**

**Nahia:** Nostalgia ez dakit, baina iluntasuna bai. Norberaren jitearen arabera sortzen dira kantak. Gizon ahots iluna banu edota zikina, beharbada, hitz argiagoak erabili beharko nituzke. Neska ahotsa izanki, maite ditut gauza politak zikinak ere izan daitezkeela erakustea.

**Zer iritzi duzu alabaren jardunaz? Lumi taldearen estiloaz?**

**Maddi:** Lumiren proiektua gustatzen zait, bi mundu lotu direlako. Hau da, Manuren mundu elektronikoari Nahiak musika alde organikoa ekarri dio. Nahiak ahots sakona baitu, goxoa eta apala, horrek eman dio gorputz gisako bat. Bien artean sortutako musika *planeantea* da. Nahiaren gitarrak eta ahotsak gorpuzten eta errotzen zaituzte. Bi bide ezberdin urratu dituzte eta batu, gero eta interesgarriagoa bilakatzen ari da.

**Musika zer da zuretzat?**

**Nahia:** Egiazki... funtsezkoa zait, baina eguneroko bizitzan ere, ez bakarrik kontzertuak ematean edo diskoa grabatzean. Bakarrik nagoenean kantuz ari naiz. Pentsa, orain ahots arazoak ditut, nodulu bat izan dut eta are gehiago konturatzen naiz musikak eta kantuak parte handia dutela nire bizitzan. Musikak eta kantuak barnean duzuna kanporatzen laguntzen dizute, eta orain ezin...

**Musikariak zarete, baina ez profesionalak.**

**Askeagoak al zarete?**

**Maddi:** Gero eta gehiago jabetzen naiz profesionala ez izatearen askatasunaz. Plazaratu ondoko urteetan, duela 5-6 urtera arte, frustrazio moduan bizi nuen profesionala ez izate.

Profesionalek suerte izugarria zutela iruditzen zitzaidan: “Denbora guztia horretara emanak, ze xantza!”. Sortzeko eta proiektuak aurrera eramateko pagotxa zela uste nuen. “Musikatik bizi al zara?”, galdetzen didate. “Bizi bai, jan ez”, erantzuten diet. Alegia, profesionaltasunak presio mota bat sortzen dizula konturatu naiz: egin beharra. Jatekoa eta egunerokoa ziurtatuta dauzkat, gainera maite dudana lanbide bat daukat [irakaslea da], beraz, askatasuna badut, eta lasaitasuna. Denbora gehiago banu hobe, behar baitut. Baina, bestalde, nahi dudanean eta nahi dudana gisan, eta nahi dudanerako egiten dut musika. Inork ez dit epe bat jarriko, gaizki biziko nuke. Loturak nik ezartzen dizkiot ene buruari, ez dut besterik nahi.

**H-Eden taldearekin egin zenuen lehen diskoa, Zimurra baleki aldiz, zure izenean argitaratu duzu.**

**Maddi:** Horrek badu bere azalpena. Musikari lagunek animatu ninduten plazara ateratzeko eta orain haiek ez omen dira gai sentitzen segitzeko: “Segi zuk bakarrik. Zu honezkero...”. Alegia, ni bultzatu ninduten eta orain haiek utzi dute proiektua. Beraz, ez nuen ongi ikusten H-Eden izenarekin segitzea, haiek gabe. Ez dira niregandik urrun, laguntzen didate... Egia erran, taula gainera igotzean ni baino gaizkiago pasatzen zuten. Niri ere izugarri kostatu zitzaidan tripako min horiek gaintzen, baina aurrera joan ahala, gozatu hasi naizenean... “Hara, bakarrik

utzi nauzue...”, esaten diet [irriz]. Talde gibelean gorde izan naiz beti, eta bada garaia aurpegia emateko Maddiren izenean. Nire gain hartu dut kantaria izatea, nahiz eta jakin bakarrik ez nagoela. Modu kolektiboan aritzen naiz, hala bizi izan dut beti. Halako erakusleho bat zabaldu diot nire buruari. Beste abentura batean sartu naiz.

**Zimurra baleki diozu. Eta ba al daki?**

**Maddi:** Ez, ez daki. Diskoaren izenburuan nire adina dago, bistan da. Adina onartzea eta erakustea, eta barneratzea. “Gazteak baleki, eta zaharrak baleza...”, dio esatera zaharrak. Horren ifrentzua hartu dut: “Zaharrak ba al daki, bada?”. Ez baita aski jakitea, zahartzen jakiteko. Hortik dator zimurra baleki. Gero eta zenbat aurrerago joan, orduan eta gutxiago dakidala ohartu naiz, eta zenbat dudana ikasteko.

**H-Eden: atsedena paradisu...**

**Maddi:** Baina munduan garen, hemen sortu behar dugu gurea. Paradisua ez dakit dagoen, baina hemen une magikoak badaude, nik horrela osatzen dut nire paradisu, musikak lagunduta, eta bereziki musika lagunekin partekatzen dudalako sortzen dira une magiko horiek.

**Hiru eta lau hizkuntzatan abesten duzu.**

**Maddi:** Gustuko ditudan kantak abesten ditut, ez da jarrera kontua. Frantsesez gutxi kantatzen dut. Adibidez, Anje Duhaldek Georges Brassens kantak egin zituen euskaraz, oso txukun. Baina nire gusturako, gata eta piperra falta zaizkie kantei. Brassensek hizkuntza nola erabiltzen zuten ikusita, hitzekin jolaste hori... Euskaraz hori transmititzea oso zaila da. Berdin euskarazko kantak ere, beste hizkuntza batean entzuten baditugu... Adibidez, frantsesez galduko lukete, ezta? Itzulpenekin ez naiz gustura sentitzen eta jatorrizko hizkuntzan saiatsen naiz. Latinoamerikako kantak bereziki gustatzen zaizkit, hizkuntzak maite ditut, eta hori ere badakit.

**Nahia, itzultzailea zara lanbidez. Profesionaltasunera jauzia egingo zenuke musikan?**

**Nahia:** Profesionala bilakatzea batzuetan erakaragarria egiten zait, eta beste batzuetan profesionalak ez dutela nahi dutena beren gisara egiten ikusten dut. Gurea herri txikia da, ez dute kontzertuetarako parada aski. Orduan, bakarlarri edo beren taldearekin egiteaz gain, eskoletan ibiltzen

“Gazteak baleki, eta zaharrak baleza...? dio esatera zaharrak. Horren ifrentzua hartu dut: ‘Zaharrak ba al daki, bada?’ Ez baita aski jakitea, zahartzen jakiteko”

MADDI ZUBELDIA



dira musika irakatsiz, beste musikariren proiektuetan ari dira. Ni itzultzaile autonomoa naiz eta horrek askatasuna handia ematen dit musika sortzeko. Grabatu behar denean lan gutxiago egin dezaket eta beste aldi batzuetan gehiago. Ez dut sentitzen profesionala izatea erabakitze-ko beharrik. Alta, musikak nire bizitzan espazio eta denbora gehiago hartuko balitu molde naturalean, behartu gabe, emeki-emeki, ongi etorria litzateke. Beraz, ez dut burutik kentzen posibilitate hori, ezta nire burua behartzen ere profesionalismoaren bidean sartzeko.

### Diskoa eta kontzertuak tarteko, nola dago ekoizpena gaur egun musikarientzat?

**Nahia:** Gaur egun diskoetatik bizitzea ezinezkoa da, ezin duzu horrelakorik espero. Diskoen helburua da musika ezagutaraztea, egunetik egunra gero eta gehiago. Kontzertuetatik bizi daiteke, diskoetatik baino gehiago hain ziur.

**Maddi:** Diskoa, objektu bezala, honezkero desmaterializatu da. Niri objektua gustatzen zait, diskoen liburuxken eta liburu arrunten usaina. Liburuak gehiago iraunen du objektu gisa diskoak baino. Diskoa bilakatzeko ari da promoziorako bitartekoa, beharrezkoa dena noski, ezagutarazteko aurkezpen gisako bat da. Gero jendeak internetetik hartzen edo baztertzen du diskoa. Mundu erreala ondoan mundu paralelo bat dago, mundu digitala. Nola zabaldu disko bat, alde zuzenetik sarean eskura dagoenean?

**Nahia:** Guk ezin dugu espero garai ba-



tean bezala, jendea ustekabean harrapatzea. Lumi taldearen bidez saiitzen gara -diskoan oinarritzen gara, noski- kanten bertsio ezberdinak egiten publikoari sorpresak eskaintzeko. Izan ere, ez da gauza bera musika grabatzea,

eta zure aitzinean musika entzuten ari den horrentzat aritzea, beste gisa batez hunkitzen duzu entzulea. Musika inprobisatzeak zirrara sortarazten ahal du entzulearengan. Gu inprobisaziorako tar- teak egiten saiitzen gara eta kantak ere beste modu batez bizi- arazten.

**Maddi:** Objektuaren bukaer- ran gauden arren, jendea gero eta desmaterializatuagoa izan arren, zorionez, jendea kontzertuetara joaten da, beno, gu beharbada ez gara horren eredu... Ni zuzenekoetara joaten naizenean

ez dut bilatzen diskoan dagoen kanta, talde horrek sortzen dituen momentuak publikoarekin batera bizitzea baizik, jendearekin batera musika partekatzea noa eta beti da ezberdina. Energia ezberdina da, harremana ezberdina da eta gorputzean bestelako zirrarak sortzen dira. Publikoaren eta artistaren arteko harremanetik "kanta berriak" sortzen dira, kantetatik eta hitzetatik, isiltasunetik ere. Disko batek hori ez du ematen...

### Zer da isiltasuna?

**Nahia:** Norbaitek errana da: "Musika da isiltasun baten eta beste baten artean paratzen den zerbait". Beraz, isiltasuna musikaren parte da, hala bizi dut. Isiltasunik gabe, musika ez litzateke ezer. Isiltasuna beharbada musika ederrena da, lortzen ez dugun zerbait. Isiltasunaren ondorengoan egiten duguna musika da. Isiltasuna ere izan daiteke musikaren helburua, isiltasunaren balioa erakustea, isiltasuna balioan ematea. ●

**"Isiltasuna musikaren parte da, hala bizi dut. Isiltasunik gabe musika ez litzateke ezer. Isiltasuna beharbada musika ederrena da, lortzen ez dugun zerbait"**

**NAHIA ZUBELDIA**

**AITAREN ETXEA**  
KARMELE JAIO

elkar [www.elkarargialetxea.eus](http://www.elkarargialetxea.eus)



## Bertso-zopa

Osatu Maialen Akizuk 2018an Bilbon botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*. Gaia: Azken 15 urte pasatu dituzu hilerro 2.000 kilometroko bidaia egiten zure lehengusua bisitatzeko. Orain jakin duzu Puerto de Santa Mariatik Zaballako espetxera ekarri dutela.

Hamabost urte \_\_\_\_\_ dira  
baina ez degu ahantzia  
gerturatzeko albisteak du  
ororentzat \_\_\_\_\_.  
Hasieran ze poztasuna ta  
hasieran negar antsia!  
Nahiz eta mila kilometroen  
distantziaz zen jantzia  
kilometrotan \_\_\_\_\_ da neurtu  
kristal baten \_\_\_\_\_.

Hauskorra degu politika ta  
hauskorra degu kristala  
azken \_\_\_\_\_ ez nun ikusi  
beti ikusi \_\_\_\_\_  
nahiz ta irripar egiten zuen  
aurpegia zein \_\_\_\_\_!  
Orain honuntza ekarri arren  
ta gerturatua hala  
\_\_\_\_\_ dugu noraino urrun  
joan den ez dakidala.

Ta politikon estrategiak  
horrelakoa dakarte  
eskertu arren esker-emate  
bat daukat oso \_\_\_\_\_.  
Ondo dakigu injustizia  
honek dauka \_\_\_\_\_ kalte  
eta hemendik segitu nahi dut  
\_\_\_\_\_ eta bihar jo ta ke  
ez gertuago, ez hurbilago  
\_\_\_\_\_ eduki arte.



E G E S A F E R N C H N R A N  
S A S F U U T N I N F G I A A  
S C N G B D N O Z R U Z T S I  
B V U R Z R S U E B T I T A Z  
P P J O E A C S S N S I D P T  
L A R L L T J C A I S D M M N  
D D F A Z D R T B Z Z Z L D A  
R T K L G O S A M N E Z E T R  
I A T A S I Z F P C N N V Z R  
M H Z L D C S R C A B D N T A  
D D Z A D G S U Z O A G R L G  
P I E Z B M T G R P I O B N L  
U I R E B E A A U E T X E A N  
D V O B U P A S A T U B C S  
L O C B R S J O I J D T E R E  
E A M B G V D N L F B U C B Z

## Sudokua

ERRAZA

6			5				8	
8	9			7	2		6	
	2							
	4	6	1	8			9	
5	8		7		3		1	6
	1			2	6	5	4	
							5	
	5		2	3			7	1
6				1				9

ZAILA

9		4	3					
6				4		1		
			7	9				
4	5						9	
	3		5		2		6	
	6						8	3
				1	7			
		5		2				7
						3	6	8

## Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



**6.** Aitzin. Nahaste. **7.** Iparraldeko biztanle.  
**8.** Aupa! Toki honetara.

GOITIK BEHERA:

1. Asko ibiltzen dena. 2. Larunbat.
3. Egiazkoa (alderantziz). Hilobietako idazkun. 4. Ikusi (laburdura). Lonazko etxola. 5. Madaria. 6. Aitoren semeen artean, mailarik apalenekoa. Rhesus faktorea. 7. Alderdi karlista. Buruko zapi txiki. 8. Ikaraz. 9. Idazteko era.

EZKER-ESKUIN:

1. Zuhaitz izena. Esnea ematen duen abere.
2. Eserleku luzeak. 3. ...-apa, hitzez hitz. Perdigoia.
4. Argazkiko udalerrria (Gipuzkoa). ...guneak, interneten nabigatzeko zentro publikoak.
5. Kontsonante bikoitza. Espirituak.

## EBAZPENAK

Hamabost urte pasatu dira/baina ez degu ahantzia/gerturatzeko albisteak du/ororentzat garrantzia. /Hasieran ze poztasuna ta/hasieran negar antsia! /Nahiz eta mila kilometroen/distantziaz zen jantzia/kilometrotan ezin da neurtu/kristal baten distantzia. /Hauskorra degu politika ta/hauskorra degu kristala/azken bisitan ez nun ikusi/beti ikusi bezala/nahiz ta irripar egiten zuen/aurpegia zein makalal. /Orain honuntza ekarri arren/ta gerturatua hala/denbora/dugu noraino urrun/joan den ez dakidala. /Ta politikon estrategiak/horrelakoa dakarte/eskertu arren esker-emate/bat/daukat oso aparte. /Ondo dakigu injustizia/honek dauka zenbait kalte/eta hemendik segitu nahi dut/gaur eta bihar jo ta ke/ez gertuago, ez hurbilago/etxean eduki arte.

9	7	4	3	6	1	8	2	5
6	8	3	2	4	9	3	7	
3	9	6	8	1	7	2	5	4
1	6	2	4	7	9	5	8	3
7	3	5	8	2	4	6	1	
4	5	8	1	3	6	7	9	2
5	2	1	7	9	6	8	3	4
6	8	3	2	4	5	1	7	9
9	7	4	3	6	1	8	2	5

ZAILA

7	6	8	4	5	1	3	2	9
9	5	4	2	3	8	6	7	1
1	3	2	6	9	5	7	8	4
3	1	7	9	2	6	5	8	4
5	8	9	7	4	3	2	1	6
2	4	6	1	8	5	7	9	3
4	2	5	8	6	9	1	3	7
8	9	1	3	2	4	6	5	
6	7	3	5	1	4	9	8	2

ERRAZA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N												





# Ertzaintzaren app-a

Zure segurtasuna, hurbilago.

*Euskadi, auzolana*



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

Deskargatu oraintxe



# Aire espazioa

 HARKAITZ CANO  EVREN OZDEMIR

## BAINA LITERATURAK DIO... (ZOAZ ATZERRIRA?)

Literatur jaialdi batera gonbidatzen nautenero esker ona da sentitzen dudana bigarren gauza. Lehena, nagia da. Singapur, Macao, Hong Kong. Ez nuke nire kasa toki horietara bidaiatuko. Horregatik, ez diot nire buruari ezezkorik ametitzen. Literaturaren helburuetako bat horixe dela sinetsita bainago: zeure kasa inolaz ere joango ez zinatekeen lekuetara eraman zaitzan utzi behar diozu. Gauza ederra da hori.

## POSTPOST

Hamabi ordu ez dira deus. Frankfurt hartutako hegazkinak Singapurren utzi zaitu tarte horretan. Marlon Jamesi dago kio Singapurreko jaialdiko irekiera hitzaldia. *A Brief History of Seven Killings* liburuarekin Man Booker saria irabazi zuen lehen jamaikarra izan zen 2015ean (badakit Man Booker saria inportantea dela, baina inoiz ez diot nire buruari galdetu zergatik. Beste egun baterako gaia da hori, ziurtzat ematen ditugun estranjeria aldeko domina fantasmal horien atzean dagoen pedigria auzitan jartzeko brigada bat sortzea). Aretoa beteta dago. Postkolonialismoaz baina, *postpostkolonialismoaz* mintzo da James. Ingeles ahoskera ezberdinak imitatu ditu eta Jamaikako jerga eta joskera aldarrikatu. "Kolonizatuta bizi gara... Hizkuntz eredu batek kolonizatuta ere bai. Aski da!". Apropiazionismoaz hitz egin du gero: "Komunitate beltzak ez dauka ezer inork gure historia kontatzearen kontra... nola egiten den da kontua. Musika beltzarekin bezalaxe ger-

ratzen da, ongi lapurtu dezakezu ala gaizki. David Bowie izan zaitezke edo Vanilla Ice". *Showman* hutsa da Marlon James eta umorea baliatzen du publikoa patrikan sartzeko. Euskal-Marlon-James nor ote den pentsatzen saiatu da buruan dudana homologazionista. Ez zait inor bururatu.

## JAMAICA IKUSTEKO JAI GARA

*A Brief History of Seven Killings* eleberri laudatuan Bob Marley hiltzen saiatu zirenekoa kontatzen da, besteak beste. Zer dago jamaikarragorik Bob Marley baino? Behiala kanonizatu zuen kritikaren erne-gagarri, Marlon James bestelako jardunetan dabil egun: *Eraztunen jaunaren* tradizioaren ildo bereko trilogia fantastikoa idazten, alegia. Honekin jada ez du horrenbeste arrakasta izan. Agian ez delako idazle jamaikar batengandik espero daitekeena? Horregatik idatzi nahi du, hain zuzen; hori ei da postpostkolonial izatea.

## IDAZLE JAMAIKAR BATEN ARRAKASTA ZIURTATZEKO ERREZETA POSIBLEA

1) Talentua. 2) Bob Marley aipatzea. 3) Umorea.

Derrigorrezkoa den bakarria bigarrena delakoan nago; beste biak, hautazkoak dira.

Galdetu edozein editoreri zein liburu/gaitegi itzuli nahi litzuzkeen: finlandiarra bazara fiordoa eta sauna, hollandarra bazara errotak eta kanalak. Eta euskalduna bazara? Finlandiar bati Lekeitioko antzara eguna azaltzen saiatu nintzen. Hurrengo egunean ez zen gosaritan nirekin eseri.

## SINGAPORE AIRLINES

Ez esan miresgarria ez denik. Duela lau-urtegi urte bazen jendea hiri artifizial hau gaur zer izango zen pentsatzen. Holandarrei ikasi zieten itsasoari puska nola kendu. Zuhaitzak landatu zituzten lurra finkatzeko eta etxeorrazak gero. Singapurren elkarrekin baina auzo bereizietan bizi dira musulman, malaisiar, txinatar, europar... Harro daude haien izaera kosmopolitaz. "Hemen ez dago pobrerik. Etorkinik ere ezin dugu hartu, txikiak garelako". Ba ote? Hiri *kitsch* samarra izan liteke, lizuna da diruaren taupada. Trukean, Europar ametsetan ere izango ez genukeen aurrekontu itzela dute hemen ikerketari eskainia. Singapore Airlines, bultzada publikoa duten aire konpainia gehienak bezala, herrialde hura zapaldu aurretik ederretsi dezagun sortu zen: hankak jartzeko leku gehiago, tapizatu dotorea, aukerako janaria, puntako telesailak... Lufthansa bera *low cost* konpainia begitantzen zaigu haren ondoan. Estatu ikuspegiaren zolitasunaren parte da airean zu seduzitzen saiatzea, batez ere lur eremu ttipia edo klima desatsegina duten herrialdeen kasuan.

## TXERNOBIL

*Chernobyl* telesaila ikusi dut Macaorako hegaldian. Istripu hari esker, hamar urteko ume mokoek ere ikasi genuen non zegoen Ukraina. Tragedia bezalakorik ez, geografia ikasteko. Katastrofea behar bada eza-gun izateko, agian hobe da ezezagun izan.

Akaso arrazoi du Gorbatxovek: Txernobil izan zen Sobiet Batasuna benetan pitzatu zuena.





### MACAO

Distopia bat. Portugesez daude kale izen guztiak, baina txineraz baino ez dira mintzo kalean. Unibertitatean, idazle australiarrekin batera ekitaldi sorta; ikasle bakar bat ere ez da azaldu. Idazleak modu lotsagarrian beste idazleentzat hizketan. Endogamia eta kultur simulakroa ez da gure kontua bakarrik. Ogibide hau gure dekadentziaren onenean dago. Utikan idazleak. Gazte eta zahar, emakume eta gizon, kasinoan dago adin zein kondizio guztietako jendea. Ehunka dira. Selfirik ez da hemen. Jokoa ez baita jolasa. Macaoko hirurehun ludopata hauek dira mundua pedalkadaz pedalkada mugitzen dutenak.

### NORBERE ESKALA

Azkenean beti topatzen dituzu zeure neurrikoak. Ongi moldatu naiz idazle letoniarrekin. Hogeita hamar urte ere ez independentzia lortu zutenetik. Bi milioi biztanle eskas. Horietatik erdiak pasatxok hitz egiten du letonieraz. Zinema independentea indarra hartzen ari da. Telebisita publikoa badute, baina haien telesailak

eskasak dira. Aurrean ispilu bat jarri izan balidate bezala sentitu eta Txillardegirekin gogoratu naiz, ezinbestean: "Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; baina estaturik gabe, ziur ezetz".

### HONG KONG

Txinako presidentea *chinazi* izendatzen duten kartelak nonahi. Horma hutsik ezean, zebrabideetako marra zurietan egiten dituzte pintadak, Kataluniaren aldeko batzuk, tartean (*Stand With Catalonia; Catalans we connect!*). Protestatan zaurituetakoa bat hil da gaur. Nondik dator hau guztia, ordea? Txinako gobernuak 150 bisa eman ei ditu azken hogeitau urteotan egunero, Txina kontinentaletik Hong Kongera etor daitezen. Egin matematika apur bat: milioi bat pertsona dira horiek. Bi milioi -gehi haien oinordekoak- izango dira beste hogeitau urteren buruan. Letonia oso bat edo Euskal Herri oso bat. Zenbaki hauek aspaldi egin gintuzten irrelebante munduan. Ez gu bakarrik. Lufthansa ere bai. Eta baita mendebaldeko alfabetoa ere.

### AIRBALTIC

Fijazioa daukat egunotan aire konpainiekin. Letonian eurena ba ote duten jakin nahi izan dut. Badute. AirBaltic du izena eta Suediako SAS taldearen laguntzaz sortu zuen estatu letoniarrrak eratu berritan, 90etan. Ustelkeria eta diru galera latzak jasan ondoren, hiru errepublika baltikoetan bizirik dirauen bi aire konpainietako bat da (Air Lituania eta Estonian Air itxi egin zituzten).

Euskal aire konpainia bat sortu behar balitz gure "aliatu naturalak" nortzuk liratekeen galdetu diot nire buruari. Nola seduzituko genituzke bidaiariak airetik jada geurea ederrets dezaten? Zer kontaktuko genieke?

### MUGAK

Hain interesgarria da mugako giroa eta hainbeste literatura sorrarazi du... Agian kontua ez da mugak ezabatzea, mugak estatuak baino handiagoak izan daitezen baizik. ●



LIBURUA

# Marx revisited



## %99REN ALDEKO FEMINISMOA CINZIA ARRUZZA, NANCY FRASER ETA TITHI BHATTACHARYA

ITZULTZAILEA: DANELE SARRIUGARTE  
TXALAPARTA, 2019

### AMAIA ALVAREZ URIA

2016 eta 2017ko mobilizazio feministaren ondorioz (Poloniako abortuaren aldeko greba, Argentinako *Ni una menos* martxa, M8ko lehen greba feminista) jaio zen manifestu hau. Laugarren olatu feministaren ganean datorkigu eskuartera Cinzia Arruzzak, Nancy Fraserrek eta Tithi Bhattacharyak argitaratu dutena, Danele Sarriugartek Txalapartarako euskaratuta.

Egileen arabera une historiko batean bizi gara eta esku hartzeko garaia heldu da. %99ren aldeko feminismo bat aldarrikatzen dute, hau da, feminismo antikapitalista, antiarrazista, dekolonial eta antiheterosexista. Izan ere, feminismo liberalarenak egin duela diote, gutxiengo bat askatzeko xedea duelako: “Ez dugu kristalezko sabaia hautsi nahi baldin eta

ondoren emakumeen gehiengoari egokitu bazez bazez hondakinak garbitzea”.

Krisi kapitalistak erreproduzio soziala emakumeen bizkar utzi eta balioz hustean, emakumeen zapalkuntza eta haien kontrako indarkeria ditugu: “Klase borrokari buruzko gure ikuspuntua zabaldu behar dugu. Munduko langileen gehiengo migratzaileek, jende arrazializatuak, emakumeek -zis eta trans- eta askotariko gaitasunak dituen jendeak osatzen dute”.

Sistema honek sexualitatea arautu nahi du eta lurra suntsitu. Arrazista eta kolonialista da eta ez du demokraziaren edo bakearen alde egiten. Horregatik mugimendu erradikal guztiei dei egiten diete bat egiteko eta jendartearen eraldatuko duen matxinada antikapitalista sortzeko.

Baina autokritika ere egin behar da: feministotik aldarrikatu den ahizpatasunari interseksionalitatek begiratu behar diogu: “Nahiz eta gizarte kapitalistan denok sufritzen dugun opresio misoginoa, opresioak hainbat aurpegi hartzen ditu. Opresioak elkarri loturik daude, eta beti ez dira errazak ikusten; horregatik politikaren bidez ikusarazi behar dira, hots, elkartzuna eraikitzeko ahalegin kontzienteak eginez”.

Mugimendu feminista beti dabil dena berrikusten, eta manifestu hau da, azaro hasierako jardunaldi feministekin batera, horren erakusgarri. Gogoeta, pentsamendua eta diskurtsoa garrantzitsuak direnez praktika, ekintza eta eraldaketa gauatzeko hau irakurtzera animatzen zaituztegu. ●





MUSIKA

# Badatoz XXI. mendeko sorginak



Sua taldeko kideak Bizkaiko Maruri-Jatabekoak dira.



## ORDU BELTZAK SUA

AIRAKA, 2019

### IKER BARANDIARAN

**S**uak baditu ezaugarri bereizgarri batzuk oso indartsuak direnak. Suak energia dakar, suntsitu dezake, baita txarrak kendu eta onak ekarri ere. Argitasunarekin ere badu lotura zuzena, baita beroa ematearekin ere, babesarekin. Horiek guztiak ditu laukote honek.

Maruri-Jatabeko (Bizkaia) talde gazte hau indartsua da eta egungoa eraldatzeraz dator orain arteko eragin askoren errautsen gainera bere eskaintza birsortuz. Urte eta erdiko epean Gaztea maketa lehiaketa irabazi eta Bilbao BBK Live jaialdian ere parte hartu du eta kontzertu ugari ematen dabil.

Taldea Ane Barrenetxea (ahotsa), Janire Lopez (baxua eta teklatua), Julen G. Wright (gitarra) eta Esteban Gabiriak

(bateria) osatzen dute. Lehenengo biak Dekot taldearen hastapenetan arituak, eta Gabiria Educados taldean.

Aurten *Sua* izeneko lau abestiko EPA kaleratu dute, eta oraintxe *Ordu beltzak* izeneko lan luzea. Irekita daude estilo askotara eta energia zein samurtasunak, biak, dituzte. Euskara –beraien ama hizkuntza– eta ingelesa –entzuten dutenaren isla– dira aukeratutako hizkuntzak, eta bai batean zein bestean emaitza oso aberatsa da, betea, Anek ingeleserako ere dikzio oso txukuna dauka-eta.

Introan Belako gogora ekarri didate nahiz eta pieza are eta ilunagoa izan. *1021* misteriosua da, melodikoa, indartsua, itsaskorra eta baita ere Riot Grrrl-en eskolakoa. *Ordu beltzak*-en nabarmentzen da Anen ahotsa eta roc-

karekin, indiearekin eta grungearekin dantza egiteko erritmoak jartzen dituzte. *Reddish*-ek edaten du Pixies jostarienetatik eta oso-oso melodikoa da. *Zapatu gaua II* hazten doa –gaua bezala– intentsitatez eta melodia borobil-borobilez. *Shake it out* misteriosua da, intrigako erritmoekin eta ia-ia orkestrala bilakatzen da. *Euri gabe, lorerik ez* dantzagarriena eta zirikatzaileena da, new wave gitarra eta guzti. *Shame* indartsua da, riff rockeroekin, eta punk-rocketik barrena ia dark-technoan amiltzen da. *Gau(ero)* bizkaieraz xuxurlatutako kantu post-rock minimalista erakargarria da. Eta, bukatzeko, *Cliff* pieza ederra, pop eta post giroetan blaituta eta barrenak hustuzetik daukana... A ze interpretazioa! ●



# Gorriaren kolore desberdinak

IRATI MAJUELO  BERTSOZALE ELKARTEA

**A**zaroan euria bezain maiz entzuten dira bertsoak Iruñean. Bertsoaroa da. Urtez urte, udazkena piztera etorri ohi da ordu aldaketak arratsaldeak ilundutako hirira. Eta egia esan, iruindar euskaldun askoren zita bihurtu da, urtero huts egiten ez duten horietakoa. Berdin da astearte iluntze heze eta triste samarra izatea, Bertsoaroako aretoak bete egiten dira beti. Bertsoak, baina, ez dira beti bakarrik etortzen; hitzaldi, antzerki, kantaldi, eta abarretan kamuflatu ohi dira saio askotan. Aurten bertsoa eta flamenkoa eskutik helduta iritsi dira azaroan, Miren Amurizak eta Askoa Etxebarrietak sortutako *Gorria* ikuskizunak estreinaldia izan baitu Iruñean.

Zazpi esanahi omen ditu gorri hitzak, gure mundu gorriari begiratzeko zazpi adiera. Hiztegiaren definizioak zabaldu eta are gehiago erakutsi nahi izan zuten Miren Amurizak eta Askoa Etxeba-

rrietak. Hala, gorritz tintatutako hitz eta erritmoak erabili zituzten biolentziari, ahizpatasunari, sexualitateari edota emakume erreferenteei buruz hitz egiteko. Zazpi atalek osatzen dute ikuskizuna, bertsoa eta flamenkoa bidelagun. Sentimenduen zerbitzura jarri dituzte bien adierazpideak, esan zutenez, fusioa egin baino, bi diziplinak hurbiltzeko saiakeran. Elkar ulertzeko elkarrizketa moduko bat, beraz. Ikusleak ez baitu aurkituko bertsoa ulertzen dugun moduan, ezta ohiko flamenkoa ere. Bertsoa flamenko erritmotara gerturatua, eta flamenkoa bertso neurritara mugatua.

Bertso doinu zaharrek eta koplek hartu zuten Kondestable, argi-ilun gorrixken jokoak lagunduta. Aulkiak bete-ta patioan eta lehen pisuan, jendea lurrean eserita zutabeen alboetan. Ahots goxoz gidatu zuen Amurizak emanaldia, ahots indartsuz defendatu Etxebarrietaren takoi kolpeei jarritako hitzak. Gorri

eta biluzik, lehen aldiak ez dira errazak izaten, eta zenbaitetan urduritasuna nabaritu zen, baina entzuleek esker onez hartu zuten artisten zintzotasuna. Askoari erosoago ikusten zitzaion dantzan, emozionatuta, dakiena egiten. Ez du ezizen txarra, *La Pulga*. Pena da patioko aulkietan zeuden ikusleek dantzariaren oin kolpe oro ikusi ezina, Gasteizko urakan txikia gertutik ikusteak merezi baitu zinez. Giroa berotzen joan zen zazpi atletan barrena, kaleko hotz.

Estreinaldia amaitzeko loreak –gorriak noski–, eskerrak, koplak eta txaloak. Lehen proba pasa izanaren zoriontasuna eta zerbait desberdina dastatu izanaren beroa. Gorrian oraindik zantzu berderen bat egonagatik, izanen du heldutzeko denbora bi artista langile hauen eskuetan. Proposamen umil eta interesgarria dakarkigute Amurizak eta Etxebarrietak, gorriaren paleta bertso eta flamenkoz aberastu asmoz. ●





donostia  
**kultura**  
irratia

**107.4 FM**  
IRRATIA.DONOSTIAKULTURA.EUS  
**KONEKTA ZAITEZ!**  
¡CONÉCTATE!



Disenya: WWW.TGA.EUS



WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS



DK  
donostia  
**kultura**

# Bettina Cruz Velázquez

GIZA ESKUBIDEEN  
DEFENDATZAILEA



## ENERGIA BERRIZTAGARRIAREN ALDE ILUNA BISTARA

“Energia berriztagarriaren inguruko eztabaida mahai gaineratzea lortu dugu, lorpena da; momentu honetan bada behintzat kontuan hartzen duen jenderik eta erakunderik. Atzera begiratzuz gero ez baitzen horrela. Hasieran galdegiten ziguten ea nola ausartzen ginen energia eolikoak zalantzan jartzen, ea zergatik geunden horren kontra, zerbait ona zela esaten ziguten. Baina ez, ez da berez ona den zerbait, ez da ona transnazionalen eskuetan. Ona izango litzateke komunitatearen eskutan balego, antolatutako erabiltzaileak erabili eta produzitu ahalko balute. Kasu horretan bai, energia berriztagarria ona litzateke”.

“Irabaziak beste ezer ikusten ez duten enpresen esku baldin badago energiaren produkzioa, ez da energia garbirik izanen”

Oaxacakoa (Mexiko) da Bettina Cruz Velázquez, giza eskubideen defendatzailea. Lurra eta Lurraldearen aldeko Tehuantepec-eko Istmoan Herri Indigenen Asanbladako kidea da. Bere bizilekuan kokaturik dauden megaproiektu eolikoek aurka borrokan, enpresa multinazionalen praktika suntsitzaileak salatu ditu, tartean Iberdrolarenak. Bere jardunagatik heriotza mehatxuak jasotakoa da.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA XABI BOSCH

**Mende hasieran, klima aldaketaren aurka egiteko konpromisoa hartuta, atzerriko enprekin akordioak egin zituen Mexikoko Gobernuak. Ondorioz, 28 parke eoliko eraiki dituzte Tehuantepeceko Istmoan. Kolonializazio forma berria dela diozu.**

Bai, enpresa gehienak atzerritarrak baitira, espainolak asko. Berriz ari dira gure lurretaz jabetzen. Urrea eramatera datoz oster, energia elektrikoa da urre hori.

**Aurreko gobernuak Oaxacako zenbait gune Zona Ekonomiko Berezi izendatu zituen, gobernu berriarekin testuingurua aldatu da.** Enrique Peña Nieto gobernuburuak eskualdea hala izendatu zuen, Zona Ekonomiko Berezi. Hala ere, gobernu berriak zona ekonomiko horiek jada existitzen ez zirela esan zuen. Eremu horietan hainbat proiektu ari dira gauzatzen orain, eta Zona Ekonomiko Berezi izendatu ez arren, gobernu berean ari da jarduten: erraztasunak jartzen dizkie enpresei, bertan kokatu daitezten. Tehuantepec-eko Istmoan ozeanoarteko korridore multimodala

egin nahi dute, Ozeano Pazifikoa eta Atlantikoa lotuko litzatekeena. Munduko ekonomia nagusiak lotzea da asmo nagusia. Aparte, korridoreak barne hartzen ditu beste hainbat proiektu.

### Zeintzuk dira?

Ozeanoarteko korridoreaz gain, gasbide bat Coatzacoalcos eta Salina Cruz artean eta portu berri bi ere egin nahi dituzte. Gasbidea gas naturala eroateko erabili nahi da, eta *fracking* bidez ustiatzea planteatzen ari dira. Horrez gain, hainbat meatze arro ere badaude. Bestetik, aipatu 28 parke eolikoak ditugu, orduko 3.000 megawatt produzitzen dutenak. Enpresa pribatuak Elektrizitate Batzorde Federalaren transmisio lineak darabiltzate, baina linea horiek ezin dute egun transmititzen dena baino gehiago transmititu. Hala bada, beste linea bat eraiki nahi dute, orduko gutxienez 3.000 megawatt gehiago produzitzeko. Linea hori Ixtepec-etik Yauhtepec-eraino joango litzateke, Morelos Proiektu Integralarekin bat eginez. Hango kideak proiektu horren kontra ari dira borrokan. Borroka horretan hil zuten Samir Flores Soberanes.





### Harresi bat ere bada tarteko, ezta?

Bai, Erdialdeko Amerikatik AEBetara doazen kideei muga zeharkatzea eragozteko murrua ere Tehualtepec-en eraiki nahi da. Guzti hau hala moduzko kontsultekin ari dira aurrera eramaten.

### Kontsultak norekin?

Ustez herriarekin, baina izatez ez da hala. Legearen arabera jokatzan dute, herriari dei egiten diote kontsultetara. Baina gobernuaren asmoekin ados daudenak bertaratzen dira, paktuak eginak dituen alderdietakoa den jendea, edo kontraturen bat sinatu dutenak... jende gutxiarekin ari dira lurren desjabetzari abala ematen.

Agintarientzat enpresak dira baliotsu, ez gu; gu estorbu bat besterik ez gara beren planteamendua gauzatzeko orduan. Ez dute pentsatzen herri indigena gisa gure lurretan lasai eta gure mundu ikuspegiarekin duinki bizitzeko eskubiderik dugunik. Bigarren edo hirugarren mailako herritarrak gara. Haien begietara baliotsuak ez gara gu, baizik eta guk daukaguna: errekurso naturalei dago kienez aberatsa den lurraldea.

### Lurren desjabetzaren aurrean erresistentzia jarrera hartzeak, aldiz,

### arriskuan jartzen zaituztete.

Bai, enpresa horiek aurka borroka egiteak dakar norbere bizia arriskuan jartzea. Bertatik ihes egin behar izan dugu inoiz, hil gintzaten ekiditeko.

Enpresa eolikoak eta antolatutako delinkuentek lagunak dira. Enpresentzako babes modura jarduten dute. Horrek eragin du komunitatean konfrontazioa, biolentzia eta ikuspegi ezberdinen artean liskarra egotea.

### Komunitatean nabaritutako da horrek eragindako kaltea.

Gobernuak eta enpresek diotena balioztatzen dute batzuek, diru apur baten truke. Eta kontra gaudenok, defentsan ari garenok, mehatxatu egiten gaituzte. Adibidez, proiekturen bat guk egindako zeozergatik denbora batez gelditu behar badute, kontratuak sinatu dituztenei ondokoa esaten diete: "Ez dizuegu dirurik ematen horiek egiten ari direnagatik". Horrek gure ehun soziala suntsitzen du, herri indigenok existitzen jarraitzeko daukagun gauzarik garrantzitsuena.

### Enpresak jendea engainatuz heldu direla diozu. Nola egin dute iruzur?

Eskainiaz heldu dira, enpresa guztiek alde gutzietan egiten duten bezala. Eskaini

dute lana, garapena... baina izatez mexikar herriaren eta landaren txirotasunaz profitatu dira. Jendea erabili dute, engainatu dute. Zeren enplegurik ez da. Parke eoliko baten sorrerak, asko jota, urtebete irauten du; urte horretan bertakoentzat lana egongo da, peoi gisa. Behin parkea amaituta, ez da horientzat lan gehiago izanen. Hemendik [Europatik] eramaten dute jendea hara [Mexikora] lanera.

### Iruzurra ere dei geniezaioke energia berriztagarriaren izenean ingurunearekiko errespetutsu agertzeko enpresa horien joerari, ezta?

Bai, hor dago kapitalismo berdea ere. Energia berriztagarria ez da berez ona. Aerosorgailu baten atzean zer dagoen behatzen badugu, meatzaritzarekin edo petrolioarekin topo egingo dugu, baita langileen lan indarraren esplotazioarekin ere. Parke eolikoek, berez, landa, lurra eta ura kutsatzen dituzte. Besteak beste, turbinek olioia daukate, lurrera zein uretara heltzen dena; horrez gain, parke bat eraikitzeke eremua deforestatzen dute, ekosisteman albo kalteak eraginez.

Energiaren produktzioa irabaziak beste ezer ikusten ez duten enpresen esku baldin badago, ez da energia garbirik izanen. ●

# A2

**Donostia 105.8 Mhz**

**Bilbo 91.4 Mhz**

**Gasteiz 90.4 Mhz**

**Iruña 106.70 Mhz**





## Confebaskek Olentzerori idatzitako gutuna ongi iritsi da Eusko Jaurlaritzaren bulegoetara



URKULLU, THE CONFEBASK MEN, OLENTZERO ETA KOLOREA EMATEKO ASMATU DUTEN NESKA BAT.

Urtero bezala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako patronalak ilusio handiz idatzi dio Olentzerori gutuna eta Eusko Jaurlaritzako iturriek baieztatu dutenez, dagoeneko Iñigo Urkulluren bulegora iritsi da. "Bai, Olentzero ere gu gara", azaldu du Jaurlaritzak. "Zer uste zenuten ba?". Beranduegik jakin ahal izan duenez, Confebaskek datorren urterako eskatu dituen oparien artean langileak gogorrago astintzeko burdinazko kateak eta kremaile radun galtza batzuk daude, azken hauek sindikatuekin negoziatzera esertzean zakila mahai gainera ateratzea errazteko. "Ia zergarik ez pagatzeko politikaren bat ere eskatu nahi zuten", azaldu dute EAEko gobernuko iturriek. "Gogorazi behar izan diegu hori dagoeneko oparitu geniola". ●

## Kokozko bonboiek salatu dute beste urte batez Eguberrietan marjinazio arrisku larrian daudela




APARTEIDA GAINDITZEKO KANPOTIK TXOKOLATEZ MOZORROTZEN SAIATZEAK EZ DU EMAITZARIK LORTU.

Euskal Herriko Eguberrietako Postreen Jardunaldien amaieran, gogoeta-giroa zen nagusi: "Nire pribilegioez kontzienteagoa naiz orain", adierazi dio Beranduegiri Tomas Litxartegi postrezale durangarrak. Izan ere, hautsak harrotu ditu jardunaldien barruan Kokozko Bonboien Askapenerako Fronteak egindako salaketak. "Urtero bezala, polboroiak, turroia eta mazapanak atzaparka ahoratuko dituzue, baina kokozko bonboiak, gure anaia-arrebak, mahaian geratuko dira. Bazterketa sistematikoa jasaten dugu eta nahiko agerikoa da zergatik: kokoaren jatorri tropikala. Xenofobia normalizatzen ari zarete". Gozoaleen kontzientziak astindu dituen adierazpen horrekin ez daude denak ados, ordea. Sagar Konpotaren Ligak argitaratutako ohar batean adierazi du "etxeko postreak garela, izatekotan, baztertuenak". ●

**ARGIA**ri sustengua ematen dioten **AMETZAGAIÑA** taldeko enpresak:





BIDALI ZURE HARRIKADAK: [BERANDUEGI@ARGIA.EUS](mailto:BERANDUEGI@ARGIA.EUS)

Letra zopa: txosten abertzale iraultzaile batek ezinbestean behar dituen 10 hitzak bilatu.



T  
A  
T  
E  
A

**ATAL HONEN BABESLEAK**



Bilatu zazpi aldeak





**gurea, denona**

**euskara**

**de todos y todas**

**Euskarazko hedabideetatik  
edan euskara!**

**Nafarroako  
Gobernua**



**Gobierno  
de Navarra**



**euskarabidea**

[www.euskarabidea.eus](http://www.euskarabidea.eus)

# Estropadetan ere, eman hegoak euskarari

"Egin Boga euskararen alde"

